

**Burmuin aktibitatearen aldaketak
helduen hizkuntza ikasketan,
magnetoentzefalografia bidez neurtuta**

**Changes in brain activity during
language learning in adults measured by
magnetoencephalography**



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



BASQUE CENTER
ON COGNITION, BRAIN
AND LANGUAGE

Ainhoa Bastarrika Iriarte

Euskal Hizkuntza eta Komunikazio Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea

Supervised by

Douglas J. Davidson and César Caballero-Gaudes

A thesis submitted for the degree of

Doctor of Philosophy

Donostia 2017

Support for this project was provided by the Basque Government (Eusko Jauriaritza) under the program 'Ikertzaile ez doktoeen doktoretza-aurreko formakuntza-programa' (grant references PRE_2013_1_1130 PRE_2014_2_247 PRE_2015_2_0208 and PRE_2016_2_0033).

Moreover, part of this project was conducted at the Sir Peter Mansfield Imaging center from the University of Nottingham (Nottingham, UK) during a three months research stay funded by the Basque Government (Eusko Jauriaritza) under the program 'EGONLABUR- Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako beka aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldi laburrak egiteko laguntzak' (grant reference EP_2015_1_72).

Batixi.

Aneri, amari eta aitari.

Eskerrik asko!

Thanks to my directors Doug and Cesar, you contributed with countless time and dedication to make this thesis possible. Y, Cesar, no encuentro las palabras adecuadas para agradecerte todo lo que has hecho. Supongo que serás consciente, pero no sobra decirte que sin ti esta tesis no estaría acabada y sería imposible presentarla. Eskerrik asko, bene benetan!

To the pre-doc group at the BCBL who made this experience unique. I could start naming all of you but you know me, I'm very absent-minded and I'm sure I'll forget someone, so to all of you: Thanks! Especially for all these silly chats that made us forget our work for few minutes. I'm not sure how much I learnt about brains, boxes, psychology and linguistics (lets see what the committee says on the defense day =P) but after all these years I'm confident enough to say that I'm qualified to distinguish turtle and tortoises, I can state that dinosaurs had feathers even if they could not fly and I'm one of those privileged people who know that 'Kleine Wasser-Bären' exist.

Y como no, las chicas de admin, 'Los Ángeles de Charlie' de los pre-docs, ¡qué sería de nosotros sin vosotras! Eta bereziki, Ana eta Eiderri. Ez soilik administratiboki egiten dezuen lanagatik, horregatik ere, baina bereziki zuen lanetik haratago emandako laguntza guztiagatik, zuengandik jaso ditudan animo, gomendio eta elkarrizketengatik, eta momenturik okerrenetan hor egon zeratelako, mila esker.

Eta ez azkenak izateagatik garrantzi gutxiagokoak, familia eta lagunak. Ekipo, orain tesi hau amaituta dagoela, ardo beltz botilak Lauzu eta Larreren tesi desagoetarako izango dira. Ama, Aita. Si hiciese una lista de todo lo que tengo para agradecer, sería más larga que esta tesis, así que lo voy a simplificar, ¡gracias por todo! Ane, mila esker zuri ere emandako mimo, besarkada eta animo guztiengatik eta astero-astero nere tesia nola dijoan galdetzeagatik. Ta maitti, enaiz zutaz ahaztu. Ezer berririk ez, hamaika aldiz esan dizudan arren, enaiz aspertuko esateaz: mila mila esker! Catanak marraztu zuen bezala, nere bateria rekargatu dezu besarkada eta mimoekin, mila esker bihotza!

Zuei, famili eta lagunei, zuei eskerrik zintzoenak. Lanetik saltoka iristen nintzanean analisi batzuk burmuineko ez dakit ze zonatan blob bat zutelako edota

alfa frekuentzia ikusi nuelako, ezer ulertu gabe ere nerekin batera alaitu zerate. Eta nerekin ospatu dituzue ospatu beharrekoak. Ta lanean momentu gogorak bizi izan ditudanean ere, ulertuta edo ulertu gabe, nere babes handiena izan zerate. Ez dakit zer egingo dudan nere bizitzarekin behin tesia amaituta, baina espero det bizitza hori zuekin konpartitzeko aukera izatea. Zoragarriak zarete!

Abstract

The main goal of this thesis was to characterize language-related short-term learning changes in the adult brain. Previous studies have mainly used longitudinal and cross-sectional designs and therefore they captured brain responses of already consolidated rules. On the other hand, studies that used on line or lab training, and therefore captured short-term changes, were conducted with EEG and provided no source correlates related to these changes. However, short-term and long-term learning seem to elicit different plastic changes; hence, the anatomical-correlates of the MEG experiments carried out in this thesis provide useful information to better understand which plastic changes occur in short-term learning. Subsets of natural languages (miniature languages) were used in two of the experiments in order to study short-term changes in grammar learning and sentence comprehension. It was hypothesized that miniature languages allow capturing language-related changes without the need of long-term training. Behavioural results indicate that rapid grammar and vocabulary learning can occur in adults. Moreover, the rapid grammar learning was accompanied by changes in the evoked response field (ERF) measured in MEG. ERFs before training showed no violation control effects, but the effect appeared with training. Furthermore, with training the brain network supporting the effect started to approximate the network in L1. In addition, sentence comprehension elicited large oscillatory power differences between native and newly-learned language. Nonetheless, no strong effect of vocabulary learning was found in the oscillatory analysis, but only differences between native vs. newly-learned language. The third experiment was a memory task in the participants' native language, and aimed to provide a better understanding of the oscillatory mechanisms underlying memory retrieval with closed or open eyes. The oscillatory analysis revealed modulations of the tau rhythm, distinct from the alpha rhythm, due to remembered and forgotten items. These results indicate that when focusing in a short-period of time, oscillatory modulations could be easier to identify and that might be the reason why the sentence comprehension experiment did not show an oscillatory effect of learning. In summary, this thesis opens a door to a new way of studying L2 learning, providing anatomical correlates of short-term language-related brain changes.

Aurkibidea/Contents

Euskarazko bertsioa	1
Sarrera	3
I Oinarri teoriko eta enpirikoa	7
1 Hizkuntza ikasketa heldutan	9
1.1 Ikasketa, oroimena eta burmuin plastikotasuna	9
1.2 Burmuin osoko eskalan plastikotasuna neurtzeko teknikak	11
1.3 Hizkuntza sarearen plastikotasuna	12
1.4 Epe luzeko hizkuntza ikasketa heldutan	17
1.5 Epe motzeko hizkuntza ikasketa heldutan	18
1.6 Laburpena	21
2 Burmuin aktibitatea neurtzen Magnetoentzefalografiarekin	23
2.1 MEGak jasotzen duen burmuin aktibitatea	23
2.2 MEGaren oinarriak	24
2.3 MEG datuen analisia	26
2.4 Laburpena	36
II Atal esperimentalak	37
3 Gramatika ikasketaren esperimentua	39
3.1 Oinarrizko arrazoia	39
3.2 Metodo eta Materialak	40
3.3 Emaitzak	51
3.4 Eztabaida	59
3.5 Laburpena	67
4 Esaldien ulermen esperimentua	69
4.1 Oinarrizko arrazoia	69

4.2 Metodo eta Materialak	69
4.3 Emaizak	75
4.4 Eztabaida	78
4.5 Laburpena	83
5 H1ean egindako oroimen esperimentua:	
alfa eta tau erritmoak aztertzen	85
5.1 Oinarrizko arrazoia	85
5.2 Alfa oszilazioak eta oroimena	86
5.3 Metodo eta Materialak	88
5.4 Emaizak	93
5.5 Eztabaida	109
5.6 Laburpena	113
III Eztabaida eta azken oharrak	115
6 Eztabaida orokorra eta laburpena	117
6.1 Emaizten laburpena	117
6.2 Nola modulatu dira burmuin sareak epe-motzeko ikasketarekin? . . .	118
6.3 Hizkuntza ikasketaren hasieran hizkuntza sareak parte hartzen al du? .	120
6.4 Azkeneko oharrak	121
Laburpena	123
6.5 Lehen esperimentua: Gramatika ikasketa	124
6.6 Bigarren esperimentua: Esaldien ulermena	125
6.7 Hirugarren esperimentua: Oroimenaren berreskuratzea H1an	126
6.8 Eztabaida orokorra	127
English version	129
Introduction	131
I Theoretical and empirical background	135
1 Language learning as an adult	137
1.1 Learning, memory and brain plasticity	137
1.2 Techniques to study plasticity at the entire brain scale	139
1.3 Language network plasticity	140

1.4	Long term language learning in adulthood	144
1.5	Short-term language learning in adulthood	146
1.6	Summary	149
2	Measuring brain activity using Magnetoencephalography	151
2.1	Brain activity captured by MEG	151
2.2	The basis of MEG	152
2.3	Analysis of MEG data	154
2.4	Summary	163
II	Experimental Section	165
3	Grammar learning experiment	167
3.1	Rationale	167
3.2	Material and Methods	168
3.3	Results	179
3.4	Discussion	187
3.5	Summary	195
4	Sentence processing experiment	197
4.1	Rationale	197
4.2	Material and Methods	197
4.3	Results	203
4.4	Discussion	206
4.5	Summary	211
5	Memory in L1 experiment: A view on alpha and tau rhythms	213
5.1	Rationale	213
5.2	Alpha oscillations and memory	214
5.3	Materials and Methods	216
5.4	Results	221
5.5	Discussion	237
5.6	Summary	241
III	Discussion and final remarks	243
6	General discussion and summary	245
6.1	Summary of results	245
6.2	How are brain networks modulated in short-term learning?	246

6.3 Is the language network recruited at the beginning of language learning?	248
6.4 Concluding remarks	249
Resumen	251
6.5 Experimento 1: Aprendizaje de gramática	252
6.6 Experimento 2: Comprensión de frases	253
6.7 Experimento 3: Recuperación de la memoria en L1	254
6.8 Discusión general	255
List of publications derived from the thesis	259
Bibliography	261

Euskarazko bertsioa

Sarrera

Luzaroan ikertua izan bada ere, gizakien burmuinak misterio bat izaten jarraitzen du. Bide luzea dugu bere zirkuiteriak hizkuntza bezalako ekintza liluragarrietan nola amaitzen duen ulertu arte. Eta misterioaren misterioa, umeez arazorik gabe haien ama hizkuntza ikasten duten bitartean, bigarren hizkuntza bat ikasi nahi duten helduek ez dute hain emaitza arrakastatsua erakusten. Zer prozesu kognitibo gertatzen dira burmuin heldu batean hizkuntza bat ikasten duen bitartean?

Egungo neuroirudi teknikek bigarren hizkuntza (H2) bat prozesatzen dugun bitartean burmuineko aktibitatea grabatzea ahalbidetzen digute. Teknika hauek ekarritako aurrerapenengatik interesa handitu da H2-ren ikasketarekin erlacionatutako burmuin aktibitatearen aldaketak neurtzeko neuroirudi ikerketetan. 1 irudiak neuroirudi teknika arruntak erabiltzen dituzten H2-ren ikasketaren gaineko ikerketak laburtzen ditu, ikasketa mota ezberdinen arabera: momentuko ikasketa ikertzetik urteetan zehar hizkuntza bat ikasi dutenen talde konparaketak egiten dituzten ikerketak arte. Koloreek ariketa ezberdinak adierazten dituzte (mintzamina, ulermena, gramatika epaiketa). Taula honek argi erakusten du bigarren hizkuntzaren jabetzean (Second Language Acquisition, SLA) domeinu ezberdinetan ikertzeko lan oparoa dagoen arren, ikerketa gehienak, teknika ezberdinak erabiliz, ikasketa prozesuaren emaitzetan jarri dutela arreta eta ez ikasketa prozesuan beran.

Tesi honek H2-ren ikasketa bitartean gertatzen diren burmuin aldaketak ikertzen ditu magnetoentzefalografia (MEG) bidez, epe motzeko aldaketetan arreta jarritz. Aldaketa hauek ikertzeko, tesi honek esperimendu multzoa aurkezten du non partaideak laborategian trebatuak izan ziren eta seinale magnetikoak trebakuntza honen aurretik eta ondoren jaso ziren (laborategiko trebakuntza). Gainera, esperimenduetako batean seinale magnetikoak trebakuntza *bitartean* jaso ziren ere (momentuko trebakuntza). Luzetarako eta zehar-sekzio ikerketekin alderatuta, laborategi (eta momentuko) trebakuntza paradigmek ikasketa gauzatu bezain pronto gertatu diren burmuin aldaketak neurtzeko aukera ematen dute, hau da, burmuin aktibitatean gertatu berri diren aldaketak neurtzeko ahalmena. Bestalde, momentuko trebakuntza paradigmek oroimen hauek sortzen ari diren momentuan gertatzen

	Online Training	Lab Training	Formal Course	Cross-sectional
fMRI			Indefrey et al. 2005 Wang et al. (2003) Sakai et al. 2004	Suh et al. 2007 Yokoyama et al. 2006 Rüschemeyer et al. 2006 Rodríguez-Fornells et al. 2005 Pillai et al. 2004 Xue et al. 2004 Vingerhoets et al. 2003 Perani et al. 2003 Ding et al. 2003 Mathendra et al. 2003 Luke et al. 2002 Hasegawa et al. 2002 Pu et al. 2001 Chee et al. 2001 Hernandez et al. (2000,2001) Chee et al. 1999 Dehaene et al. 197 Illes et al. 1999 Perani et al. (1996,988) Klein et al. 1995
EEG	Davidson and Indefrey (2008,2011)	Batterink and Neville 2013 Morgan-Short et al. 2012 Mueller et al. (2005,2007,2008) Morgan-Short et al. 2010	Bañón et al. 2014 McLaughlin et al. 2010 Osterhout et al. 2006	Proverbio et al. 2012 Foucart and Frenck-Mestre 2011 Zawiszewski et al. 2011 Dowens et al. (2011,2010) Moreno et al. 2010 Guo et al. 2009 Frenck-Mestre et al. 2008 Kotz et al. 2008 Chen et al. 2007 Isel 2007 Rossi et al. 2005 Hahne and Friederici 2001 Hahne 2001 Weber-Fox and Neville 1996
MEG	EXPERIMENT 1	Hultén et al. 2014 Zhang et al. (2000,2001) EXPERIMENT 2	Davidson & Indefrey 2009	

■ Syntactic processing
■ Comprehension
■ Speech production
■ Phonology

1. taula: H2 hiztunen eta ikasleen ikerketen sailkapena. Zutabeek ikasketa mota adierazten dute (momentuko trebakuntza, laborategi trebakuntza, ikastaro formalak (luzetarako ikerketak) eta zehar-sekzio ikerketak). Lerroek neuroirudi teknikak adierazten dituzte (Magnetoentzefalografia (MEG), Elektroentzefalografia (EEG), Erresonantzia Magnetiko Filmagailu funtzionala (fMRI)).

dena ikusteko aukera ematen digute, hizkuntza berria ikasten ari diren bitartean, esaterako. Gaur egun, soilik fonologia laborategi trebakuntzako ikerketek (Zhang et al., 2000, 2001) aurkeztu dituzte epe motzeko aldaketen adierazle anatomikoak. Beste hizkuntza domeinuetan epe motzeko aldaketen adierazle anatomikoek ikertu gabe jarraitzen dute (ikus 1 Taula).

Nire ezagutzaren arabera, tesi honek epe-motzeko gramatika eta hiztegi ikasketekin erlazioatutako aldaketen adierazle anatomikoak dituen lehen ikerketak aurkeztu ditu, eta honekin batera trebakuntza bitartean MEG seinaleak jaso dituen lehenengo ikerketa ere (ikus 1 Taula). Gainera, laborategi edo momentuan trebatu berri den hizkuntzaren eta ama hizkuntzaren burmuin erantzunak alderatzen dituzten aurrengo ikerketak dira.

Hizkuntza ikasketa hasierako faseetan ikertzea, epe motzeko ikasketarekin loturiko burmuin aldaketak jadanik finkatutako arauetatik ezberdintzeko aukeretako bat da. Honen abantaila da saio esperimentaletan trebatutako partaideek ez dutela H2-ren jakintzarik, eta jasotako burmuin erantzunak ezin dira finkatutako oroimenetik eratorri. Bestalde, hasierako gaitasuna (erreferentzia basea) parekatzeko arazoak ekiditen dira.

Gogoan izan behar dugu hizkuntza eta mintzamen prozesuak denbora epe motzean gertatzen direla. Esaldiak segundu gutxi batzuen artean hasi eta bukatzen dira, eta hitzen arteko erlazioak zein gramatika erlazioak esaldi horietan txertatuta daude. Prozesu hauen burmuin erantzunak ulertzeko, hitz solteen erantzunak isolatzeko gauza den irudi teknika behar da eta aldi berean, aktibitate horren adierazle anatomikoak hornitzeko gai den teknika izan behar du. MEG teknika bereziki egokia da egoera honetarako. Lehenik, bere denbora bereizmenak hitz solteei erantzunez 5-10 ms inguruan gertatzen diren potentzial postsinaptikoen frekuentzia baxuko fluktuazioak neurtzeko ahalmena du. Bigarrenik, bere espazio bereizmenak direla eta, neurtutako aktibitatearen adierazle anatomikoak lortu daitezke metodo matematiko egokiak erabiliz. Azkenik, grabaketa saioan zehar partaideek denbora luzez hitz egin eta entzutea baimentzen du, hizkuntza ariketa ezberdinak erabiltzeko aukera emanik.

Tesi honen lehenengo atalak oinarri teoriko, enpiriko eta metodologikoak aurkezten ditu. **1. kapituluak** hizkuntzaren jabetzea ikertzeko erabilitako metodoak aurkezten ditu. Tesi honetan jasotako burmuin aktibitatea eta berau grabatzeko erabilitako MEG teknika **2. kapituluan** azaltzen dira.

Bigarren atalak esperimentuak aurkezten ditu. Lehenengo ikerketek H2-ren jabetzea hasierako faseetan esploratzen dute: **3. kapituluak** gramatika ikaste esperimentua aurkezten du eta **4. kapitulua** hiztegi ikasketa zein esaldi motzen ulermenerako esperimentuan datza. Ondoren, **5. kapituluak** hirugarren esperimentu bat aurkezten du oroimen berreskurapena hobetzearen inguruan, hizkuntza ikasketan ere garrantzitsua dena, oroimen berreskurapenaren mekanismo neuronalak ulertzen lagunduko duelakoan. Kapitulu honen helburua 4. kapituluko emaitzak ulertzen eta interpretatzen laguntzea da.

Azkenik, **6. kapituluak** aurreko emaitza guztiak laburtu eta eztabaida orokorra aurkezten du, emaitza hauek H2-ren ikasketa eta prozesamenduan dagoen oinarri teorikoarekin lotuz.

I. Atala

Oinarri teoriko eta enpirikoa

1. Kapituluia

Hizkuntza ikasketa heldutan

Neurolingistikaren helburua burmuinaren fisiologiak eta antolakuntzak hizkuntza funtzioa nola sortzen duten ulertzea da. Tesi honen asmoa hizkuntza sarearen egitura eta funtzioek epe motzeko hizkuntza jabetzan eta hitzen oroimenean nola laguntzen duten ulertzea da. Kapitulu honek burmuin plastikotasuna, eta hau ikertzeko teknika eta metodoak aurkezten ditu.

1.1 Ikasketa, oroimena eta burmuin plastikotasuna

Gizakiak trebetasun eta portaera forma berriak lortzeko eta ingurune berrietara moldatzeko gaitasuna du. Esperientziak eragindako portaera aldatze prozesua da ikasketa. Oroimena aldiz aldaketaren ondorioa da: moldaketa honen muinean dauden grabaketa iraunkorrak (Anderson, 1995). Biak, ikasketa eta oroimena, nerbio-sisteman gertatzen dira. Hala ere, urte luzez ikasketa eta oroimen prozesuen inguruko ikerkuntza jokabide estudioetan zentratu da ikasketa prozesuaren atzean dauden mekanismoak ondorioztatzeko asmoarekin (Schumann et al., 2004). Bestalde, neurozientzia modernoak portaeran egindako aurkikuntzak burmuinaren aldaketa funtzional eta estrukturalekin erlazionatzen ditu (Diamond and Amso, 2008).

Burmuin plastikotasuna burmuinak bere antolakuntza eta funtzio eskaeren eta esperientziaren baitan moldatzeko duen gaitasuna da (adibidez, hizkuntza jabetze bitartean). Baita alderantziz ere, burmuin plastikotasunak gaitasun kognitiboen garapena ahalbidetzen du (Uylings, 2006). 20. mende hasieran ikerlariak uste zuten aldaketa anatomikoak ezinezkoak zirela garapenaren ondoren (Nieto-Sampedro and Nieto-Díaz, 2005). Hala ere, 50. hamarkada bukaeran Liu and Scott (1958)-k erakutsi zuen nerbio-sistemak gaitasuna zuela funtzionalki eta anatomikoki moldatzeko bizi osoan zehar. Moldaketarako gaitasun hau adinarekin gutxitzen joan zela frogatu da ere (Pascual-Leone et al., 2012). Helduaroko burmuin plastikotasunaren

eztabaida proposamen berri batekin itxi egin zen: gizakien kortexa prozesu neuronal ezberdinez osatua dago eta prozesu bakoitzak berezko plastikotasun profil bat dauka (Uylings, 2006). Prozesu hauek sailkatzeko bi multzo nagusi proposatu ziren: aldaketa anatomiko handiak (adibidez, distantzia luzeko axoien berkableaketa), garapenaren ondoren gertatu ezin direla uste direnak, eta lekuko aldaketak (adibidez, lekuko dendriten eta sinapsien aldakuntzak), helduaroan gelditzen ez direnak. Hala ere, honek ez du esan nahi plastikotasun gaitasuna aldatzen ez denik bizitzan zehar (Pascual-Leone et al., 2012; Uylings, 2006).

Denbora eta espazio eskala ezberdinetan egindako analisiak zenbait portaerarekin erlazionatu daitezkeen plastikotasun profil ezberdinetara izan daitezke sentikorrak, adibidez, eskala espazial txikietan neurona solteen konexio sinaptikoetan gertatzen diren aldaketak neurtu daitezke. Esate baterako, animalietan egindako ikerketetak esperientziak eragindako eremu dendritikoen aldaketetan zentratu izan dira, espazio dendritikoa sinapsi kopuruarekin korrelazioan jartzen den ustean oinarrituta (Kolb et al., 1998). Ikerketa mota honek bi animalia mota konparatu izan ohi ditu: laborategi karioletan dauden animalia taldea eta estimulu oparoagoa duen ingurune batean dagoen animalia taldea. Hil ondoren bi taldeen espazio dendritikoa alderatzen da. Greenoughen taldeak esperientzia aberasgarria izan zuten animalien espazio dendritikoa, kailako animaliekin erkatuz, %20 handiagoa zela aurkitu zuten (Greenough and Volkmar, 1973; Volkmar and Greenough, 1972). Honetaz gain, odol kapilar eta astrozito material gehiago topatu izan dira neuronako sinapsi kopuru igoerekin batera esperientzia aberasgarria izan duten animalia taldeetan (adibidez, Sirevaag and Greenough, 1987).

Antzeko ikerketak erabili izan dira aldaketa dendritikoak eta giza portaera erlazionatzeko. Jacobs et al. (1993)-k arborizazio dendritikoa Wernicke eremuan, hizkuntza sareko eremu garrantzitsua, heziketa mailarekin harreman dagoela aurkitu zuen: heziketa maila zenbat eta altuago izan, are eta arborizazio zabalagoa. Honetaz gain, portaera eta burmuin egituraren arteko harremana ikertu zuten, pertsonen gaitasun funtzionalek egitura neuronalekin korrelatua izango zutelakoan. Emakumeek gizonen baino mintzamen gaitasun handiagoa dutela oinarri hartuz (laburpen baterako ikus Kolb et al., 1996), emakume eta gizonen arborizazioa konparatu zituzten eta emakumeek Wernicke eremuan arborizazio dendritiko zabalagoa dutela topatu zuten.

Hala ere, plastikotasun forma hau hizkuntza jabetzarekin erlazionatzea zaila da. Lehenik eta behin, aldaketa dendritikoek ikasketa isladatzen dutela pentsatzea liluragarria izan daitezkeen arren, ebidentzia gutxi dago honen inguruan (Kolb et al., 1998). Gainera eskala honetako aldaketak ez dira eskuragarriak gizakietan neurtzeko ditugun tekniken bidez. Eskuragarriak izango balira ere, ikasketak

eragindako aldaketak topatzeko burmuinean non begiratu behar den jakitea ez da erraza. Aldaketa dendritiko horiek gizakietan topatuagatik ere, hizkuntza ikasketak hainbeste azpi-prozesu dituzenez gero, zaila izango litzateke aldaketa dendritikoak azpi-prozesu zehatzekin lotzea.

Burmuin eskalako plastikotasuna erraz neurtu daiteke gizakietan, adibidez, materia griseko zabalera gertatzen diren aldaketak (Martensson et al., 2012; Klein et al., 2014) edota burmuineko eremuen arteko konexio funtzionaletan gertatzen diren aldaketak kontuan izanik.(Ghazi Saidi et al., 2013; Price, 2010). Neuroirudi teknikei esker, plastikotasun mota hau eskuragarriago da giza burmuinean in-vivo azterketak egitea ahalbidetzen dutelako, eta beraz, plastikotasunaren eta ikasketaren arteko lotura errazten dute. Hurrengo azpiatalak burmuin osoko plastikotasuna nola neurtu daitekeen eta hizkuntza sareko plastikotasunaz dakiguna azaltzen du.

1.2 Burmuin osoko eskalan plastikotasuna neurtzeko teknikak

Neuroirudi teknikak plastikotasun neuronala sostengatzen duten aldaketa anatomiko eta funtzionalak neurtzeko tresna egokiak dira (Rossini et al., 2003). **Erresonantzia Magnetiko Filmagailua** (Magnetic Resonance Imaging, MRI) zehaztasun anatomikoak neurtzeko bereizketa espazial altuko irudi teknika da. Materia grisaren lodiera edota eremuen arteko fibra traktoak (konexioak) bezalako burmuin egitura adierazleak neurtzeko erabiltzen da. Erresonantzia Magnetiko funtzionala (fMRI) (zeharkako) burmuin aktibitatea neurtzeko ere erabil daiteke, nahiz eta bere denbora bereizketa baxua izan (2 segundu ingurukoa). Segunduen eskalan gertatzen diren aldaketa hemodinamiko neuronalek sortutako burmuin-odol oxigenazio aldaketak neurtzen ditu (Ogawa et al., 1990). Badirudi hizkuntza ariketetan erabiltzen diren burmuin eremuak antzemateko teknika egokia dela (Matthews et al., 2003). Hala ere, esaldi prozesamenduetan gertatzen diren aldaketak neurtzeko denbora bereizketa txiroa eskaintzen du, seinalea segunduetako eskalan neurtzen baita eta hitzak edo esaldiak hori baino azkarrago garatzen dira. Beraz, hizkuntzarekin lotutako burmuin plastikotasuna neurtzeko denbora bereizketa altuago duen teknika egokiago litzateke .

fMRI ez bezala, **Elektroentzefalografia** (EEG) eta **Magnetoentzefalografia** (MEG) denbora bereizketa altuagoko teknikak dira (Schomer and da Silva, 2010; Hämäläinen et al., 1993, hurrenez hurren). Potentzial post-sinaptikoen fluktuazioak neurtzen dituzte, 5-10 ms-ko eskalan gertatzen direlarik (Lopes da Silva, 1991), eta ondorioz, hizkuntzarekin erlazionatutako prozesuen denbora eskalara egokituago

daude. Psikologikoki eta linguistikoki motibatutako diseinu esperimentalekin batera, teknika hauek azpi-prozesu ezberdinen adierazle psikologikoak noiz gertatzen diren ikertzea ahalbidetzen dute: integrazio akustiko-fonologikoa, prozesamendu sintaktiko eta semantikoa, edota integrazio sintaktiko-semantikoa (Friederici, 2011).

EEG eta MEG-en arteko ezberdintasun garrantzitsuenetako bat EEG-k edozein norantzatan sortutako eremu elektrikoak neurtzen dituen bitartean, MEG-ek soilik kortexari tangenzialak diren korranteek sortutako eremu magnetikoak neurtzen dituela da (Hansen et al., 2010). Bestalde, eremu elektrikoen ezaugarri fisikoengatik, EEG seinaleak buruko ehunetatik igarotzean asko degradatzen dira. Eremu magnetikoen ezaugarri fisikoengatik efektu hau mugatua da MEG seinaleetan, bereizketa espaziala hobetzen duelarik (Baillet, 2017). Ondorioz, MEG erabiltzen duten ikerketek neurtutako efektuen kokaleku anatomiko zehatzagoa eskaintzen dute. EEG ikerketek orokorrean ez dituzte uhinen ezaugarrien arduradunak diren burmuin eremuen berri ematen. Tesi honetako esperimentuak MEG teknikaren denbora eta espazio zehaztasunaz baliatzen dira epe motzeko hizkuntza ikasketarekin lotutako plastikotasuna ikertzeko.

Honetaz gain, hiru osagai behar dira gaitasun berri baten jabetzari lotutako plastikotasuna ikertzeko: funtzioa sostengatzen duen burmuin sistema, sistema horren karakterizazio neuronala gaitasun berri batera doitzeko eta, azkenik, portaera eta burmuinaren arteko harremana, behin gaitasun berria martxan denean sistema horren funtzionamendua azaldu dezakeena. MEG teknikaren denbora eta espazio zehaztasunak denbora epe motzeari gertatutako burmuin aktibitatearen adierazle anatomikoa lortzea ahalbidetzen du (Hämäläinen et al., 1993), hizkuntza azpisistemak sostengatzen dituen burmuin sarean deskribapenak emateko tresna egoki bilakatuz. Burmuin osoko eskalan aldaketa funtzionalak neurtzen ditu eta in-vivo azterketak ahalbidetzen ditu, portaera aldaketekin asoziazioak erraztuz. Laburbilduz, MEG hizkuntza ikasketarekin lotutako burmuin osoko eskalan plastikotasuna neurtzeko tresna egokia da (Rossini et al., 2003).


1.3 Hizkuntza sarearen plastikotasuna

Atal honek hizkuntza prozesamenduan nahastuta egon daitezken eremu kortikalak zein eremu hauetan hizkuntzarekin lotutako plastikotasun profilak deskribatzen ditu.

Friederici (2011)-k mintzamenaren ulermenean ematen diren hizkuntzaren azpisistemen kokaleku espaziala eta tenporala proposatzen dituen modelo bat aurkeztu zuen. Modeloa seriean (eta partzialki paraleloan) gertatzen diren

azpi-prozesuez osatuta dago (ikus 1.1 irudia). Friedericiren modeloak ex-vivo eta fMRI ikerketak ditu oinarri hizkuntzaren azpi-funtzioen adierazle anatomikoak proposatzeko. Ikerketa elektrofisiologikoetako ebidentziak azpi-prozesuak gertatzen diren denbora leihoak proposatzeko erabili dira. Modelo honen arabera, lehen analisi akustiko-fonologikoa kortex auditibo eta inguruko eremutan gertatzen da mintzamina hasi eta (gutxi gorabehera) 150 ms-tara (Näätänen and Alho, 1997; Poeppel et al., 1997; Phillips, 2001). Hurrengo fasea hasierako prozesamendu sintaktikoa da, ustez mintzamenaren hasieratik 150 eta 250 ms artean (Friederici and Weissenborn, 2007) ezker-behe-frontal zirkunboluzioan (inferior frontal gyrus, IFG) gertatzen dena (Rüschemeyer et al., 2005; Brauer and Friederici, 2007). Hurrengo fasean harreman sintaktiko eta semantikoak prozesatzen dira, adibidez, aditza eta bere argumentuen arteko harremana (nork nori zer egin dion). Prozesamendu hau 250 eta 500ms artean gertatzen da (ikus Penke et al. (1997); Angrilli et al. (2002) sintaktikorako eta Lau et al. (2008) semantikorako). Harreman sintaktikoak ezker-aurre-tenporal lobuloan eta IFG eremutan prozesatzen dira (Humphries et al., 2006; Friederici et al., 2000, 2003, 2010), harreman semantikoak, ordea, ezker-atze-tenporal lobuloan eta IFG eremutan (Friederici et al., 2003; Obleser and Kotz, 2010). Ondoren, ulermena lortu ahal izateko informazio semantiko eta sintaktikoa elkar-eragin eta integratzen diren fasea dator. Fase hau, ustez, 500 eta 1000 ms artean gertatzen da (Gunter et al., 2000; Kuperberg et al., 2003, 2006) eta ezker-atze-goiko lobulu tenporalean (left posterior superior temporal gyrus, STG) kokatzen da (Grodzinsky and Friederici, 2006). Paraleloki, prozesu fonologiko eta prosodikoak eskuin hemisferioan gertatzen dira. Fonologiari dagokionez, fonemen eta hitzen antzematea 150 eta 250 ms artean gertatzen da (Friederici, 2002). Prosodiari dagokionez, azentu eta doinu prozesuak 500 ms inguruan gertatuko lirateke (Steinhauer et al., 1999).

Hagoort (2016)-ek beste modelo bat proposatu zuen hizkuntza prozesamendurako hiru osagai nagusitan oinarrituta: Oroimen, bateratze eta finkatze modelo (Memory, Unification and Consolidation model, MUC) (ikus 1.2 irudia). Kortex tenporaleko eremuek oroimen osagaia sostengatzen dute (Hagoort, 2003, 2005, 2009), hau da, oroimenean finkatutako jakintza linguistikoaren irudikapenak (Davis and Gaskell, 2009). Jakintza motaren arabera, kortex tenporaleko eremu ezberdinek hartuko dute parte. Bateratze osagaia eremu frontaletan sostengatzen da (Hagoort and Indefrey, 2014), eta bertan oroimenetik ateratako elementuak forma berrietan konbinatzen dira (Hagoort, 2005). Eremu frontalez gain, bateratze prozesu ezberdinek, semantikoa, fonologikoa eta sintaktikoa adibidez, bestelako burmuin eremuak erabiltzen dituzte. Azkenik, kontrol osagaiak hizkuntza egokia aukeratzen du harreman sozialen eskakizunak betetzeko. Ustez, kortex aurre-frontal dortsolateral da kontrol osagaiaren nukleo garrantzitsuena (Kristensen et al., 2013).




1.1. irudia: Mintzamenaren ulermen modelo bat. A panelak hizkuntza sarearen eremuak izendatzen ditu. B panelak azpiprozesu ezberdinak 'noiz' eta 'non' gertatzen diren azaltzen du eskematikoki (Friederici, 2011, -tik moldatuta).


Bi modelo hauek modelo ezberdinek hizkuntza prozesamendua azpistema ezberdinetan banatzen duten adibide dira. Bi modeloen ezaugarri komuna hizkuntza prozesamendua azpistema ezberdinetan banatzea eta azpistema bakoitzak burmuin eremu batean sostengatzea da, Sanderren proposamenarekin bat eginik (Sanders et al., 2008). Garapenaren periodo batzuetan plastikotasun aukerak beste batzuetan baino altuagoak direla jakina da (Knudsen, 2004). Zilles-en arabera, kortexeko eremuek plastikotasun profil ezberdina dute (Zilles, 1978), ondorioz, ikasteko gaitasuna desberdina izan daiteke hizkuntza azpistemetan (Uylings, 2006). Esate baterako, H2 jabetzan geroratzek semantikan efektu minimoak dituzten bitartean, prozesamendu sintaktiko eta fonologikoetan gabeziak sortzen dituztela proposatu izan da (Sanders et al., 2008).

Modeloen artean ezberdintasun anatomiko eta funtzionalak dauden arren, eremu amankomunak ere aurkitzen dira; haien artean ezker lobulu tenporala eta ezker IFGa. Eremu hauek beste hizkuntza prozesamendu modelotan ere aurki daitezke, Hickok eta Poeppelk proposatutakoan adibidez (Hickok and Poeppel, 2007).

Kanal paralelotan inplementatzen diren lexikorako sarbide ugari daudela proposatzen du modelo honek. Modelo honen arabera, segida bentralak mintzamenaren seinaleak ulermenerako prozesatzen ditu (mintzamenaren antzematea), aldiz, segida dorsalak mintzamenaren seinale akustikoak irudikapen artikulatorioetara itzultzen ditu (ikus 1.3 irudia). Modelo honen arabera, sarrera



1.2. irudia: Hizkuntza prozesamenduaren MUC modeloa (Hagoort, 2016).



1.3. irudia: Hickok eta Poeppelen modeloa hizkuntza prozesamendurako (Hickok and Poeppel, 2007).

akustikoaren analisi espekro-tenporala bi hemisferioetako goi-zirkunboluzio tenporaleko (superior temporal gyrus, STG) azalera dorstalaren esku dagoela proposatzen du. Prozesu fonologikoak goi-zisura tenporalaren (superior temporal sulcus, STS) atzeko erdian gertatzen dira. Lobulu tenporalaren atzeko erdi eta behe eremuak, informazio fonologiko eta semantikoen loturan sostengu dira, eta aurreko eremuak, aldiz, bateratze prozesuan kargu dira. Sare artikulatarioa ezker IFG eta eremu premotore dortsalean kokatuta dago.

Hizkuntza ikasketak sortutako aldaketa funtzionalak IFGen eta ezker lobulu tenporalean topatu dira (Indefrey, 2006). Adibidez, Holandesa ikasten ari ziren txinatarrak ikastaroa hasi eta hiru, sei eta bederatzi hilabetetara izan ziren aztertuak (Indefrey et al., 2005). Partaideek esaldiak entzun eta pantailako irudiarekin bat egiten zuen edo ez erantzun behar zuten beraien burmuinaren irudiak MRI bitartez hartzen ziren bitartean. Esaldiak entzuten IFG zuen BOLD erantzuna aldatu egin zen hiru saioetan zehar. Beste ikerketa batek erakutsi du IFGren BOLD erantzuna

aldatu egiten dela aditzen jokatzeari bi hilabeteko trebakuntza izan ondoren (Sakai et al., 2004). Partaideek aditzaren erroa jasotzen zuten eta honen iragana sortu behar zuten. IFGn neurtutako BOLD seinalea trebakuntzaren ondoren estatistikoki altuagoa zela topatu zuten. Gainera, trebakuntza ondorengo seinaleak ariketaren emaitzekin positiboki korrelatzen zuten. Jarraipen ikerketa batean, ariketa berdina erabili zuten Ingelera sei urtez ikasten ibilitako partaideekin (Tatsuno and Sakai, 2005). Kasu honetan, IFGn neurtutako BOLD seinalea ahulagoa zen ariketa ondo egiten zuten partaideetan. Kontrako patroi honek ariketa egiteko behar den esfortzua irudikatu dezakeela proposatu izan da (Indefrey, 2006): Hasierako ikasleek esfortzu gehiago behar dute ariketa burutzeko eta urteetako praktikaren ondoren, ariketa bera errazagoa bilakatzen da.

Lobulu tenporaleko aldaketa funtzionalei dagokienez, H2 erdizko maila duten ikasleek BOLD seinale ahulagoa dute ezker atze-zirkunboluzio tenporalean eta bi hemisferiotako polo tenporalean (Perani et al., 1996). Hau ordea ezberdina da maila altuko ikasleetan, hauen BOLD seinaleak ez du diferentziarik erakusten H1 eta H2 entzuterakoan (Indefrey, 2006). Luzetarako ikerketa batean, Holandesa ikasten ari ziren alemaniarrek hitzen ordenaren urraketa nola prozesatzen duten ikertu zuen Davidsonek (Davidson and Indefrey, 2009b). Partaideen MEG seinaleak jaso egin ziren hiru saio ezberdinetan, kurtsoaren hasieran, kurtsoa hasi eta bi astetara eta hiru hilabetetara. Partaideek esaldi bat irakurri eta ondorengo irudiarekin bat egiten zuten edo ez erabaki behar zuten. Lehenengo saioan, kontrol eta urraketa esaldien artean ez zen desberdintasunik topatu. Bigarren saioan, ezker goi-eremu tenporaleko aktibitatea ezberdina zen bi esaldi motetan. Hirugarren saioan, bi egoeren arteko aktibitate diferentzia aurre-eremu tenporalean kokatu zen.

Beraz, epe luzeko eta ertaineko hizkuntza ikasketan plastikotasuna topatu da bai IFGn eta bai ezker lobulu tenporalean. Hala ere, burmuinaren funtzionalidadeak epe-motzeko hizkuntza ikasketan nola aldatzen den ikertu gabe jarraitzen du. Tesi honek hutsune honi ekarpena egingo dioten bi esperimentu aurkezten ditu (3. kapitulua eta 4. kapitulua).

Plastikotasuna denbora eskala ezberdinetan ikertu daiteke ere. Aldaketa plastikoak iraunkorrak edo igarokorrak izan daitezke (Knudsen, 2004). Ariketa motoreen epe motzeko eta epe luzeko ikasketek, adibidez, aldaketa plastiko diferentek eragiten dituzte (Rossini and Melgari, 2011). Hurrengo atalek, epe luzeko eta epe motzeko ikerketa elektrofisiologikoak laburbiltzen dituzte hurrenez-hurren.

1.4 Epe luzeko hizkuntza ikasketa heldutan

Orain arteko ikerketetan, hizkuntzaren azpisistemen plastikotasuna ikertzeko neuroirudi teknikak paradigma ezberdinekin erabili izan dira. Alde batetik, zehar-sekzio ikerketek ezaugarri ezberdineko H2 hiztunen taldeak konparatzen dituzte: adibidez, H2a txikitan edo heldutan ikasitakoak, ikasteko estrategia ezberdinak erabili dituztenak, etab. (adibide bezala ikus Kotz et al., 2008; Hahne, 2001). Bestalde, luzetarako ikerketek ikastaro ofizial bat egiten duten partaide talde berdina jarraitzen dute. Partaide berdinak aztertuak dira, orokorrean, kurtso hasieran, kurtso erdian eta praktika periodo baten ondoren (adibide bezala ikus Davidson and Indefrey, 2009b; McLaughlin et al., 2010).

Duela gutxiko ikerlanek hizkuntzaren azpisistemak (adibidez, semantika, sintaktika, fonologia) sare kortikal ezberdinetan sostengatu daitezkeela azpimarratu dute (Sanders et al., 2008). Gramatika ikasketari dagokionez, gaur egun, fMRI teknika erabiliz egindako elebitasunaren inguruko ikerketei esker burmuin eremu bilduma zabala eskuragarri daukagun arren (e.g. Indefrey, 2006; Sebastian et al., 2011), elektrofisiologia bidez neurtu eta lokalizatutako aktibitateen konparazio gutxi topa daitezke. Indefrey (2006) -k laburbildutako ikerketek, morfemen prozesamenduan H1 eta H2ren arteko ezberdintasun fidagarriak erakusten dituzte, ikasketa prozesuaren hasieran ezker atzealde eremuak gehiagotan agertzen direlarik. 3, kapituluan azaltzen den esperimentuan, gramatikaren urraketak prozesatzen dituen sarea topatzeko asmoz, efektu elektrofisiologikoen iturriak lortzeko MEG teknika erabiltzen da.

Gramatika arauak erabiltzen ikasteak, hitzak eta esaldiak sortzen edo ulertzen diren bitartean gertatzen diren dependentziak identifikatzen ikastea eskatzen du askotan. Hizkuntza europar askorentzat (adibidez Gaztelera eta Alemaniera) genero, pertsona edo zenbaki konmuztadura morfosintaktikoak bezalako arau gramatikalak elementu ezberdinetako morfemek haien artean nola erlazionatzen direnaren adibide dira (Bybee, 1985). Gramatika ikasketaren inguruko ikerketek 'hiz kritiko' edo 'morfema kritiko'-ari (hau da esaldi baten erlazio gramatikal hori identifikatu daitekeen lehenengo momentuari) izandako erantzuna neurtzen dute. Portaeran izandako aldaketak burmuineko aldaketekin nola lotzen diren ulertzeko asmoarekin, hizkuntza berri baten arau ikasketa hasi aurretik eta ondoren izaten dira neurketak (Osterhout et al., 2006). Caffarra et al. (2015)-k luzetarako ikasketa ikerketetan topatutako gertakari bati lotutako sorrarazitako erantzun potentzialen (event related potential, ERP) konponente nagusiak laburbildu ditu.

Gaur egun, urraketa morfosintaktikoen erantzun bezala P600 konponente elektrikoa topatu da ikerketa ugaritan (Weber-Fox and Neville, 1996; Hahne, 2001;

Rossi et al., 2006; Frenck-Mestre et al., 2008; Kotz et al., 2008; Sabourin and Stowe, 2008; Weber and Lavric, 2008; Dowens et al., 2010; Moreno et al., 2010; Dowens et al., 2011; Foucart and Frenck-Mestre, 2012a; Pakulak and Neville, 2011; Schmidt-Kassow et al., 2011a,b; Zawiszewski et al., 2011; Foucart and Frenck-Mestre, 2012b; Xue et al., 2013; Bañón et al., 2014; Lemhöfer et al., 2014; Tanner et al., 2013). Hala ere, P600a ez da gramatika ikasketa isladatzen duen konponente bakarra.

N400 konponente elektrikoa H2 ikasleen bereizgarri bezala erabili izan da ere (Weber-Fox and Neville, 1996; Proverbio et al., 2002; Kotz et al., 2008; Weber and Lavric, 2008; Guo et al., 2009; Tanner et al., 2009; McLaughlin et al., 2010; Zawiszewski et al., 2011; Foucart and Frenck-Mestre, 2012b; Xue et al., 2013; Tanner et al., 2013). Ama hiztunek urraketa semantikoen aurrean N400 eta urraketa sintaktikoen aurrean P600 bat erakusten duten bitartean, H2 ikasleek egoera batzuetan N400 konponentea erakusten dute urraketa sintaktikoen aurrean (Isel, 2007; Proverbio et al., 2002). Emaidza hauek, H2 ikasketa prozesu hasieran ikasleek prozesu lexiko-semantikoak erailtzen dituztela arguadiatzeko erabili zen. Ondorengo ikerketa batzuek Alemaniera ikasten zuten ikasleak aztertu zituzten lehenengo maila eta hirugarren mailaren bukaeran (McLaughlin et al., 2010; Tanner et al., 2009). Hirugarren mailako ikasleek P600 erantzuna erakutsi zuten urraketa morfosintaktikoen aurrean, lehenengo mailako ikasleek aldiz, N400-P600 erantzun bifasikoa erakutsi zuten. Datu hauen analisi sakonago batek erakutsi zuen, erantzun bifasikoa partaide guztien datuen batzuek eragindako artefaktu bat zela: maila baxuagoko partaide azpimultzoak N400 erantzuna erakusten zuten bitartean, maila altuagoko ikasleek P600 erantzuna erakusten zuten. Gainera P600 aren anplitudea erabakitze ariketaren diskriminazio indizearekin positiboki korrelatzen zuen. McLaughlin et al. (2010)-ek estilo honetako ikerketa gehiago laburbildu zituen eta hurrengo proposamena egin zuen: ikasleak N400 erantzun batetik P600 erantzun batera pasatzen dira, eta ondorioz, partaide bakoitzaren erantzuna bere gramatika ikasketa etaparen menpe dago.

1.5 Epe motzeko hizkuntza ikasketa heldutan

Ikerketa elektrofisiologiako berriek ikasketa labur baten ondorioz geratutako aldaketetan jarri dute arreta, bereziki gramatika eta fonologia ikasketa laburrena (Zhang et al., 2000, 2001; Wang et al., 2003; Mueller et al., 2005, 2007, 2008; Davidson and Indefrey, 2009a,b, 2011), hauek bait dira heldutan ikastekoa razo gehien sortzen dituzten azpisistemak (Uylings, 2006). Ikerketa hauek ordu gutxi (edo minutu gutxi) batzutan ikas daitekeen hizkuntza baten gramatika arau edo kontraste

fonologikoen azpimultzo bat (hizkuntza miniatura) aukeratzen du, partaideak laborategian bertan trebatzen dira epe-motzeko hizkuntza ikasketarekin lotutako aldaketak ikertzeko. Hizkuntza miniaturen abantaila bat ikasketa prozesuaren eta lortutako gaitasunen gainean kontrol handiagoa ahalbidetzen dutela da. Gainera, ikasi beharreko ezaugarrien kontrol zorrotzago bat ahalbidetzen dute, hizkuntzaren ezaugarri oinarrikoak errespetatzen direlarik.

Prozesamendu fonologikoari dagokionez, Zhang et al. (2000, 2001)-ek partaide japoniarrak, japonieran existitzen ez den kontraste batean (r-l) trebatu zituzten. Partaideak artikulazio keinuen laguntzaz 12 ordu inguruz izan ziren trebatuak r-l kontrastean eta MEG seinaleak trebakuntza aurretik eta ondoren grabatu ziren. Grabaketa hauen bitartean Bateraegin Negatibotasun magnetikoa (magnetic Mismatch Negativity, mMMN) izena duen konponente magnetikoa neurtu zen burmuinak bi soinuak ezberdintzeko zuen gaitasunaren erakusgarri bezala. Portaeran, trebakuntzaren ondoren partaideek %20 hobetu zuten soinuak baztertzeko gariaian. Bestalde mMMN konponentea kortex auditiboan kokatu zen eta bi saioen artean mMMN konponentean topatutako aldaketak portaerako aldaketekin korrelatu zuen.

Beste ikerketa batek ama hizkuntza Ingelera estatubatuarra zuten hizlariak Txinatar Mandarinoko tonuetan trebatu zituzten (Wang et al., 2003). Trebakuntza aurretik eta bi asteko trebakuntza ondoren, partaideen MRI datuak bildu egin ziren hauek tonu bereizketa ariketa bat egiten zuten bitartean. Portaeran topatutako hobekuntzak ezker-atze lobulu tenporalean eta IFG burmuin eremutako aktibitate igoerarekin lotu egin ziren.

Gramatikari dagokionez, EEG teknika erabiliz urraketei-lotutako konponeentetan epe-motzeko aldaketak ikusi izan dira. Testu materialak erabiliz Davidson and Indefrey (2009a)-k P600 bezalako ERP konponenteak eta gramatika ikasketa prozesua heldutan nola erlazionatzen diren ikertu zuen. Trebakuntza bitartean eta ondoren Holandesa ikasten zuten alemaniarrek P600 konponentearen antzeko erantzun bat izan zuten (ama hizkuntza Alemaniera zutenaren antzeko erantzuna), baina soilik, gramatika urraketa mota batzuetan. Antzeko ikerketa batean (Davidson and Indefrey, 2011), P600 konponentea topatu zuten bai genero eta bai deklasio urraketeetan, berriz ere testu materialak erabiliz. Bestalde, MEG teknika erabili zuten Holandesa ikasten zuten alemaniarrengan sintagma ordenaren urraketa seinaleak bildu eta hauen adierazle anatomikoak ikertzeko (Davidson and Indefrey, 2009b). Ikerketa honetan ere testu materialak erabili ziren entzutezko materialak erabili ordez, eta trebakuntza laborategitik kanpo eman zen, luzetarako diseinu bat erabili zen ikasgela batean trebatzen ari ziren ikasleak jarraituz. Beraz, ez dago argi ea

ikerketa honetan topatutako bumruin eremuak laborategian burututako trebakuntza zehatzago batean agertuko diren edo ez.

Beste epe-motzeko ikasketa ikerketa batzuek sensore-mailan material auditiboek eragindako urraketa efektuak aztertu dituzte. Testu bidez aurkeztutako materialen aldera, material auditiboak segmentatu egin behar dira ulermenaren bitartean eta gramatikaren jabetza erritmoa modulatu dezake alde batetik ikasleek elementu lexiko bakoitza identifikatu behar dutelako eta bestetik jakina da fonologia ikasleentzat arazo bat dela. Muellerrek erakutsi zuen material auditiboak erabilia ere, ama hizkuntzan gramatika urraketa ematen diren ERP patroien efektu antzekoak topatu daitezkeela ikasleengan trebakuntza ondoren, nahiz eta ezberdintasun batzuk egon ikasle eta ama hiztunen artean (Mueller et al., 2005). Ikerketa honetan ama hizkuntza Alemaniarra zuten partaideak Japonieraren hizkuntza miniaturizatu (lexiko eta gramatika arau murriztuak) batean izan ziren trebatuak eta hiru gramatika urraketa ezberdinetan izan ziren aztertuak (hitz kategoria, kasua eta klasifikatzailea). Partaideek trebakuntza aurreko test bat, ulermenean eta mintzamenean oinarritutako trebakuntza eta trebakuntza ondorengo test bat burutu zituzten. Partaideek lau eta hamar ordu arteko trebakuntza izan behar zuten urraketa guztietan gaitasun altua erakusteko; eta horietako bietan (hitz kategoria eta kalsifikatzailean) ama-hiztunen maila erakutsi zutelarik. Bi urraketa mota hauetan, trebakuntza ondoren baina ez aurretik, ama hiztunen antzeko P600 efektua erakutsi zuten partaideek. Hala ere, ma-hiztunek erakutsitako N400a ez zuten partaideek erakutsi. Hurrengo ikerketa batean (Mueller et al., 2007), ama-hiztunen eta partaideek erakutsitako P600 aren artean ez zen ezberdintasunik topatu, baina, partaideek aurreko negatibotasuna soilik esaldi kanonikoetan erakutsi zuten. Azkenik, ondorengo ikerketa batean (Mueller et al., 2008), pseudohitzez osatutako materiala erabiliz, trebatutako partaideek ama -hiztunen N400-P600 patroia erakutsi zuten. Emaitza hauek erabiliz karga semantikoa eransteak urraketa sintaktikoak prozesatzeko baliabideak libratzen dituela argudiatu zuten.

Ikerketa gutxik aztertu dute nola sortzen den mintzamena epe-motzeko ikasketa bitartean. Hutsune garrantzitsua da hau, ikasleek gramatika ulermena eta mintzamena erabiliz ikasten bait dute (Mueller et al., 2005). MEG teknika erabiliz, partaide finlandiarrak hizkuntza artifizial batean trebatuak izan ziren (Hultén et al., 2014). Trebakuntza lau egunez egin zen eta bertan partaideek marrazki bat ikusi, eta honekin bat egiten zuen esaldi bat entzun eta irakurtzen zuten eta azkenik esaldia errepikatzen zuten. Ariketa partaideek inflekzio konmutadura egokia aukera zezaten prestatua zegoen. Esperimentua ama hizkuntzan (H1) eta hizkuntza artifizialean (H2) burutu zuten. Esperimentuko emaitzek erakutsi zuten bi hizkuntzen mintzamenaren sare neuronalak elkarbanatzen dituztela. Hala ere, H2an ezker

lobulu parietalean eta zirkunboluzio angularrena topatutako anplitude igoera ikusita Huletenk proposatu zuen H2-n sortutako mintzamenak esfortzu kognitibo handiagoa eskatzen zuela (ikus ere Hanulová et al., 2011).

Laburbilduz, mota honetako epe-motzeko ikasketa diseinuek burmuin aldaketak ikasketa gertatzen ari den bitartean neurtzea ahalbidetzen digute eta, ondorioz, hizkuntza ikasketaren perspektiba berri bat eskaintzen dute. Atal honetan aipatutako ikerketa guztiek epe-motzeko plastikotasuna gertatzen dela eta teknika ez inbasiboen bitartez neurtu dezakegula ondorioztatzen dute. Hala ere, aipatutako ikerketa gehienek EEG teknika erabili dute eta ez dute ikasketaren adierazle anatomikorik aurkezten. Adierazle anatomikoak garrantzitsuak dira, ariketetan gertatzen diren adierazle hauen modulazioek jasotzen bait dute ikasketa prozesuak eragindako epe-motzeko kortexaren plastikotasuna. Era honetako epe-motzeko plastikotasuna beste domeinu batzuetan jasoak izan dira, adibidez ikasketa motoretan (Rossini and Melgari, 2011), baina sarreran azaldu bezala hizkuntza ikasketan epe-motzeko adierazle anatomikoak falta dira. Tesi honek epe-motzeko hiztegi eta gramatika ikasketaren adierazle anatomikoak aurkezten ditu, eta lehenengo ikerketa non trebakuntza MEG grabaketa bitartean burutu egin den.

1.6 Laburpena

Kapitulu honek burmuin plastikotasuna denbora eta espazio eskala ezberdinetan nola ulertu daitekeen azaldu du. Hizkuntza ikasketak sortutako burmuin aldaketak ulertzeko, burmuin-osoko aldaketak denbora labur batean neurtzen dituen teknika bat behar dela argudiatu da. Horregatik, tesi honek MEG teknika erabiltzen du epe-motzeko hizkuntza ikastearekin lotutako plastikotasuna ikertzeko. MEG teknikaren datu bilketa eta analisiaren oinarriak 2. kapituluan azaltzen dira.

2. Kapitulu

Burmuin aktibitatea neurtzen Magnetoentzefalografiarekin


Kapitulu honen helburua tesi honetako esperimuetan neurtutako aktibitate mota azaltzea da. Honetaz gain, datu bilketarako behar diren MEG teknikaren oinarriak eta datuen analisirako metodologia azaltzen dira.

2.1 MEGak jasotzen duen burmuin aktibitatea

EEG eta MEGekin ez inbasiboki neurtutako aktibitate elektriko eta magnetikoek joera dute neurona mota naztuetako aktibitate mota konkretu batzuk jasotzeko.

Neuronak elkarrekin komunikatzeko, sinapsietan neurotransmisoreak askatzen dituzte (Ramón y Cajal, 1904). Seinalea bidaltzen duen neuronaren atala terminal pre-sinaptikoa deitzen da eta jasotzen duena terminal post-sinaptikoa. Terminal post-sinaptikoetako mintz-potentzial aldaketak potentzia post-sinaptikoak deitzen dira. Fisikoki egoki kokatuta dauden neurona talde handi bat sinkronizatzean (Lorente de No, 1947), hauen potentzial post-sinaptioken fluktuazioek EEG eta MEG teknikek neurtu dezaketen korrante bat sortzen dute (ikus 2.1 irudia). Fluktuazio hauei, patroirritmiko edo errepikakor bat jarraitzen dutenean, oszilazio neuronalak deitzen zaie. Burmuin fisiologian oszilazio hauek bandatan banatzen dira fluktuazio frekuentzia oinarrituta: delta banda (1-4 Hz), theta banda (4-8 Hz), alpha banda (8-13 Hz), beta banda (13-30 Hz) eta gamma banda (>30 Hz).

Estimuluek eraginda oszilazio hauek antolatu, amplifikatu edota parekatzen dira, bi motatako erantzunak sortuz: erritmo 'sorrarazia' (estimuluari gogorki lotuta) edo erritmo 'induzitua' (estimuluari ahulki lotuta). Sorrazitako erantzunak aztertzeko, normalean, denborari-lotutako batezbestekoa kalkulatu da eta honen emaitza




2.1. irudia: Seinale postsinaptikoak. Ezkerreko panelak neurona solte baten mintz potentzial post-sinaptikoa irudikatzen du (grisa). Eskubiko panelak neurona talde baten potentzial post-sinaptikoen sortutako korrante neurgarria (grisa) eta honen eremu magnetikoa (urdina) irudikatzen ditu.

sorrarazitako erantzun eremua (evoked response field, ERF) edo sorrarazitako erantzun potentziala (evoked response potential, ERP) deitzen da (MEG edo EEG seinaleen kausa hurrenez-hurren). Bestalde, denbora-frekuentzia analisia erabili ohi da induzitutako erantzunak aztertzeko.


2.2 MEGaren oinarriak

Edozein korrante elektrikok bezala, korrante post-sinaptikoak berari proportzionala den eremu magnetikoa sortzen du bere inguruan. Eremu hau burmuinaren mintz ezberdinetatik (materia grisa, txuria, likido zerebroespinala), gazezur eta larruazaletik igarotzen da eta buru kanpoaldean neurtu daiteke MEG sensoreak erabiliz (ikus 2.2 irudia).


MEG sensoreak material supereroalez eginiko uztaiak dira. Eremu magnetiko batek uztaiak gurutzatzean, eremuari proportzionala den korrante bat sortzen eta jasotzen da uztaian. Desabantaila nabari bat du sensore mota honek: neuronen norabidean arabera, sortutako eremu magnetikoa ezin da neurtu. Larruazalari erradialak diren korranteek sortutako eremu magnetikoek ez dituzte sensoreak zeharkatzen, bestalde, larruazalari tangenzialak diren korranteek sortutako eremu magnetikoak bai. Ondorioz, soilik korrante tangenzialek (eta ez erradialek) sortutako eremu magnetikoak neurtu daitezke MEG teknikarekin (ikus 2.3 irudia; Hari, 1991).



2.2. irudia: Magnetoentzefalografiak jasotako seinalearen eskema. Korrante sorreratik (ezkerra) seinale neurketararte (eskuina).



2.3. irudia: Korrante elektriko ezberdinak eta beraien eremu magnetikoa. Ezkerreko panelak korrante tangenziala eta honek eragindako eremu magnetikoak sensorea nola gurutzatzen duen irudikatzen ditu. Eskuineko panelak korrante erradiala eta honek eragindako eremu magnetikoak sensorea ez duela gurutzatzen irudikatzen ditu.



2.4. irudia: MEG seinalea eta zarata. Ezkerreko panelak MEG seinalea eta bestelako iturri magnetikoak (zarata) alderatzen ditu. Eskuineko panelak zarata hau indargabetzeko erabiltzen den pantailatze gelaren eskema irudikatzen du.

Neurketak burutu ahal izateko, MEG ekipamenduaren pantailatze egokia beharrezkoa da. Burmuinaren sortutako eremu magnetikoa oso txikia da ingurunean dauden beste eremu magnetikoekin alderatzen denean (ikus 2.4 irudia). MEG ekipamendua pantailatze egokirik ez balu, sensoreek ingurumeneko eremu magnetikoak neurtuko lituzkete eta interesdun seinalea (burmuineko eremu magnetikoa) zaratatik antzemanekin bihurtuko litzateke. Hau ekiditeko, ingurumeneko eremu magnetikoak blokeatzen dituen gela-pantailatu batean kokatzen da MEG ekipamendua, neurketa gunean kanpo eremuen eragina ahalik eta gehien txikitzeko. Honetaz gain, saio esperimental guztien aurretik partaide eta ikertzaileek neurketa gunean bestelako zarata iturririk sartzen ez dutela ziurtatzen da. Zarata indargabetzeaz gain, pantailatze gelak soinua indargabetzen du, inguru isila sortaraziz. Hau bereziki garrantzitsua da material auditiboak erabiltzen dituzten ikerketentzat.

Datu analisien helburua sensoreetan neurtutako eremu magnetikoa sortu duen aktibitate elektrikoaren kokapen eta ezaugarriak berreraikitzea da. Hau da, ariketa bat egiteko erabilitako burmuin eremuak aurkitu eta ariketa manipulatzeko eremu hauetan neurtutako aktibitatea nola moldatzen den aztertzea.

2.3 MEG datuen analisisa

Atal honek tesi honetako esperimentuetan jasotako datuak analizatzeko erabilitako metodologia azaltzen du. Analisi metodo bakoitzaren azalpenarekin

batera 'Nola azaltzen da hau Metodoak atalean?' deitzen den azpiatal bat agertzen da, atal metodologikoetan analisisen deskribapen adibide bat aurkezten duelarik. Beraz, azpiatal hauek kapitulu esperimentalen metodo atalak ulertzeko gida bezala hartu behar dira eta ez tesi osoko metodoen deskribapen amankomun bat bezala. Esperimentu bakoitzak bere berezko analisiak eta hauen parametroak deskribatzen dituen metodo atala du.

Tesi honetako datuak bi MEG ekipamendu ezberdinetan bildu ziren: Elekta Neuromag (Elekta AB, Stockholm, Sweden) eta CTF System (MISL, Coquitlam, Canada). Neuromag ekipamendua 102 kokalekutan banatutako 306 sensorez osatua dago. Kokaleku bakoitzean magnetometro bat eta bi gradiometro planar ortogonal aurkitzen dira. CTF ekipamendua ordea, 275 gradiometro axialez osatua dago. Gradiometro axialak eta magnetometroak burmuinean sakon sortzen diren seinale magnetikoak neurtzeko aproposak dira, gramdiometro planarrak, aldiz, magnitude txikiko seinale magnetikoak neurtzeko aproposak dira. MEG ekipamendu bakoitzak zarata murrizteko berezko software bat dakar.

Datuen preprozesamendua

Datuen preprozesamenduan ematen diren pausuak, interesa duten datuak interesa ez duten datuetatik (zarata, ezagutzen diren artefaktuaK) banantzeko helburua dute.

- Zarata indargabetzea. Datuak pantailatze gela barruan biltzen diren arren, kontuan hartzeko moduko zarata iturriekin kutsatuta jasotzen dira datu hauek. Horregatik, MEG ekipamendua berezko zarata indargabetze softwarearekin batera erabiltzen da.

Elekta Neuromag ekipamenduaren software Maxfilter deitzen da eta honen datu garbiketa Espazio Seinale Banaketa (Signal Space Separation SSS) deitzen den metodo batean oinarritzen da (Taulu et al., 2005). Metodo honek seinale elektromagnetikoen eta hauen oinarritzko frekuentzien ezaugarriak erabiliz MEG datuak hiru konponentetan banatzen ditu: Ekipamenduko sensore array barruan sortutako seinaleak (b_{in}), sensore array kanpoko zaratak (b_{out}) eta sensore arraytik gertu sortutako zarata (b_s). Zaratarekin lotutako konponentak baztertuak dira. Tesi honetan metodo honen espantsio tenporala erabiltzen da (tSSS), non konponente bazterketa denbora leiho irristakor bat erabiliz egiten den (Taulu and Simola, 2006). Honek zarata murrizteko informazio

espaziala eta tenporala erabiltzea ahalbidetzen du. Algoritmoak b_{in} eta b_s konponenteen arteko korrelazio altuak bilatzen ditu, artefaktuen adierazle bait dira. Hau aurrera eramateko, softwarrak parametro batzuk eskatzen ditu: denbora leihoaren luzera, korrelazio ataria, buruaren jatorrizko kokalekua eta sensore zaratatsuen zerrenda. Behin datuak iragazita, buruaren kokalekua kokaleku lehenetsira (0,0,40) transformatzen da, partaide guztien kokaleku amankomuna izan dezaten eta datuen sensore-topopgrafiak konparagarriak izateko.

CTF ekipamenduak berak 3. milako gradiometro sistema bat dakar. Gradiometro hauek eta preprozesamendu sistemak, gradiometro axialetan neurtutako datuak garbitzen dituzte erabiltzaileak parametririk zehazteko beharrik gabe.

Bi ekipamenduentzat, zarata indargabetze algoritmoarekin batera linea elektrikoaren frekuentzia (50 Hz) baztertzen da eta datuen lagintze-abiadura jaisten da (downsample) lan konputazionala murrizteko. Tesi honetan lagintze-abiadura jaitsiera eta linea frekuentziaren iragazketa bi pausu banandutan egiten da.

Nola azaltzen da hau Metodoak atalean? (Elektro Neuromag ekipamenduaren adibidea)

MaxFilter 2.2 erabilia MEG datuak Espazio Seinale Banaketa tenporalarekin (temporal Signal Space Separation tSSS) iragazki ziren X segunduko denbora leihoa eta Xko korrelazio minimoa erabiliz. Partaide bakoitzaren buruaren jatorria eta sensore zaratatsuen zerrenda eskuz markatu ziren, datuen lagintze-abiadura X Hz-ra jaitsi zen eta linea elektrikoaren frekuentzia (50 Hz) eta honen harmonikoak iragazki ziren. MRC Cognition and Brain Science Unitek duen MEG laborategiaren gomendioak jarraituz, lagintze-abiadura jaitea eta iragazketa bi pausu ezberdinetan egin zen, softwareak duen akats baten ondorioz datuen kutsadura ekiditzeko (http://imaging.mrc-cbu.cam.ac.uk/meg/Maxfilter_V2.2). Partaide bakoitzaren buruaren kokalekua, kokaleku lehenetsira transformatu zen, partaide eta blokeen artean buru kokaleku amankomuna zegoela ziurtatzeko. Batazbetse, lehen egunean buruen posizioak Xmm (std=X) aldatu ziren eta bigarren egunean X mm (std=X).

- Segmentazioa. Hurrengo pausua datuak intereseko zatitan moztea da: segmentuak sortzea. Segmentuaren tamaina esperimenduaren diseinuaren

araberakoa da. Ohikoa da ere segmentu hauek erreferentziako base bezala ezagutzen den intereseko leihoen aurreko datuak ere hartzea. Erreferentziako base hau estimulu aurreko eta ondorengo (periodo aktiboa) aktibitatea konparatzeko erabiltzen da, burmuinaren dinamikak aztertzeko.

- Artefaktu bazterketa. Pausu honen helburua ondorengo analisisien aurretik zarata diren segmentuak topatu eta baztertzea da. Pausu hau eskuz (miaketa bisuala, visual screening) edo automatikoki egin daiteke. Automatikoki egiten denean, soilik artefaktu baztertze pausurako, datuak estandarizatuak dira (adibidez, seinalea prozesu Gaussiano bat bada z -transformazio bitartez estandarizatzen dira) eta atari batean oinarrituta artefaktuak kontsideratzen diren segmentuak baztertzen dira. Bazterketa egin ondoren, datuak jatorrizko unitatetan mantentzen dira ondorengo analisisietarako.
- Iragazketa. Aldez aurretik intereseko aktibitatea frekuentzia jakin batzuetan aurkitzen dela dakigunean, soilik frekuentzia horiek mantentzeko datuak iragazki daitezke. Segmentuen iskinetan iragazkiak nahi ez diren efektuak sortu ditzake eta hauek ekiditzeko zero betegarriak (zero padding) erabiltzea gomendagarria da. Tesi honek hiru iragazki mota erabiltzen ditu eta iragazki bakoitzean ebaki-egoera bat edo bi aukeratu behar dira. Behe-paseko iragazkia ebaki-egoera azpitik dauden frekuentziak mantentzen ditu, goi-paseko iragazkiak ebaki-egoeratik gorakoak eta banda-paseko iragazkiak emandako bi ebaki-egoeren (behe eta goi frekuentziak) artean dauden frekuentziak.
- Korrante zuzeneko offset tentsio eta joera zuzenketak. Pausu ohiko bat korrante zuzeneko offseta (DC offset) eta seinalearen joera eliminatzea da. Korrante zuzeneko offseta seinalearen batezbesteko balioa da. Egoera ezberdineko segmentuek korrante zuzeneko offset ezberdina badute emaitzak oker ulertu daitezke, ez dauden seinale ezberdintasunak aldarrikatuz edota daudenak ez aldarrikatuz. Hau ekiditeko seinalearen batezbesteko balioa seinaletik kendu egiten da. Pausu hau ere demeaning bezala ezagutzen da. Batezbesteko balioa soilik erreferentzia basea erabiliz kalkulatu denean, erreferentzia zuzenketa bezala ezagutzen da pausu hau. Bestalde, zarata magnetiko handiek seinalean sortzen dituzten joera linearrak indargabetu daitezke joeraren estimazio linearra seinaletik kenduz (detrending).

Pausu hauek ondoren egingo diren analisisien baitan burutzen dira. Denbora-Frekuentzia analisi batean biak baztertzea egokia da, bai korrante zuzeneko offseta eta bai joera linearraren potentziek denbora-frekuentzia

puntuetara ihes egiten bait dute (Fieldtrip Online Users Tutorial, 2013). Sorrazitako eremu erantzunen (ERF) analisiaren kasuan, erabakia ez da hain argia. Erreferentzia zuzenketa seinale-zarata-ratioa hobetzeko erabili ohi da. Segmentu bukaerara irauten duten konponente berantiarak badaude, joera linearra kentzeak konponente horiek ere kenduko lituzkete (egiazkoa eta sorrazitakoak direnak) edo existitzen ez diren konponente berantiarak sortuko lituzke. Bestalde, artefaktuek jitoa sortzen badute seinalean, joera linearra kentzea egokia da (Acunzo et al., 2012).

- Begi-mugimendu eta bihotz-taupaden seinale zuzenketa. Begi-mugimenduek eta bihotz-taupadek datuak kutsatzen dituzten seinale elektriko eta magnetiko handiak sortzen dituzte. Ohiko bi modu daude seinale hauek baztertzeko. Lehenengoa, bihotz-taupadak edo begi-mugimendu efektu argiak dituzten segmentuak bisualki identifikatu eta baztertu daitezke. Bigarrena, segmentuetatik begi-mugimenduen eta bihotz-taupaden konponenteak baztertu daitezke, segmentu osoa baztertu ordez. Azken aukera hau hobea da, segmentu gehiegi baztertzeko ondorengo analisisetarako seinale-zarata-ratioa (SNR) jaitsiko luke eta. Elektrokardiograma (EKG) eta elektrokulograma (VEOG eta HEOG) eskuragarri badaude, begi-mugimenduen eta bihotz-taupaden efektuen antzematea automatikoki egin daiteke. Horretarako, datuak konponente bakoitza bestearen independienteak diren espazio batetara proiektatzen dira. Prozesu honek Konponente Independienteen Analisia (Independent Component Analysis, ICA; Vigário et al., 1998) du izena. Ondoren, EKG edo EOG seinaleekin korrelazio altuenak dituzten konponente independienteak baztertu egiten dira. Azkenik, baliozko konponenteak jatorrizko espaziora (kasu honetan sensore espaziora) proiektatzen dira berriz ere.

Nola azaltzen da hau Metodoak atalean?

Datuak Fieldtrip tresna erabiliz prozesatu ziren (version 20141202, Oostenveld et al., 2011). Lehenik, datuak segmentatuak izan ziren. Segmentuaren hasiera entsaioaren hasierakin lotu zen. Datuak X segunduko luzerako segmentutan banatu ziren, segundu bat entsaio hasiera baino lehen eta X segundu hasieraren ostean. Ondoren, datuak ikuskatu ziren artefaktuak bilatzeko: z -balioa X tik gora zuten segmentuak automatikoki baztertuak izan ziren. Segmentu bakoitza X segundutara iritsi arte zero-betegarriekin luzatu zen. X Hz-tan ezarritako behe-paseko FIR iragazki bat (zero-faseko pasada bakarra) erabili zen, eta X ms-ko ($-X - X$ ms) erreferentzia zuzenketa egin zen. Datuak


Konponente Independienteen Analisia (ICA) algoritmoa erabiliz deskonposatu ziren. Konponente kopurua, gradiometro kopurua izan zen (X) eta analisi honen aurretik ez zen dimentsio murrizketa algoritmorik erabili. fastICA algoritmoa erabili zen konbinatu gabeko gradiometritan (X sensore). Ondoren, ICA konponente bakoitza HEOG; VEOG eta EKG seinaleekin korrelatu zen. Hiru desbideratze tipikotik gorako korrelazioa erakutsi zuten konponenteak baztertu egin ziren eta konponenteak jatorrizko sensore espaziora transformatu ziren.

Denborari-lotutako analisia

Segmentu batean dagoen estimulu solte baten erantzuna oso zaratatsua eta zaila da deskribatzeko. Praktikan, estimulu komun baten erantzunak dituzten segmentuen (egoera bereko segmentuak) batezbesteko kalkulatzen da, seinale-zarata-ratioa hobetuz. Honetarako, intereseko efektua estimulari denboran eta fasean lotuta dagoela asumitzen da (sorrarazitako erantzun bat dela). Ondorioz, batezbestekoa kalkulatzean zarata indargabetzen da (zarata estimuluarekiko independentea dela asumitzen da), denboran eta fasean lotutako efektua argituz. Analisi mota hau MEG datuetan burutzen denean, batezbesteko seinalea sorrarazitako erantzun eremua (Event Related Field, ERF) du izena eta EEG datuetan burutzen denean sorrarazitako erantzun potentziala (Event Related Potential, ERP). Orokorrean, metodologia atalak segmentuak entseguaren zein denbora-puntura dauden lotuta adierazi beharko luke. Gainera, zein segmenturen (egoera honetako guztiak, erantzun zuzena zutenak soilik, bi egoera hauetako segmentuak etab.) eta ze sensoreen batezbestekoa egin den adierazi behar du. Ondoren, aukerazko pausu bat gradiometroak konbinatzea da, Pitagorasen araua erabiliz gradiometro horizontal eta bertikalak konbinatuz. Konbinatutako gradiometro planarrak irudikatzen direnean, sorrarazitako eremuak iturriaren gainean gailur bat erakusten du.

Normalean egoera ezberdinetako batezbestekoak grafika berdinean irudikatzen dira, non X ardatzak denbora adierazten du eta Y ardatzak eremu magnetikoaren magnitudea (ikus 2.5 irudia). Magnitudea azalerako eremu magnetiko karratua denean ($(\text{fT}/\text{cm})^2$) grafikoak konbinatutako gradiometroak irudikatzen ditu. Magnitudea gradiente magnetikoa denean (fT/cm) grafikoak konbinatu gabeko gradiometroak irudikatzen ditu. Normalean, ERF grafika bat topoplot batekin dator. Topoplota denbora lehio batean ERFen distribuzio topografikoa irudikatzen duen grafiko bat da. Topoplot batek, bi ERFen arteko ezberdintasunaren distribuzio topografikoa irudikatu dezake ere (ikus 2.5 irudia). Mapa topografikoek efektuen kokalekua modu orokor batean (ezker hemisferioa, eskuin hemisferioa, aurrekaldea, atzekaldea) adierazten dituzte. Are gehiago, mapa topografikoak iturrien analisisien

Event Related Analysis (ERF)



2.5. irudia: Denborari-lotutako analisi baten emaitza baten adibidea.

erantzunak balioztatzeko erabili daitezke, iturri analisisien emaitzak eta mapa topografikoak koherenteak izan behar dira eta (mapa topografikoak efektua aurreko eskuin sensoreetan kokatzen badu, susmagarria da iturri analisiak efektua ezker-atzekaldean kokatzea).


Nola azaltzen da hau Metodoak atalean?

Konbinatu gabeko sensoreetan entsaioen batezbestekoa kalkulatu zen egoera bakoitzeko (urraketa/kontrola). Soilik erantzun zuzenekin lotutako entsaioak erabili ziren gertaera bati lotutako eremuen (ERF) kontrasteetan. Batezbestekoak kalkulatu ondoren, gradiometro planarrak konbinatu egin ziren.

Denbora-Frekuentzia analisisa

Gertaera bati lotutako eremuak aztertzeko denborari-lotutako analisisa egokia den arren, burmuin erantzun guztiak ez daude estimulari denboran eta fasean hertsiki (estuki) lotuak (aktibitate induzitua). Oszilazio induzituak burmuinaren berezko aktibitatean estimulu batek eragindako modulazioa da. Erantzun induzituaren batezbestekoa egitean, hauek kantzlatu daitezke entsaio bakoitzak fase ezberdina izan dezakeelako. Oszilazio mota hauek aztertzeko denbora-frekuentzia analisisa erabili ohi da, seinalearen epe-motzeko potentzia-espektru aldaketak aztertzen dituelarik. Planteamendu matematiko ugari daude analisi hau burutzeko. Tesi honetan erabilitakoa Hanning leihoan oinarritzen da. Leiho irristakor baten bitartez datuak Hanning leiho batekin biderkatzen dira, ihes espektrala murriztuz eta frekuentzia leuntzea kontrolpean izateko. Denbora leihoaren luzera aldatu egiten da frekuentziaren baitan (leihoaren luzera frekuentzia baten ziklo kopuru bat da), denbora bereizmena hobetzeko. Geroz eta frekuentzia altuagoa, orduan eta leiho txikiagoa eta denbora-bereizmen hobea lortzen dira. Hala ere, honek frekuentzia

Time Frequency Analysis



2.6. irudia: Example of a time-frequency analysis result report.

leuntze handiagoa dakar eta horregatik metodoetan frekuentzia leuntzea adierazi behar da. Denbora leihoaren luzera batean dauden frekuentzia ziklo kopurua eta denbora leihoak aurreratzeko erabilitako pausuak ere adierazi behar dira. Fasean ez dauden erantzunen arteko kantzelazioak ekiditeko, denbora-frekuentzia entsaio bakoitzean kalkulatu da eta ondoren guztien batezbestekoa kalkulatu da.

Denbora-frekuentzia analisisen emaitzak kolore mapetan irudikatzen dira, non X ardatzak denbora adierazten du, Y ardatzak frekuentzia eta kolore eskalak erreferentziarekiko egon den potentzia aldaketa irudikatzen du (ikus 2.6 irudia). Kolore mapa hauek topoplot batekin etor daitezke, frekuentzia banda eta denbora leiho jakin bateko potentziaren topografia irudikatzen duelarik.

Nola azaltzen da hau Metodoak atalean?

Potentzia balioak frekuentzia-menpeko luzera duen Hanning leiho simple bat erabilia egin zen. Denbora leiho bakoiztean X ziklo zeuden, X s-ko pausuekin. Analisia segmentu guztian burutu zen (-X eta X s artean) X eta X Hz artean hertzio bateko pausuekin. Honek X Hz-tara X Hz-ko frekuentzia leuntzea dakar. Denbora-frekuentzia puntu bakoitzeko potentzia balioak erreferentzia basearekiko (-X,X normalizatu ziren. Ondoren, gradiometroak konbinatu eta konbinatutako gradiometroetan burutu ziren analisi estatistikoak.

Iturri analisisia

MEGren abantaila nagusia burmuineko iturri posibleen kokalekua ahalbidetzen duela da. Kokaleku horiek lortzeko joanerako modeloa (leadfield) definitu behar da. Joanerako modeloak burmuineko kokaleku bakoitzeko aktibitatea sensoreetan nola isladatuko zen azaltzen du. Joanerako modeloa kalkulatzeko burmuina geruza ezberdinetan zatitzen da (larruazala, buru-hezurra, materia grisa...) eta geruza bakoitzari eroaltasun balio bat ematen zaio. Literaturan joanerako modeloak definitzeko modu anitzak topa daitezke. Tesi honetan geruza bakarra (single shell) deituriko hurbilketa erabili da (Nolte, 2003). Honetaz gain, lauki-sare (spatial grid) baten barruan kokaleku multzo bat espezifikatu behar da. Joanerako modeloan oinarrituta alderantzizko modelo/erantzuna kalkulatu da, neurtutako seinaleak sortu lezaketen burmuin iturriak estimatuz. Algoritmo ezberdinak daude alderantzizko modeloak kalkulatzeko, ondorengo paragrafoetan tesin honetan erabilitakoak azaltzen dira.

Minimum Norm Estimation (MNE, Hämäläinen and Ilmoniemi, 1994) burmuineko korrante banatuak kalkulatzeko estimazioaren teoria erabiltzen duen iturri berreraikitze metodo bat da. Aurreupoastu bakarra iturri korranteak eremu batera mugatuta daudela da, burmuinera hain zuzen ere. Estimazioa iturri-korrante espazioan dagoen bektore motzena da, hau da, orokorrean energia minimoa erabiliz neurtutako seinaleak azaldu daitezkeen iturri banaketa. Metodo guztien artean, MNE sorrarazitako erantzunak analizatzeko eta burmuinean zabaldutako aktibitatea denboran zehar jarraitzeko erabili ohi da. Tesi honetan erabilitako MNE bertsioa fieldtripen eskaintakoa da (Dale et al., 2000).

Nola azaltzen da hau Metodoak atalean?

*Minimum Norm Estimate (MNE) (Dale et al., 2000) metodoa erabili zen. MRI egitura irudiak larruazal, garezur, burmuin eta CSF mintzetan segmentatu zen, eta geruza bakarra modeloa erabiliz burmuinaren bolumenari eroaltasun balio bat eman zitzaion. Bolumenaren eroaltasun modeloa eta geruza kanoniko kortikalean oinarritutako X-puntuko sarea (Fieldtripen eskuragarri) erabiliz leadfilak eraiki ziren. Alderantzizko emaitza kalkulatu aurretik, leadfilak txurituak izan ziren. Iturrien kobariantza matrizea eskalatua izaten da ondorengo ekuazioa bete dezan: $\text{trace}(A^*R*Aff)/\text{trace}(C)=1$ A leadfinla izanik, R iturrien kobariantza eta C zarataren kobariantza. Sraeko-erpin bakoitzeko denbora seriea MNE algoritmoa metodoa erabiliz kalkulatu zen, bai lambda eta lambda zarata hiruko balioa zutelarik. Azkenik, iturri denbora seriearen hiru momentuak erpin bakoitzeko norabide indartsuenera proiektatu ziren.*

Minimum Variance distortion-less response (MVDR, Van Veen et al., 1997, baita ere Beamformer bezala ezagututa) seinale prozesamendu alorretik neuroirudi domeinura moldatutako metodo bat da. Kokaleku bakoitzarentzat bariantza minimora mugatutako iragazki linearrak (linearly constrained minimum variance filters, LCMV) diseinatzen dira, kokaleku zehatz bateko burmuin aktibitate elektrikoa pasarazten duena beste kokalekuetakoa indargabetzen duen bitartean. Iragazki espazialak sensore mailako C kobariantza matrizearen azterna minimizatuz, $W^T A = I$ ekuazioa betetzen dutelarik kalkulatu dira (A leadfield matrizea eta W iragazkien matrizea). Iturri berreraikitze metodoen artean, beamformerra momentuko oszilazioetan erantzun indusituek edo faseari lotu gabeko erantzunek eragindako aldaketan kokalekua kalkulatzeko proposena da (Brookes et al., 2008).

Nola azaltzen da hau Metodoak atalean?

Beamformer iragazki espaziala erabili zen Van Veen et al. (1997). Horretarako, X-X Hz frekuentzia leihoa eta esperimentu osoa biltzen duen denbora leihok erabiliz datuen kobariantza matrizea kalkulatu zen. Erregularizazioa burutzeko Tikhonov metodoa aplikatu zen, erregularizatu gabeko matrizearen balio propio maximoaren % 5ko parametroa erabiliz. Boxelak burmuin osoa estaltzen zuen X mm-ko lauki-sare erregular (spatial grid) baten barruan definitu ziren eta joanerako modelo esfera-lokal-anitz metodoa erabiliz kalkulatu zen (Huang et al., 1999). Boxel bakoitzean banda zabaleko seinalko (X-15X0 Hz) beamformer iragazkiak kalkulatu ziren.

Analisi estatistikoak

Emaitzetan topatutako patroien eta egoeren arteko diferentzien esangura eta partaideen arteko konsistentzia aztertzeko analisi estatistikoak egiten dira, burmuin aktibitatearen modulazio zehatz bat azpimarratuz edo isolatuz. Neuroirudi domeinuan, ordea, arazo nagusi bat dago: konparazio anitzen arazoa. Zuzenketa metodo bat beharrezkoa da positibo faltsuak ekiditeko, negatibo faltsuen kopurua handitu gabe. Tesi honetan ausazko mulkoen permutazioa erabili da.

Ausazko mulkoen permutazioa(Maris and Oostenveld, 2007) aztertutako aldagaien maiztasun-banaketa inguruan auresuposatu gutxi egiten dituen metodo ez parametrikoa da. Hasteko, ohiko proba parametrikoko bat burutzen da (adibidez, t-proba) datu puntu guztietan. Estatistikoki esanguratsuak diren eta gertutasuna duten puntuekin mulkoak osatzen dira eta mulko bakoitzari balio estatistiko bat egokitzen zaio (clusterstat deitua). Tesi honetan, azkeneko hau mulkoaren balio estatistiko guztiak gehituz lortu da. Ondoren, permutazio bakoitzean prozedura

berdina errepikatzen da, partaideak ausaz nahastuta. Permutazio bakoizteko clusterstat handienarekin maiztasun-banaketa osatzen da. Azkenik, jatorrizko konparaketaren clusterstat balioa maiztasun-banaketarekin alderatzen da, jatorrizko konparaketaren esangura estatistikoa lortzeko.

Nola azaltzen da hau Metodoak atalean?

Egoeren arteko ezberdintasunak ausazko mulkoen permutazio analisia erabiliz aztertu ziren (Maris and Oostenveld, 2007). Bloke bakoitzean (aurre-proba, trebakuntza, orokortze-proba, etab.) urraketa-kontrol konparaketaren mulkoen estatistiken maiztasun-banaketa sortu zen. Sensore eta [-X X] s leiho tarteko puntu guztietan t-estatistikak kalkulatu eta algoritmoak sensore mulkoak topatu ziten denboran zehar. Bizilagun deskribapena Fieldtrip-ek eskainitako Neuromag-306 plantilan oinarritua zegoen. Datu puntu bat mulko baten parte izateko, $p < X$ (bi aldeko proba eta probabilitate zuzenketa erabiliz) ataka pasa eta gutxienez X bizilagun izan behar zituen. Mulko baten t-estatistikak gehiketa mulkoaren estatistika balio bezala hautatu zen (maxsum auekra Fieldtrip-en), eta X permutazioko ausazko proban erabili zen.

2.4 Laburpena

Kapitulu honetan aktibitate postsinaptikoak sortutako eremu magnetikoa MEGarekin nola neurtzen den deskribatu da. Gainera, 3,4 eta 5 kapituluetan datu analisietan erabilitako metodoak azaldu eta hauen adibideak eman dira.

II. Atala

Atal experimentalata

3. Kapitulu

Gramatika ikasketaren esperimentua

3.1 Oinarrizko arrazoia

Kapitulu honetan aurkeztutako esperimentuaren helburua gramatika arauak antzematen dituzten burmuin eremuak hobeto ezagutu eta deskribatzea da. Horretarako ama-hizkuntza gaztelania (Spanish, SP, H1) zuten partaideei Euskarazko (Basque, BQ, H2) gramatika arau bat erakutsi zitzairen trebakuntza aurretik, bitartean eta ondoren MEG seinaleak grabatu ziren. Jasotako sorrarazitako burmuin aktibitatearen iturri berreraikitzea aurkezten da ere.

Mueller-en arabera karga semantikoa murrizteak baliabideak libratu ditzake eta hauek urraketa sintaktikoen prozesamendurako erabili daitezke (Mueller et al., 2008). Hori dela eta, ariketan zehar aurkeztu ziren sintagmak Euskara-Gaztelera kognatuak diren izen eta adjektiboz osatuta zeuden, ikasketa prozesuan karga lexiko-semantikoa eta karga fonologikoa murrizteko, eta bide batez, mintzamenaren segmentazioa errazteko asmoarekin. Euskarak eta Gaztelarak inbentario fonologiko oso antzekoa dute eta, aldi berean, beraien sistema gramatikalak oso ezberdinak dira.

Egoera naturaletan ikasleek gaitasun gramatikala mintzamenaren eta ulermenaren bitartez ikasten dute. Egoera hauetan ematen den gramatika ikasketa hobeto imitatzeke, partaideek esaldiak gramatikalki zuzenak ziren erabaki zuten eta, baita ere, marrazki-deskribapen ariketa baten bitartez esaldien gramatika zuzena sortzen ikasi zuten. H2 ikasleak euskarazko ama-hiztunen talde ezberdin batekin konparatu ordez (Muellerren ikerketetan egin zen bezala), partaide talde berdinen H1 eta H2 burmuin erantzunak jaso egin ziren bi hizkuntzen arteko ezberdintasunak hobeto aztertzeke.

Hipotesi nagusia kognatu-hiztegia erabiltzeak gramatika arau berria azkar ikastea ahalbidetzen duela da. Neurofisiologikoki, hipotesia H1 erabiltzean rekrutatzen

diren sare neuronalak H2 berri baten ikasketan esplizituki inplikaturak daudela da. Hau da, behin araua ikasita eta denbora-errealeko sisteman barneratuta dagoenean, ezker-atzealde burmuin eremuak (H1 urraketen anplitude handiagoa erakusten dutenak) anplitude handiagoa erakutsiko dute H2 urraketen erantzunetan. Hala ere, H2 ikasketaren hasierako faseak MEGekin ikertu gabe daudenez, ezin dira H1 eremuak agertuko direla aurreuposatu eta, beraz, ez da egokia H1 eremuetara mugatzea.

3.2 Metodo eta Materialak

Adierazpen etikoa


Ikerketa hau Basque Center for Cognition, Brain and Language-n egin da eta bertako etika komiteak onartua da.

Partaideak

Partaideak irakurketa eta entzumen arazorik ez zuten 17 (9 emakume, 8 gizon) Euskarazko jakintzarik gabeko Gaztelarazko ama-hiztun osasuntsu eta eskuinak izan ziren. Partaideak Donostialdean bilatu ziren. Esperimentua hasi aurretik, partaide guztiek idatzizko kontsentimendua eman zuten (Declaration of Helsinki) eta interferentzia magnetikoen bila miatuak izan ziren. 17 partaide hauetaz gain, bi partaide gehiagoren datuak jaso ziren, baina analisitik baztertuak izan ziren aginduak ez jarraitzeagatik.

Esperimentua

Esperimentu honetarako 'mini-Basque' deitu dugun euskara portzio zati txiki bat erabili dugu. Euskarak eta Gaztelarazko hiztegi zati esanguratsua elkarbanatzen dutela baina gramatika sistema oso ezberdinak dituztelaz baliatu gara esperimentu honetan. Partaideentzat ezagunak ziren hitzez baina gramatika arau berri batez osatutako euskarazko izen sintagmak erabili ziren estimulu gisa. Gaztelaniarekin antzerakotasun fonologikoa duten 80 izen eta lau adjektibo erabili ziren guztira (deskribapen fonologikoaren Levensthein distantzia: $m=0.77$; $std=1.4$ fonema). Aukeratutako gramatika araua (numero marka) nahikoa erraza da saio esperimental gutxiren baitan ikasteko modukoa. Numero gramatikala bi hizkuntzetan erabiltzen da baina modu ezberdinetan inplementatzen da, bi hizkuntzen sintagmen orden eta buru-sintagmen norabideagatik. Caffarra et al. (2015)-ren esanez numero inflekzioa 'ezberdin' inplementatzen da. 3.1. irudiak erakusten duen bezala, Gaztelaraz plurala



3.1. irudia: Euskarazko eta Gaztelerazko izen sintagmen numero inflekzio ezberdintasunak. Geziek numero marken arteko erlazioak adierazten dituzte, marra sinpleek dependentzia eta marra bikoitzek buru-dependentzia.

sintagmako elementu guztietan markatzen da. Bestalde, Euskaraz sintagmaren azkeneko elementuan markatzen da soilik.

Estimuluak

Esperimentua hiru izen-sintagma motaz osatua dago: kontrol sintagma, urraketa sintagma eta betetzaileak (ikus 3.1 taula).

3.1. irudiak eta 3.1. taulak erakusten duten moduan, Gazteleraz numero konmuztadura singtagmako elementu guztiak markatuz sortzen da; determinatzailea, izena eta adjektiboa: Los dados verdes. Gaztelerazko urraketa sintagma adjektiboaren numero marka okerra erabiliz sortu ziren, beraz, urraketa/kontrol puntua adjektiboaren bukaeratik gertu dator. Euskaraz, ordea, numero konmuztadura sintagmaren azkeneko elementuan markatzen da (esperimentu honetan izena edo adjektiboa izan daiteke): Dado berdeak. Urraketa sintagmetan morfema kritikoa izenari jarraitzen dion adjektiboaren lehenengo morfema da, hau da, numero inflekzioa duen izenaren ondoren datorren morfema. Partaideek inflekzioa duen izena agertzean zuzenean urraketa ez antzemateko, sintagma betetzaileak erabili ziren: izenez soilik osaturiko izen sintagma. Kasu honetan sintagmek determinatzailea eta izena zuten baina ez zuten adjektiborik. Horrela, partaideek erabakia hartu ahal izateko inflekzioa zuen izenaren ondoren ea adjektiborik zeterren entzutera itxoin behar zuten. Ez zen izen soltez osaturiko sintagmarik aurkeztu (dado), Euskaraz determinatzailea ez bait da aukerazkoa. Sintagma betetzaileak ez ziren analisirako kontuan hartu.

Ulermen proba/trebatze bloke bakoitza 184 entsaioz osatuta zegoen: 80 kontrol sintagma, 80 urraketa sintagma eta 24 sintagma betetzaile. Urraketa, kontrol

Egoera	Mini-Basque sintagmak	Gaztelera-zko sintagmak
Kontrol sintagmak	Dado[] berdea[Sing]	El[Sing] dado[Sing] verde [Sing]
	Dado[] berdeak[Pl]	Los[Pl] dados[Pl] verde s[Pl]
Urraketa sintagmak	*Dadoa[Sing] berdea[Sing]	*El[Sing] dado[Sing] verde s[Pl]
	*Dadoak[Pl] berdeak[Pl]	*Los[Pl] dados[Pl] verde [Sing]
Betetzaileak	Dadoa[Sing]	El[Sing] dado[Sing]
	Dadoak[Pl]	Los[Pl] dados[Pl]

3.1. taula: Adibide sintagmak. | urraketa eta kontrol puntuak adierazten ditu. Ezaugarri marka kortxete artean dijoa (e.g., [Pl] edo [Sing]), markatu gabeko ezaugarriak kortxete hutsekin adierazi dira: [].

eta sintagma betetzaileak ausaz nahastuta aurkeztu ziren bloke bakoitzean, baina zerrenda berbera aurkeztu zitzairen partaide guztiei. Bloke bakoitzak 15 minutu inguru iraun zituen.

Mini-Basque sintagmak gaztelera-ekin antzekotasun fonologikoa duten 80 izen eta 4 adjektibokin osatu ziren. Izen horietako 60 eta bi adjektibo trebakuntza blokeetan erabili ziren eta gainontzeko 20 izenak eta 2 adjektiboak orokortze blokeetan. Beraz, esperimentuan ez da sintagmarik errepikatu eta trebakuntza blokeetan aurkeztutako hitzak ez dira orokortze blokeetan ageri.

Estimuluak jaiotzez Euskara-Gaztelera elebiduna den emakume batek soinu-kabina batean grabatu zituen. Audioen anplitudea bolumen berdinerak ekuilazatu zen eta 60 Db tara aurkeztu ziren. Grabatutako estimuluaren luzerak bloke eta egoerako 3.2. taulan aurkitu daitezke.

Estimulu auditiboak erabili zirenez, entsaio bakoitzaren morfema kritikoaren agerpen denbora aldakorra da. Analisisetan puntu kritikoa zehazteko, Gaztelera-zko eta Euskerazko blokeen batezbesteko puntu kritikoa kalkulatu zen. Euskerazko sintagmentzat, bigarren hitzaren hasiera neurtu zen Praat softwarea erabiliz (Boersma and Weenik, 1990, version 5326), eta ondoren balio hauen batezbestekoa kalkulatu. Gaztelera-zko sintagmentzat, azken hitzaren amaiera neurtu zen (Praat erabiliaz ere) eta balioen batezbestekoa kalkulatu zen.

MEG grabaketan bitartean estimulu auditiboak panel bozgoragailuak erabiliz aurkeztu ziren (bi SSHP 60 x 60 panel; Panphonics Oy, Helsinki, Finlandia).

Blokea	Kontrol	Urraketa
Pre-Test BQ	1.32(0.23)	1.48(0.29)
Pre-Test SP	1.56(0.29)	1.61(0.26)
Training 1	1.42(0.32)	1.54(0.34)
Training 2	1.43(0.29)	1.60(0.38)
Training 3	1.41(0.28)	1.58(0.36)
Gen-Test BQ	1.43(0.25)	1.58(0.31)
Post-Test SP	1.61(0.29)	1.65(0.35)

3.2. taula: Estimuluen batezbesteko (desbideratze tipikoa) luzera segundutan blokeko.

Diseinua eta ariketak

Esperimientua bi egun jarraietan egindako bi saiotan banatuta dago. Bi eguneko diseinua aukeratzeko bi arrazoi nagusi zeuden. Lehenengoa, lehenengo egunenean ikusitako efektuak ea bigarren egunean mantentzen diren aztertu ahal izateko. Bigarrena, burmuinaren erantzunak trebakuntza bitartean nola aldatzen diren ikusi nahi bada, trebakuntza entsaio asko behar dira. Guztiak egun berdinean egingo balira esperimientua luzea eta neketsua bihurtuko zen. Lehenengo saioa zazpi blokez osatua dago: aurre-proba bat Euskaraz, aurre-proba bat Gazteleraz, arau azalpena, ulermenean trebakuntza, mintzamenean trebakuntza, beste trebakuntza bat ulermenean eta beste trebakuntza bat mintzamenean (ikus 3.2 irudia, 1. zutabea).

Ulermen ariketako entsaioetan atzeko-proiekzio pantaila batean finkatze-gurutze bat ageri zen bi segunduz, ondoren sintagma aurkezten zen bozgoragailuetatik. Finkatze-gurutzea pantailan mantentzen zen esaldi bitartean eta hau bukatzean galdera ikurra agertzen zen pantailan, eta bertan mantentzen zen partaideak erantzun bat eman edota denbora bukatu arte (4 segundu). Trebakuntza blokeetan, partaidearen erantzunari jarraituz erantzunaren zuzentasunari buruzko informazioa aurkezten zen pantailan: lauki berde (zuzena) edo gorri (okerra) bat. Partaideak erantzun bat baino gehiago emanaz gero, soilik lehenengo erantzuna ebaluatzen zen eta besteak baztertzen ziren.

Euskarazko aurre-proba partaideek euskarazko jakintzarik ez zutela bermatzeko eta estimuluak berak eragindako efekturik ez zegoela ziurtatzeko gauzatu zen.














Aurre-proban partaideei Euskarazko esaldiak entzungo zituztela esan zitzairen eta entzuten zuten esaldia ea zuzena (botoi berdea sakatuz) edo okerra (botoi gorria sakatuz) zen adierazteko eskatu zitzairen. Gaztelerazko aurre-proba partaideen H1ean erreferentzia base bat neurtzeko egin zen. Partaideek botoi berdea sakatu behar zuten esaldi zuzenentzat eta botoi gorria esaldi okerrentzat. Ez euskarazko ez gaztelerazko aurre-probetan ez zen erantzunen zuzentasunari buruzko informaziorik eman. Lehenengo bi aurre-proben ondoren partaideei esan zitzairen ikerketaren beste zati guztia Euskarazko gramatika arau baten ikasketa bat izango zela. Araua azaltzeko 3.1. irudian agertzen den adibidea erabili zen. Partaideek nahi zituzten galdera haina egin zitzaizkien araua ondo ulertu zutela ziurtatzeko. Araua eta ariketak azaldu ostean, trebakuntza blokeak hasi ziren. Aurre-probaren antzera, partaideek sintagmak entzun eta zuzenak edo okerrak ziren erabaki behar zuten, baina trebakuntza blokeetan lauki berde edo gorriarekin emandako erantzunaren zuzentasuna adierazi zitzairen.

Mintzamen ariketa irudi-izendapen ariketa bat izan zen. Atzera-proiektzio pantaila batean partaideek finkatze-gurutze bat ikusten zuten bi segunduz, jarraian kolore bakarrean margotutako marrazki bat edo bi agertzen ziren (adibidez, dado berde bat, edo bi kotxe gris). Irudiaren ondoren, galdera ikurra ageri zen eta partaideek singularrean edo pluralean izen sintagma egokia sortu behar zuten. Emandako lehenengo erantzunean oinarrituta, pantailan agertutako lauki berde edo gorri bidez erantzunaren zuzentasuna adierazi zitzairen. Trebakuntza blokeetako mintzamen ariketak euskaraz burutu ziren.

Bigarren saioak sei bloke zituen: ulermenean trebakuntza, mintzamenean trebakuntza, ulermen orokortze proba bat, mintzamen orokortze proba bat, ulermen proba gazteleraz, mintzamen proba gazteleraz (ikus 3.2. irudia, 2. zutabea). Trebakuntza blokeek aurreko eguneko sekuentzia berdina jarraitzen zuten. Ulermen eta mintzamen orokortze probatan, trebakuntzaren sekuentzi berdina jarraitzen zuten, baina erantzunaren zuzentasunaren inguruko informaziorik eman gabe. Gainera, erabilitako estimulu sorta trebakuntzan erabilitakoaren ezberdina zen (aurreko atalean azaldu den bezala). Orokortze proben helburua partaideek gramatika araua ikasi edota sintagma solteak zuzenak edo okerrak ziren buruz ikasi zituzten aztertzea zen. Gaztelerazko blokeak, gazteleraz bigarren egunean erreferentzia base bat izateko erabili ziren.

Prozedura

Bi saioak bi egun jarraietan burutu ziren. Partaide bakoitzarentzat deskribatutako bloke guztiak grabatu ziren. Partaideei grabaketa bitartean postura eroso hartu eta

DAY 1		DAY 2											
	Pre-Training Test (Basque) - Judgement task - No feedback												
	Pre-Training Test (Spanish) - Judgement task - No feedback		Training 3 (Basque) - Judgement task - Visual feedback										
<table border="1" data-bbox="391 862 582 996"> <thead> <tr> <th>Spanish</th> <th>Basque</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>El... dado...</td> <td>Dado berde</td> </tr> <tr> <td>El... dado... verde...</td> <td>Dado berde</td> </tr> <tr> <td>Los... dados...</td> <td>Dado berde</td> </tr> <tr> <td>Los... dados... verdes...</td> <td>Dado berde</td> </tr> </tbody> </table>	Spanish	Basque	El... dado...	Dado berde	El... dado... verde...	Dado berde	Los... dados...	Dado berde	Los... dados... verdes...	Dado berde	Rule Explanation		Training 3 (Basque) - Picture naming - Visual feedback
Spanish	Basque												
El... dado...	Dado berde												
El... dado... verde...	Dado berde												
Los... dados...	Dado berde												
Los... dados... verdes...	Dado berde												
	Training 1 (Basque) - Judgement task - Visual feedback		Generalization Test (Basque) - Judgement task - No feedback										
	Training 1 (Basque) - Picture naming - Visual feedback		Generalization Test (Basque) - Picture naming - No feedback										
	Training 2 (Basque) - Judgement task - Visual feedback		Post-Training Test (Spanish) - Judgement task - No feedback										
	Training 2 (Basque) - Picture naming - Visual feedback		Post-Training Test (Spanish) - Picture naming - No feedback										

3.2. irudia: Ikerketaren diseinua. Ezkerreko zutabeak lehenengo saioaren eskema adierazten du, eskuinekoak bigarren saioarena (lehenengo eta bigarren saioa egun jarraitetan burutu ziren). Gris ilunez dauden blokeak, ulermen ariketak dira. Bloke txuriak mintzamen ariketak, eta gris argia arau azalpena.

erlaxatzeko eskatu zitzairen datu grabaketa bitartean mugimenduak ekiditeko asmoz. Ariketen bitartean begi, buru eta gorputz mugimenduak saihesteko eskatu zitzairen ere. Bi elektrokulograma (bertikala eta horizontala) eta elektrokardiograma simple bipolar bat jaso ziren ere, ondoren ICA bidezko artefaktu baztertzea gauzatu ahal izateko.

Buruaren forma digitalizatzeko Polhemus Isotrak (Polhemus, Colchester, VM, EEBB) boligrafo bat erabili zen. Buruaren forma digitala partaide bakoitzaren burua bere irudi estrukturalari (T1 irudia) lerrokatu ahal izateko erabili zen. Honetaz gain, partaidearen buruan buru-lokalizaziorako 5 espira kokatzen dira, eta hauen kokalekua fiduzialekiko jasotzen da. Bost espirak MEG grabaketa bitartean aktibo daude, buruaren lokalizazio jarraia ematen dutelarik (cHPI). MEG datuak Elekta ekipamendu batean berezko softwarean bidez, 1000 Hz lagintze-abiadura, 0.03 Hz goi-paseko iragazkia eta 330 Hzko behe-paseko iragazkia erabiliz jaso ziren.

Datu analisiak

Portaera analisiak

Ulermen ariketetako portaera datuak maila anitzeko erregresio lineal orokortua erabiliz modelatu ziren (Dixon, 2008). Modelorako bi faktore erabili ziren egoera (urraketa/kontrol) eta blokea(aurre-proba, trebakuntza 1...). maila anitzeko analisiak ematen dituen koefizienteak zailak dira ulertzeko, horregatik, koefizienteak zuzentasun proportzioetara itzuli ziren. Mintzamen ariketetako emaitzak antzera modelatu ziren, maila anitzeko erregresio lineal orokortua erabiliz (Dixon, 2008) baina soilik bloke faktorea erabiliz. Ikerketa honen helburua gramatika jabetza (eta ez lexiko jabetza) aztertzea denez, mintzamen ariketetan soilik gramatika izan zen zuzendua. Beraz, erantzun batek gramatika zuzena baina ahoskera edo adjektiboa guztiz ondo ez bazuen, erantzun zuzen bezala markatu zen. Hau da, partaideak Gaztelerazko kognatua erabiltzen bazuen baiian Euskarazko gramatika erantzun zuzena kontsideratzen zen.

MEG datuak

Ikerketa honen diseinuak ulermen eta mintzamen ariketak ditu. Partaideek araua zuzen ikasi dutela ziurtatzeko bi ariketa moten portaera emaitzak aurkezten dira. Hala ere, ikerketaren interesa gramatika epaiketean dagoenez MEG analisia soilik ulermen bloketan egin zen.

MaxFilter 2.2 erabilita MEG datuak Espazio Seinale Banaketa tenporalarekin (temporal Signal Space Separation tSSS) iragazki ziren lau segunduko denbora leihoa

eta 0.98ko korrelazio minimoa erabiliz. Partaide bakoitzaren buruaren jatorria eta sensore zaratatsuen zerrenda eskuz markatu ziren, datuen lagintze-abiadura 250 Hz-ra jaitsi zen eta linea elektrikoaren frekuentzia (50 Hz) eta honen harmonikoak iragazki ziren. MRC Cognition and Brain Science Unitek duen MEG laborategiaren gomendioak jarraituz, lagintze-abiadura jaitea eta iragazketa bi pausu ezberdinetan egin zen, softwareak duen akats baten ondorioz datuen kutsadura ekidizteko (http://imaging.mrc-cbu.cam.ac.uk/meg/Maxfilter_V2.2). Partaide bakoitzaren buruaren kokalekua, kokaleku lehenetsira transformatu zen, partaide eta blokeen artean buru kokaleku amankomuna zegoela ziurtatzeko. Batzbetse, lehen egunean buruen posizioak 20.4mm (std=6.65) aldatu ziren eta bigarren egunean 22.8 mm (std=5.01). Datuak Fieldtrip tresna erabiliz prozesatu ziren (20141202 bertsioa, Oostenveld et al., 2011). Lehenik, datuak segmentatuak izan ziren. Segmentuaren hasiera entsaioaren hasierakin lotu zen. Datuak 4 segunduko luzerako segmentutan banatu ziren, segundu 1 entsaio hasiera baino lehen eta 3 segundu hasieraren ostean.

Ondoren, artefaktuak bilatzeko datuak ikuskatu ziren: z-balioa 20 tik gora zuten segmentuak automatikoki baztertuak izan ziren. Segmentu bakoitza 12 segundutara iritsi arte zero-betegarriekin luzatu zen. 40 Hz-tan ezarritako behe-paseko FIR iragazki bat (zero-faseko pasada bakarra) erabili zen, eta 200 ms-ko (-200 - 0 ms) erreferentzia zuzenketa egin zen.

Datuak Konponente Independenteen Analisisa (ICA) algoritmoa erabiliz deskonposatu ziren. Konponente kopurua, gradiometro kopurura berdindu zen (204) eta analisi honen aurretik ez zen dimentsio murrizketa algoritmorik erabili. fastICA algoritmoa erabili zen konbinatu gabeko gradiometrotan (204 sensore). Ondoren, ICA konponente bakoitza HEOG; VEOG eta EKG seinaleekin korrelatu zen. Hiru desbideratze tipikotik gorako korrelazioa erakutsi zuten konponenteak baztertu egin ziren eta, ondoren, konponenteak jatorrizko sensore espaziora transformatu ziren.

Denborari-lotutako analisisa

Konbinatu gabeko sensoreetan egoera bakoitzeko (urraketa/kontrola) entsaioen batezbestekoa kalkulatu zen. Batezbestekoak kalkulatu ondoren, gradiometro planarrak konbinatu egin ziren. Soilik erantzun zuzenekin lotutako entsaioak erabili ziren gertaera bati lotutako eremuen (ERF) kontrasteetan, Euskarazko aurre-proban izan ezik. Bloke honetan partaideek erantzun zuzen gutxi zituzten eta nahikoa soinu-seinla ratioa (Signal to Noise Ratio, SNR) lortzeko entsaio guztiak erabili ziren (bloke bakoitzean erabilitako batezbesteko entsaio kopuruak 3.3 taulan aurkitu daitezke).

Egoeren arteko ezberdintasunak ausazko mulkoen permutazio analisisa erabiliz aztertu ziren (Maris and Oostenveld, 2007). Bloke bakoitzean (aurre-proba,

Block	Control	Violation
Pre-test BQ	77.8 (1.99)	78.7 (1.8)
Pre-Test SP	73.2 (7)	73.2 (7.4)
Training 1	72.8 (4.7)	70.5 (7.2)
Training 2	69.9 (18.5)	69.9 (18.7)
Training 3	76.4 (3.7)	72.7 (10.8)
Gen-test BQ	74.8 (3.6)	72.4 (6.6)
Post-test SP	73.8 (4.5)	69.1 (14.6)

3.3. taula: Analisisetan erabilitako bateztesbetko (std) ensaio kopurua bloke bakoitzeko.

trebakuntza, orokortze-proba, etab.) urraketa-kontrol konparaketaren mulkoen estatistiken maiztasun-banaketa sortu zen. Sensore eta [-0.2 2.5] s leiho tarteko puntu guztietan t-estatistikak kalkulatu eta algoritmoak sensore mulkoak topatu zituen denboran zehar. Bizilagun deskribapena Fieldtrip-ek eskainitako Neuromag-306 txantiloilan oinarritua zegoen. Datu puntu bat mulko baten parte izateko, $p < 0.05$ (bi aldeko proba eta probabilitate zuzenketa erabiliz) ataka pasa eta gutxienez bi bizilagun izan behar zituen. Mulko baten balore estatistiko bezala, mulko horretako t-estatistika guztien gehiketa hautatu zen (maxsum aukera Fieldtrip-en), eta 1000 permutazioko ausazko proban erabili zen.

Erraztasunagatik, emaitzen irudietan sensore guztien ERF uhinak azaltzen dira. Ondoan dagoen topografiak estatistikoki esanguratsua izan den denbora lehioan urraketa eta kontrol egoeren arteko diferentzia erakusten du. Sensore bat mulkoaren parte bazen leiho horren edozein momentutan (ez du leiho osoan zehar mulkoaren parte izan beharrik), asterisko batekin markatua da.

Iturri analisisia

Minimum Norm Estimate (MNE) (Dale et al., 2000) metodoa erabili zen. MRI egitura irudiak larruazal, gazezur, burmuin eta CSF mintzetan segmentatu zen, eta geruza bakarreko modeloa erabiliz burmuinaren bolumenari eroaltasun balio bat eman zitzaion. Bolumenaren eroaltasun modeloa eta geruza kanoniko kortikalean oinarritutako 5124-puntuko sarea (Fieldtripen eskuragarri) erabiliz leadfilak eraiki ziren. Alderantzizko emaitza kalkulatu aurretik, leadfilak txurituak

izan ziren. Iturrien kobariantza matrizea eskalatu zen ondorengo ekuazioa bete zezan: $\text{trace}(A^*R^*Aff)/\text{trace}(C)=1$ A leadfinla izanik, R iturrien kobariantza eta C zarataren kobariantza. Sareko-erpin bakoitzeko denbora seriea MNE algoritmoa metodoa erabiliz kalkulatu zen, bai lambda eta zarata-lambdahori hiruko balioa zutelarik. Azkenik, iturri denbora seriearen hiru momentuak erpin bakoitzeko norabide indartsuenera proiektatu ziren.

Denboran-mugatutako analisia

Sensoreetan ikusitako efektuetan ze burmuin eremuk egin duten ekarpena ikusteko, analisi estatistikoak iturri espazioan egin ziren ere. Iturri espazioan, ausazko mulkoen permutazio (500 permutazio) analisia erabili zen, sensore espazioan egin zen antzera (Maris and Oostenveld, 2007). Bloke bakoitzean (aurre-proba, trebakuntza, orokortze-proba, etab.) urraketa-kontrol konparaketaren mulkoen estatistiken maiztasun-banaketa sortu zen. Sare-erpin eta sensore mailan esanguratsua izandako denbora leiho tarteko puntu guztietan t-estatistikak kalkulatu eta algoritmoak erpin mulkoak topatu zituen denboran zehar. Bizilagun deskribapena distantzian oinarrituta kalkulatu zen, bi bizilagunen arteko distantzia maximoa 10koa izanik. Datu puntu bat mulko baten parte izateko, $p < 0.05$ (bi aldeko proba eta probabilitate zuzenketa erabiliz) ataka pasa eta gutxienez bi bizilagun izan behar zituen. Mulko baten t-estatistikak gehiketa mulkoaren estatistika balio bezala hautatu zen (maxsum aukera Fieldtrip-en), eta 500 permutazioko ausazko proban erabili zen.

Irudi sinpleak lortzeko asmoarekin, soilik esanguratsuek edo esanguratsu izatetik gertu zeuden burmuin eremuak agertzen dira irudietan. Mulko esanguratsuenik ez zuten blokeetan, p-balore baxuena zuen mulkoa irudikatu da datuen joera ikusi ahal izateko. Hala ere, jakitun gera bloke hauetako mulko ez esanguratsuen interpretazioa kontu handiarekin egin behar dela. Burmuin eremuak Fieldtrip-ek eskainitako AAL atlasean oinarrituta izendatu ziren: lehenik MNI espazioan definitutako AAL atlas analisian erabilitako sarera interpolatu zen. Ondoren mulko esanguratsu bakoitzarentzat maskara bat sortu zen eta maskaran dauden erpin horien izenak interpolatutako atlasetik jaso ziren.

Mugatu gabeko analisia

Iturri espazioan beste analisi estatistiko bat burutu zen. Lehenengo analisiak sensore analisian agertutako efektuen atzean dauden eremuak identifikatze balio duen bitartean, bigarren analisi honek sensore mailan jaso ez diren bestelako efektuak jasotzeko balio dezake.

Mugatu gabeko analisi honetan, ausazko mulkoen permutazio (500 permutazio) analisia erabili zen, sensore espazioan egin zen antzera (Maris and Oostenveld,

	Kontrol	Urraketa
Aurre-proba		
Gaztelera	0.95 (0.94, 0.96)	0.04 (0.02, 0.07)
Euskara	0.28 (0.21, 0.35)	0.67 (0.55, 0.77)
Trebakuntza		
1	0.95 (0.93, 0.97)	0.09 (0.05, 0.16)
2	0.97 (0.95, 0.98)	0.05 (0.02, 0.12)
3	0.99 (0.98, 1.00)	0.03 (0.01, 0.1)
Orokortze proba		
Euskara	0.99 (0.98, 0.99)	0.03 (0.01, 0.09)
Ondorengo-proba		
Gaztelera	0.98 (0.97, 0.99)	0.05 (0.01, 0.14)

3.4. taula: Zuzen emandako erantzunen proportzioa (%95) bloke bakoitzeko eta egoera bakoitzeko (urraketa/kontrola).

2007). Bloke bakoitzean (aurre-proba, trebakuntza, orokortze-proba, etab.) urraketa-kontrol konparaketaren mulkoen estatistiken maiztasun-banaketa sortu zen. Sare-erpin eta [-0.2 2.5]s leihotako puntu guztietan t-estatistikak kalkulatu eta algoritmoak erpin mulkoak topatu zituen denboran zehar. Bizilagun deskribapena distantzian oinarrituta kalkulatu zen, bi bizilagunen arteko distantzia maximoa 10koa izanik. Datu puntu bat mulko baten parte izateko, $p < 0.05$ (bi aldeko proba eta probabilitate zuzenketa erabiliz) ataka pasa eta gutxienez bi bizilagun izan behar zituen. Mulko baten t-estatistikak gehiketa mulkoaren estatistika balio bezala hautatu zen (maxsum aukera Fieldtrip-en), eta 500 permutazioko ausazko proban erabili zen. Nahiz eta emaitzen atalean emaitza guztiak azalduko diren (informaziorik ez ezkutatzeko), Guthrie eta Buchwald (1991)-en oinarrituta eztabaida atalak ez ditu kontuan hartu 10 puntu jarraian baino gutxiago irauten duten mulkoak (hau da, 40 ms). Muga hau erabili izan da EEG literaturan (Murray et al., 2001; Molholm et al., 2002; Kecskés-Kovács et al., 2013; Berger et al., 2014). Irudi sinpleak lortzeko asmoarekin, soilik esanguratsuak edo esanguratsu izatetik gertu zeuden burmuin eremuak irudikatu dira. Mulko esanguratsuenik ez zuten blokeetan, p-balore baxuena zuen mulkoa irudikatu da datuen joera ikusi ahal izateko.

	Singularra	Plurala
Trebakuntza		
1	0.96 (0.94, 0.98)	0.97 (0.91, 0.99)
2	0.98 (0.97, 0.99)	0.98 (0.94, 1.00)
3	0.99 (0.98, 1.00)	0.99 (0.93, 1.00)
Orokortze proba		
Euskara	0.99 (0.98, 1.00)	0.99 (0.89, 0.99)
Post-test		
Gaztelera	1.00 (0.99, 1.00)	0.99 (0.92, 1.00)

3.5. taula: Zuzen emandako erantzunen proportzioa (%95) bloke bakoitzeko eta egoera bakoitzeko (aingularra/plurala).

3.3 Emaidzak

Portaera analisisia: Ulermen trebakuntza eta proba

3.4. taulak bloke bakoitzean, egoera bakoitzeko (kontrol/urraketa), zuzen emandako erantzunen proportzioak (%95 CI) adierazten ditu. Euskarazko aurre-proban kenduta, bloke guztietan partaideek bi sintagma motak modu egokian bereizi zituzten. Gramatikalki zuzen ziren estimuluak 0.95-ko baino ratio altuagoarekin identifikatu eta ia urraketa gehienak baztertu zituzten. Euskarazko aurre-proban, ordea, gramatikalki zuzenak ziren sintagmetatik soilik 0.28a antzeman zituzten eta okerrak ziren sintagmen 0.67a zuzenak bezala klasifikatu zituzten. Ondorioz, partaideen erantzunen asmatze kopurua zorian izan daitekeena baino baxuagoa izan zen, beste blokeetan ia goi-muga jotzen duen bitartean (emaitza hauek 3.4 atalean sakon eztabaidatzen dira).

Portaera analisisia: Mintzamen trebakuntza eta proba

3.5. taulak bloke bakoitzean, egoera bakoitzeko (singularra/plurala), zuzen emandako erantzunen proportzioak (%95 CI) adierazten ditu. Bloke guztietan, partaideek gramatikalki zuzen edo oker bezala katalogatu ziren sintagmak sortu zituzten. Sintagmak katalogatzeko soilik gramatika izan zen kontuan, eta mintzameneko beste aspektuak (ahoskera, lexikoa...) baztertu ziren. Bai sintagma singularrak eta bai sintagma pluralak 0.96-ko ratioarekin zuzenki sortu zituzten (ikus 3.5 taula).

MEG datuak: Ulermen trebakunzta eta proba

Denborari-lotutako analisia


3.3. irudiak ERF analisiaren emaitzak irudikatzen ditu (bloke bakoitzean erabilitako entsaio kopuruak 3.3 taulan agertzen dira). Gaztelerazko aurre-proban (3.3b irudia) urraketa eta kontrol sintagmen hasieran ez da ezberdintasunik ageri. Soilik puntu kritikoa igarotzean hasten dira ezberdintzen bi egoerak, urraketa sintagmek anplitude handiagoko erantzuna dutelarik. Bi egoeren arteko ezberdintasunak segundu 1 inguruko iraupena du. Hala ere, analisi estatistikoak ezberdintasuna denbora leiho txikiago batean sostengatzen du soilik. Analiaren emaitzetan mulko bat ageri da puntu kritikoa pasa eta 240 eta 600 ms artean. Mulkoak bi hemisferioetako atzekaldeko sensore eta sensore tenporalez osatua dago (clusterstat=6686; $p<0.002$).

3.3a irudiak Euskarazko aurre-proban bai urraketa eta bai kontrol sintagmentzat antzeko erantzunak egon zirela erakusten du. Anali estatistikoak ez du mulko esanguratsurik topatu (clusterstat<250; $p>0.2$).

Trebakunzta blokeei dagokienez, hiru blokeetan urraketa eta kontrol sintagmen erantzunek ez dute puntu kritikoa baino lehenago ezberdintasunik erakusten. Puntu honen ondoren urraketa sintagmek anplitude handiagoko erantzunak erakusten dituzte eta ezberdintasun honek 100 ms inguru irauten ditu. Denbora domeinuan hiru blokeek erantzun antzekoak erakusten dituzten arren, domeinu espazialean blokeetan zehar bilakaera bat dago. Lehenengo trebakunzta blokean (ikus 3.3c irudia) efektua ia sensore guztietan zehar banatua dago, egoeren arteko diferentzia handiena eskuin sensore-frontalez eta ezker atze-tenporal sensorez osatutako talde batean aurkitzen delarik, puntu kritikoa pasa eta 29 eta 126 ms artean (clusterstat=966.5; $p=0.004$). Bigarren trebakunzta blokean (ikus 3.3d irudia), efektua ez zegoen hain sakabanatua eta nagusiki ezker hemisferioan ageri zen, puntu kritikoa pasa eta 0 eta 142 ms artean (clusterstat=1422; $p=0.002$). Azkenik, hirugarren trebakunzta blokean efektua ezker eta eskuin sensore tenporaletan kokatu zen puntu kritikoa pasa eta 50 eta 142 ms artean (clusterstat=375.5; $p=0.048$).

Euskarazko orokortze proban (ikus 3.3g irudia) topatutako erantzuna hirugarren trebakunzta blokean topatutakoaren oso antzekoa da: efektuaren magnitudea mantendu egin zen eta efektuaren topografiak bi hemisferioetako sensore tenporalak hartzen zituen. Anali estatistikoak eskuin sensore temporalez osatutako mulko esanguratsu bat erakutsi zuen puntu kritikoa pasa eta 50 eta 150 ms artean (clusterstat=1220; $p=0.008$).

Azkenik, Gaztelerazko ondorengo-probak (ikus 3.3h irudia) Gaztelerazko



3.3. irudia: Marraztutako uhinek sensore guztien batazbesteko ERFak irudikatzen dituzte, lauki grisek mulkoa estatistikoki esanguratsua diren denbora leihoak adierazten dituzte eta topografiek denbora-leiho horretan ematen den urraketa eta kontrol egoeren arteko diferentzia gordina irudikatzen dute. Irudi sinpleak lortzeko asmoarekin, p-balore baxuena duen mulkoa aurkezten du. Uhin urdinak, kontrol egoerari dagozkie, uhin gorriak urraketa egoerari eta marra berdeak puntu kritikoari dagozkie. Blokeak burutu egin ziren ordenean agertzen dira (a-h), irudien eskalak azaltzen direlarik (e).

aurre-probaren patroia ezberdin bat erakutsi zuen. Bi egoeren arteko diferentzia aurre-proban baina beranduago ageri zen eta diferentziaren magnitudea txikiagoa zen. Gainera, diferentzia topografia nahiko sakabanatua izan arren, diferentzia eskuin kopeta-sensoreetan kokatu zen. Analisi estatistikoak deskribatutako efektuarekin bat egiten zuen mulko esanguratsu bat azaltzen du, puntu kritikoa pasa eta 586 eta 736 ms artean, bereziki eskuin aurrealdeko sensoreez osatua (clusterstat=1514; $p < 0.002$).


Iturri analisia

Denboran mugatutako analisia

3.4 irudiak denboran mugatutako (MNE iturri berreraikitzearen emaitzen) iturri analisi estatistikoaren emaitzak laburbiltzen ditu. Bloke bakoitzaren izen azpian ageri diren zenbakiak analisia mugatzeko erabilitako denbora-leihoak adierazten dituzte (sensore analisian oinarrituta). Lehenengo zutabeak mulkoaren iturri kokalekuak erakusten ditu. Erdiko zutabeak, denbora leiho horretan iturri mailan kontrol eta urraketa egoeren diferentzia gordina erakusten du. Eskubiko zutabeak mulkoaren informazio estatistikoa irudikatzen du. Burmuin eremu guztien izenak AAL atlasetik jasoak dira.

Gaztelarazko aurre-proban (ikus 3.4 irudiko lehenengo laukia), urraketa eta kontrol sintagma konparatzen dituen analisi estatistikoak bilateralki sakabanatutako sare batez osatutako mulko estatistikoki esanguratsu bat erakusten zuen (clusterstat=6218; $p=0.004$). Burmuin sareak eskuineko goikalde motor eremua, eskuin goi-aurrealdeko eremua eta bi hemisferioetako lobulu parietala (goi-parietal zirkunboluzioa eta arteka zentralaren aurre eta ondorengo zirkunboluzioak), lobulu frontala (orbitalis, opercularis eta triangularis), lobulu tenporala (Heschl zirkunboluzioa, erdi eta goi zirkunboluzio tenporalak eta erdi eta goi polo tenporalak), parieto-okzipital eremuak (zirkunboluzio angularra eta supramarginala), fusiformea eta erdialdeko lobulu okzipitalak jasotzen ditu. Mulko honek sensore domeinuan topatutako topografia sakabanatuarekin bat egiten du.

Euskarazko lehenengo trebakuntza blokean (ikus 3.4 irudiko bigarren laukia), analisi estatistikoak nagusiki eskuin hemisferioan kokatutako mulko esanguratsu bat (clusterstat=2176; $p=0.004$) adierazten du. Mulkoa lobulu parietalaz (goikalde motor eremu eta arteka zentralaren aurre eta ondorengo zirkunboluzioak), lobulu frontalaz (erdi eta goi zirkunboluzioak, triangularis eta opercularis), parieto-okzipital eremuez (zirkunboluzio angularra eta supramarginala), lobulu tenporalaz (Heschl zirkunboluzioa, erdi, behe eta goi zirkunboluzio tenporalak eta goi polo tenporala),



3.4. irudia: Denboran mugatutako analisiaren laburpena. Lauki horizontal bakoitzak bloke horren mulko esanguratsua erakusten du (bloke batek mulko esanguratsurik ez duenean, p-balore baxuena duen mulkoa erakusten da). Ezkerreko zutabeak mulkoaren iturri kokalekuak erakusten ditu. Erdiko zutabeak, denbora leiho horretan iturri mailan kontrol eta urraketa sintagmen diferentzia gordina erakusten du. Eskubiko zutabeak mulkoaren informazio estatistikoa irudikatzen du: urdinez ausazko maiztasun-banaketa, eta marra gorriak mulko horren clusterstat balioa adierazten du.

fusiformeaz eta ezker goi motor eremuaz osaturik dago. Patroi hau sensore mailan egindako analisisian topatutako patroiarekin bat dator.

Bigarren trebakuntza blokeari dagokionez (ikus 3.4 irudiko hirugarren laukia), analisi estatistikoak nagusiki ezker hemisferioan osatutako mulko estatistikoki esanguratsu bat (clusterstat=1430; $p=0.004$) azaltzen du. Mulkoak ezker lobulu parietala (goi parietal eremua eta arteka zentralaren aurre eta ondorengo zirkunboluzioak), lobulu tenporala (behe, erdi eta goi zirkunboluzioak), parieto-okzipital eremuak (zirkunboluzio angularra eta supramarginala), eremu goi-okzipitala eta fusiformea biltzen ditu. Patroi honek ere sensoreetan topatutako efektuaekin bat egiten du.

Hirugarren trebakuntza blokean (ikus 3.4 irudiko laugarren laukia), analisi estatistikoak urraketa eta kontrol sintagmen arteko diferentzia ezker hemisferioan osatutako eta estatistikoki ia esanguratsua den mulko batean kokatzen du (clusterstat=357, $p=0.051$). Mulko honek ezker lobulu tenporala (behe, erdi eta goi zirkunboluzioa), fusiformea eta behe zirkunboluzio okzipitala biltzen ditu. Kasu honetan sensore eta iturri analisiaren artean desadostasun txiki bat dago. Sensore mailako topografiak efektua bi hemisferiotako sensore tenporaletan kokatzen du, baina sensore mailako analisi estatistikoak mulkoa eskuin sensoreetan azaltzen duen bitartean iturri mailako analisi estatistikoak ezker hemisferioko ermeutan kokatzen du efektua.

Orokortze probari dagokionez (ikus 3.4 irudiko bostgarren laukia), ez da mulko estatistikoki esanguratsurik topatu. Hori dela eta, bloke honetan egon litezkeen efektuen joerak ulertu ahal izateko, esanguratsu izatetik gertuen dagoen mulkoa deskribatzen da hemen (clusterstat=271; $p=0.19$). Mulko hau ezker lobulu parietalaz (opercularis eta arteka zentralaren aurre eta ondorengo zirkunboluzioak) eta ezker goi motore eremuaz osatua dago. Patroi hau sensore mailan topatutakoarekin bat dator, baina, iturri mailako mulkoa ez da estatistikoki esanguratsua, beraz, interpretazioa kontu handiarekin egin behar da.

Gaztelerazko ondorengo-probari dagokionez (ikus 3.4 irudiko seigarren laukia), analisi estatistikoak nagusiki eskuin hemisferioan osatutako mulko bat azaltzen du (clusterstat=1069; $p=0.012$). Mulkoa eskuin lobulu parietala (arteka zentralaren aurre zirkunboluzioa eta goi motor eremua), lobulu frontala (opercularis, triangularis, orbitalis eta goi zirkunboluzio frontala) eta ezker goi motor eremuak bitzen ditu. Patroi hau sensore mailan topatutako patroiarekin bat egiten du, nahiz eta Gaztelerazko aurre-proban topatutako efektuen patroia ezberdina den.

Mugatu gabeko analisisia

3.5. irudiak mugatu gabeko analisi estatistikoaren emaitzak laburtzen ditu 3.4. irudiaren eskema berdina jarraituz. Hala ere, atal honek ez ditu emaitzak sensore mailarekin konparatzen.

Gaztelerazko aurre-proban (ikus 3.5 irudiko lehenengo laukia), analisi estatistikoak estatistikoki esanguratsuak diren bi mulko erakusten ditu. Lehenengo mulkoa (clusterstat=12614; $p=0.004$) 1.84 eta 2.01 s artean agertzen da eta eskuin parietal lobuluan (supramarginala eta arteka zentralaren aurre eta ondorengo zirkunboluzioetan) eta lobulu tenporaleko goi zirkunboluzioan kokatzen da. Bigarren mulkoa (clusterstat=5619; $p=0.008$) 1.484 eta 1.612 s artean agertzen da ezker lobulu parietalean (behe parietal eremuan eta arteka zentralaren ondorengo zirkunboluzioan).


Lehen trebakuntza blokean (ikus 3.5 irudiko bigarren laukia), mugatu gabeko analisi estatistikoak ez zuen mulko estatistiko esanguratsurik topatu. Esanguratsua izatetik gertuen topatutako mulkoa (clusterstat=1391; $p=0.47$) 924 eta 940 ms artean topatu zen eskuin behe lobulu parietalean (supramarginala, arteka zentralaren aurre eta ondorengo zirkunboluzioetan) eta goi zirkunboluzio tenporalean.

Bigarren trebakuntza blokean (ikus 3.5 irudiko hirugarren laukia), estatistikoki esanguratsuak diren bi mulko topatu ziren. Lehenengo mulkoa (clusterstat=11044; $p=0.002$) 844 eta 944 ms artean topatu zen ezker lobulu parietalean (supramarginala eta arteka zentralaren aurre eta ondorengo zirkunboluzioetan) eta ezker zirkunboluzio angularrean. Bigarren mulkoa (clusterstat=3383; $p=0.016$) 1.044 eta 1.08 s artean topatu zen ezker behe parietal eremuan, supramarginalean eta zirkunboluzio angularrean.

Hirugarren trebakuntza blokean (ikus 3.5 irudiko laugarren laukia), ez zen mulko estatistikoki esanguratsurik topatu. Esanguratsua izatetik gertuen zegoen mulkoa (clusterstat=1410; $p=0.14$) 1.16 eta 1.19 s artean agertu zen ezker lobulu parietalean (behe parietal eremua, supramarginala eta arteka zentralaren ondorengo zirkunboluzioan).

Orokortze-probako blokean (ikus 3.5 irudiko bosgarren laukia), analisiak ez zuen estatistikoki esanguratsua den mulkorik erakutsi. Esanguratsua izatetik gertuan zegoen mulkoa (clusterstat=1391; $p=0.19$) 924 eta 940 ms artean topatu zen eskuin lobulu parietalean (behe parietal eremua, supramarginala eta arteka zentralaren ondorengo zirkunboluzioan).

Azkenik, Gaztelerazko ondorengo-proba blokean (ikus 3.5 irudiko seigarren laukia), estatistikoki marjinalki esanguratsua den mulko bat (clusterstat=1697;



3.5. irudia: Mugatu gabeko analisiaren laburpena. Lauki horizontal bakoitzak bloke horren mulko esanguratsua erakusten du (bloke batek mulko esanguratsurik ez duenean, p-balore baxuena duen mulkoa erakusten da). Ezkerreko zutabeak mulkoaren iturri kokalekuak erakusten ditu. Erdiko zutabeak, denbora leiho horretan iturri mailan kontrol eta urraketa sintagmen diferentzia gordina erakusten du. Eskubiko zutabeak mulkoaren informazio estatistikoa irudikatzen du: urdinez ausazko maiztasun-banaketa, eta marra gorriak mulko horren clusterstat balioa adierazten du.

$p=0.09$) agertzen da 2.33 eta 2.36 s artean ezker lobulu parietalean (behe parietal eremua, supramarginala eta arteka zentralaren ondorengo zirkunboluzioan).

Bi iturri analisisien laburpena

Orokorrean, mugatu gabeko analisi estatistikoak denboran-mugatutako analisiak baino indar estatistiko txikiagoa du. Gainera, bi analisisietako mulkoak zuzenki konparatuz gero, patroï batzuk antzekoak kontsideratu daitezkeen arren mulko gehienek ez dute bat egiten. Irakurleak pentsa dezake bi analisisiek behaketa ezberdinak irudikatzen dituztela eta bata edo bestea aukeratzen lagunduko digun neurgailu bat beharko genukeela. Bi analisisetan lortutako mulkoak sensore mailan topatutako efektuekin konparatzen ditugunean, ordea, mulko guztiak diferentzia gordinaren patroï zati batekin bat egiten dute. Horregatik, analisi bakoitza urraketa-kontrol efektuaren zati ezberdin bati sentikorra dela gerta daitekeela uste da. Ondorioz, bi analisisiek osagarriak diren emaitzak ematen dizkigute, ariketa honen atzean dauden prozesu neuronalak hobeto ulertzeko aukera ematen dutelarik.

3.4 Eztabaida

Hemen azaldutako esperimentuak, ikasle helduek trebakuntza saio eta orokortze probatan gramatika portzio baten numero konmuztadura morfosintaktikoari lotutako ERF uhinak eta hauen iturri kokalekuak ikertzen ditu. Orokorrean, emaitzek ERF uhinak azkar aldatu daitezkeela erakusten dute eta Euskarazko kontrol eta urraketa sintagmen arteko bereizketa trebakuntza ordu gutxien baitan agertu daitekeela erakusten dute. Burmuin osoko analisia irizpide bezala hartuta, urraketa-sintagmen erantzunak ama hizkuntzan erabiltzen diren burmuin eremu antzekoetan agertzen da. Hurrengo azpiataletan blokez bloke eztabaidatzen dira aurkitutako emaitzak eta azkenik eztabaida orokor bat probesten da.

Euskarazko aurre-proba

Partaideek aurre-proban sintagma zuzenak eta okerrak bereizteko zuten gaitasuna zori maila azpitik zegoen: joeraren bat zuen ausaz erantzuten zuten edo sitematikoki estimuluak alderantziz klasifikatzen zituzten. Hasiara batean partaideek zori maila azpitik egoteak logikarik ez duen arren, badirudi partaideek estimuluak azaleko morfologia (eta ez arau morfologikoa) erabiliz klasifikatu zituztela. Guztiz espekulatiboa den arren, izan daiteke Gaztelaniazko ama-hiztunek sintagma bat gramatikalki zuzena bezala onartzea soilik Euskarazko berezko morfologia inflekzioa duelako ('-a' edo '-ak'). Hala ere, ERF uhinetan bi sintagma moten artean

ezberdintasunik ez topatzeak, estimuluen izaera fisikoak (fonologia, prosodia, etab.) sintagmak ezberdintzeko pistarik ematen ez dutela adierazten du.

Gaztelera-zko aurre-proba

Espero zen bezala, bloke honetako erantzunak goi-mugatik gertu zeuden, partaideek ariketari eta azalpenei kasu egiten zieten konfirmatuz. Bi sintagma motekin, urraketa eta kontrol sintagmekin, sorrarazitako ERF uhinek sensore-topografia eta denbora-serie antzekoa zuten, urraketa sintagmekin ERFak anplitude handiagoa zuelarik. Urraketa eta kontrol egoerek ez zuten estatistikoki esanguratsua den ezberdintasunik erakutsi puntu kritikoa pasa eta 240 ms pasa arte. orduan urraketa egoeraren erantzuna indartsuagoa zen segundu batez. Diferentzia nagusiki bi hemisferiotako sensore tenporaletan topatu zen, naiz eta sensore parietal eta okzipital batzuetan ere ageri zen. Sensore-mailako analisiarekin bat eginez, iturri mailako analisisiek efektua nagusiki bi hemisferioetakoa lobulu parietal eta tenporaletan kokatu zuten.

Trebakuntza

Partaideek sintagmak ezberdintzeko gaitasun handia erakutsi zuten lehenengo trebakuntza bloketik hasita, portaera aldaketa honekin bat egiten zuten ERF diferentziak topatu ziren urraketa eta kontrol entsaiotan. Trebakuntzako hiru blokeetan, efektuaren hasiera (puntu kritikoa erreferentzia bezala hartuta) Gaztelera-zko blokean baino lehenago agertu zen, eta efektuaren iraupena ere motzagoa izan zen (150 ms trebakuntza blokeetan eta 360 ms Gaztelera-zko blokean). Trebakuntza bloketik blokeera efektuaren kokalekua aldatu zen.

Portaera emaitzetan oinarrituta, lehenengo bloketik erantzunak goi-mugan zeudenez, ikasketa jada gertatu dela pentsa daiteke eta, beraz, hurrengo trebakuntza blokeek ez dutela ikasketarik isladatzen ondorioztatu daiteke. Hala ere, jakintza bat izan eta jakintza hau esaldiak garatzen diren bitartean denbora errealean erabiltzea gauza bera direla pentsatzea da hau. Uste honen kontra, ordea, ikasleek arauetan oinarritutako jakintza hizkuntzaren denbora errealeko prozesamendura pasa arte denbora behar dutela erakutsi da lehenagotik (McLaughlin et al., 2010).

Lehenengo trebakuntza blokean efektua nagusiki eskuin sensore parietalean topatu zen, nahiz eta ezker sensore tenporal eta atzekaldeko sensore gutxi batzuetan ere ageri zen. Iturri mailako bi analisisiek efektua nagusiki eskuin lobulu fronto-parietalean eta lobulu tenporalean kokatua dagoela adierazten dute. Bigarren trebakuntza blokeari dagokionez, efektua nagusiki ezker hemisferioko sensoreetan

eta eskuin sensore frontal batzuetan aurkitu zen. Iturri mailako analisiak honekin bat egiten duen patroia bat azaldu zuen. Iturri mailan, urraketa egoerak erantzun indartsu bat sorrarazi zuen ezker lobulu tenporal eta parietaletan, eta erantzun apalago bat lobulu okzipitalean. Hirugarren blokean, bigarren blokearen antzera, efektua nagusiki bi hemisferiotako sensore tenporaletan topatu zen. Bloke honetako topografiak, Gaztelerazko aurre-proban aurkitutako topografia gogorarazten du. Bi iturri analisek efektua ezker lobulu tenporalean, behe-zirkunboluzio okzipitalean eta fusiformean kokatzeko joera estatistikoa dute. Hala ere, emaitza hauek marjinalki esanguratsuak dira eta tentuz ibili behar da interpretazio bat ematerakoan. Kasu honetan gainera, sensore mailako analisiarekin desadostasun txiki bat dago. Sensore mailako topografiak bi hemisferiotako sensore tenporaletan kokatzen du efektua. Analisi estatistikoak efektua eskuin sensoreetan babesten duen bitartean, iturri mailako analisiak ezker hemisferioko eremuak azaltzen ditu.

Lehenengo trebakuntza blokeko efektua eskuin eremu frontaletan kokatu zen. Eremu hau akats-sintaktikoetara mugatzen ez den akats antzemateekin lotua izan da lehenagotik (Indefrey et al., 2001). Gainera, HERA modeloan arabera (Habib et al., 2003), eskuin kortex aurrefrontala oroimen berreskuratzearekin lotua dago eta ezker kortex aurrefrontala oroimen kodetzearekin. Bloke honetako efektu nagusia eskuineko eremu frontaletan topatzeak, gramatika ikasketaren hasierako faseetan gramatika epaiketaren oroimen berreskuratze prozesua tartean dela adierazi dezake.

Bigarren trebakuntza blokean efektua ezker-lateralizatua dago nahiz eta eskuineko sensore frontal batzuek urraketa eta kontrol egoeren arteko diferentzia erakusten duten ere. Hirugarren blokeko sensor-mailako topografiak efektua bi hemisferiotako sensore tenporaletan kokatzen ditu, Gaztelerazko aurre-probaren antzera. Iturri analisisian emaitzak ikusterakoan, bigarren blokearen antzera, efektua hizkuntza sarean kokatzen da baina patroia Gaztelerazko aurre-probakoren ezberdina da (gogoratu Gaztelerazko aurre-probak efektua bi hemisferioetan kokatzen duela). Aurretik egin diren fMRI ikerketengatik badakigu eremu hauek mintzamenaren ulermenean parte hartzen duen hizkuntza sarearen parte direla (Friederici, 2011). Honen antzera, Davidsonek Holandesa ikasten zuten alemaniarren sintagmen-orden urraketekin lotutako MEG erantzunak ikertu zituen (Davidson and Indefrey, 2009b). Hilabeteetako ikastaro baten ondoren, egin zen datuen iturri berreraikitzeak, urraketa sintagmaren erantzunak ezker hemisferioko sare perisilbikoan anplitude handiagoa zutela erakutsi zuen. Efektu nagusia hizkuntza sarean kokatzeak, H2ko oroimen berriak dagoeneko lexikoa eta gramatika prozesatzen duten eremuetan sortu eta txertatzen direla adierazi lezake; eta ez beste prozesu kognitiboetaz arduratzen diren eremu baztertuetan.

Hala ere, nahiz eta hauek hizkuntzarekin lotutako burmuin eremuak izan, bloke

hauetan topatutako efektuak estatistikoki marjinalki esanguratsuak direla soilik eta, gainera, Gazteleran topatutako efektuen ezberdinak dira (gogoratu Gaztelerazko aurre-probak efektua bi hemisferioetan kokatzen duela). Posible da partaideek lehenengo blokean baino prozesu automatikoagoak erabiltzea ariketa gauzatzeko. Hala ere, erantzuna H1an izaten den erantzunaren ezberdina izanik (anplitudea handiagoa da gaztelerazko erantzunean), izan daiteke sorrarazitako erantzunaren anplitude ezberdintasunak gaitasun ezberdintasunak isladatzea.

Azkenik, bloketik blokeera topatutako ezberdintasunen azalpen posible bezala, MEG seinalearen aldakortasun intrinsikoa ezin da baztertu. Portaeran emandako emaitzak goi-mugan zeuden arren, urraketa efektua magnitude txikiagokoa eta laburragoa zen Euskaraz Gazteleraz baino. Diferentzia txikiak aldakortasun estatistiko handiarekin lotuak daude, beraz, bloketik blokeera topatutako ezberdintasunek efektuaren aldakortasuna isladatu dezakete.

Orokortze proba

Partaideek hiru trebakuntza blokeetan partaideek erakutsi zuten erantzun zuzenen maila orokortze proban mantendu zuten. Proba honetan erabilitako estimuluak izen eta adjektibo berriez (orain arte frogan azaldu gabeko) izen eta adjektiboez osatuta zeuden. Proba honen bitartean partaideek ez zuten beraien erantzunen zuzentasunaren inguruko informaziorik jaso. Beraz, badirudi partaideak trebakuntzan ikasitako araua sintagma berrietara orokortzeko gai izan zirela.

Bloke honen adierazle neuronalei dagokienez, denborari lotutako analisiak ERF efektuaren hasiera aurreko blokeen hasierekin bat egiten duela erakusten du. Efektuaren magnitudea bigarren eta hirugarren blokeetan eta Gaztelerazko aurre-proban topatutako efektu magnitudeen antzekoa da. Efektuaren topografia bi hemisferiotako sensore tenporaletan aurkitu zen, trebakuntzako hirugarren bloke eta Gaztelerazko aurre-proba blokeen antzera. Hala ere, iturri analisiek ez zuten efektu esanguratsurik azaldu. Datuen joerak efektua Gaztelerazko aurre-proban agertzen diren eremu batzuetan kokatuko luke efektua: ezker lobulo parietala (opercularis, arteka zentralaren aurre eta ondorengo zirkunboluzioak), lobulu tenporala (behe, erdi eta goi zirkunboluzioak) eta eskuin behe parietal eermua, supramarginala eta arteka zentralaren ondorengo zirkunboluzioa. Bloke honetako efektuak indar estatistikoki txikia duela eta, ezin da ondorio sendorik atera.

Bloke honetan bi neurgailuk (portaera eta sensore mailak) Gaztelerazko aurre-proban topatutako patroi antzekoak erakusten dituzte, manipulazio morfosintaktikoen erantzunak ikasketa prozesuaren hasieran ere H1en patroietara

moldata eta hitz berrietara orokortu daitezkeela adieraziz. Nahiz eta estatistikoki esanguratsuak ez izan, bi iturri analisiek H1-en antzerako patroia bat erakusten dute. Hala ere, Euskarazko efektua Gaztelerazkoa baino lehenago agertzen da. Paradigma mota hau ez da oso ikertua izan Euskarazko materialekin, beraz, zaila da aurreko ikerketetako denborekin konparatzea. Izan daiteke, berez, Euskarazko eta Gaztelerazko urraketa erantzunen denborak berdinak ez izatea. Ez dugu uste topatutako efektuak estimuluek eraginda direnik, Euskarazko aurre-proban ez bait zen egoeren arteko ezberdintasunik atzeman. Gainera, efektuaren hasiera denbora oso antzekoa da trebakuntza bloke eta orokortze probetan. Honek topatutako ezberdintasunak urraketa kontrol efektu bat direnaren segurtasuna ematen digu. Hala ere, ikerketa gehiago behar da ziurtatzeko ea iturri mailako efektu falta indar estatistikoaren eragina den edo efektua orokortze proban mantentzen ez delako den ulertzeko.

Gaztelerazko ondorengo proba

Portaera emaitzek partaideek proba ondo egin zutela erakusten dute, Gaztelerazko aurre-probaren emaitza antzekoak lortuz, espero zen bezala.

Espero ez bezala, ERF analisiek ezberdintasunak erakutsi zituzten Gaztelerazko aurre eta ondorengo proben artean. Ondorengo probako efektua nahiko beranduago hasi zen (580 ms puntu kritikoaren ondorean, 240 ms orde) eta soilik 150 ms iraun egin zituen (aurre-probako efektuak 360 ms iraun zituen). Gainera efektuaren magnitudea apalagoa zen eta topografia ezberdina. Ondorengo-probako efektua nagusiki eskuin sensore frontaletan kokatu zen, nahiz eta, ezker sensore tenporal gutxi batzuetan ageri zen ere. Denboran mugatutako iturri analisiak eskuin eremu frontaletan kokatzen du efektua, mugatu gabeko analisiak berriz, urraketa-kontrol efektua ezker parietal eremutan eta denbora leihoko ezberdin batean kokatzeko joera erakusten du.

Gaztelerazko aurre eta ondorengo proben arteko ezberdintasunentzat azalpen ezberdinak daude. Gaztelerazko ondorengo proba saioko azkenetako blokeetako bat zen eta partaideak nekatuta egon zitezkeen. Nahiz eta erantzun zuzena eman, erantzun hori lortzeko bidea ezberdina izan liteke. Beste azalpen posibleago bat, topatutako ezberdintasunak aldaketa efektu bat izatea liteke. Bigarren saioan partaideak trebakuntza eta orokortze proba egin zituzten Euskaraz. Beraz, partaideak Euskaraz ordubetez murgilduta egon ondoren, ariketa berdina inhibititu-berri zuten beraien H1an burutu behar zuten. Hala ere, esperimentu hau gramatika arau baten ikasketa prozesua aztertzeko diseinatua dago eta ez egoera konkretu honi erantzun bat emateko, beraz diseinuak ez gaitu baimentzen azalpen bat edo beste aukeratzen.

Aurrerantzean egingo diren ikerketetan, deskantsu baten ondoren bigarren Gaztelera bloke bat burutu beharko litzateke azalpen garbiago bat izateko.

Eztabaida orokorra

Portaera emaitza eta emaitza elektrofisiologikoetan oinarrituz, gramatika arau bat indibidualki erakutsia denean, trebakuntza intentsiboko paradigma batean, ikasketa prozesua azkar gertatu daitekeela aurkitu da (ordu batzuen baitan). Gainera, ikasketa hau aldaketa H1-ra gerturatzen diren neuronalez lagundua dago, aurreko ikerketetan erakutsi izan den bezala (Davidson and Indefrey, 2009a,b, 2011; Mueller et al., 2005, 2007, 2008). Hala ere, emaitza hauek, ikasleen eta ama-hiztunen burmuin erantzun berdinak topatzen dituzten beste ikerketa batzuekin kontraesanean daude (Pakulak and Neville, 2011; Meulman et al., 2014; Díaz et al., 2016). Emaitza ezberdin hauek azaltzeko aurkezten den hipotesia hurrengoa da: trebakuntza paradigmek ikasketa prozesu hasierako prozesuak jasotzen dituzte, eta hauek epe-luzeko paradigmek jasotzen dituzten dinamiken ezberdinak izan daitezke, Gainera, badaude ama-hiztunen eta ikasleak konparatu dituzten ikerketak non ikasle helduek ez zituzten ama-hiztunen patroik antzekoak erakutsi (Kotz et al., 2008). Morgan-Shorten arabera (Morgan-short et al., 2010) ama-hiztunen eta ikasleen arteko ezberdintasunak ez datoz soilik ikasleen adinak eraginda, beste faktore askoren interakzioen eraginez baizik, adibidez, adina, hizkuntza maila edo trebakuntza mota (ikus ere Caffarra et al., 2015). Osterhoutek beste interpretazio bat eman zien ezberdintasun mota hauei (Osterhout et al., 2006). Bere ustez, ezberdintasun hauek trantsizio fase bat isladatzen dute non ikasleek ez dira hizkuntza maila nahikora iritsi H1-en antzeko patroiak erakusteko. Tannerek diferentzia indibidualek H2 jabetzaren fasea isladatzen dutela proposatu zuen (Tanner et al., 2013).

Hemen aurkeztu den esperimientua ikasketa hasieran ematen diren burmuin aldaketak aztertzeko diseinatu zen, eta ez epe-ertain luzeko finkapena aztertzeko. Muga hau kontuan izanik, diseinu honek ez du baimentzen Euskarazko ikasleek epe luzean lortuko dituzten patroien ondorio sendo bat ateratzen, beraz ezta hauek Gaztelera dituzten patroien antzekoak izango diren edo ez aurreratzen. Hala ere, uste dugu garrantzitsua dela norabide honetan lan egitea ikasleen eta ama-hiztunen burmuin erantzunen arteko kontraesanak eta ezberdintasunak noiz eta zergatik azaltzen diren hobeto ulertzeko. Adibidez, Meulmanek Holandeseko ikasleek eta ama-hiztunek genero urraketen aurrean dituzten burmuin erantzunak ez direla antzekoak erakutsi zuen (Meulman et al., 2014). Diazen ustez horrelako ezberdintasunak hizkuntzen arteko distantziarekin lotuta daudela proposatu zuen (Díaz et al., 2016). Gaztelera ama hiztunak aztertu zituzten, batzuek Euskara

bizitzan goiz ikasi zuten beste batzuek beranduago. Subjektu-aditz konmuztadura (H1 eta H2an existitzen da) eta objektu-aditz konmuztadura (konmuztadura bietan existitzen da baina, konmuztadura zehatz hau soilik H2an) eta ergatibo konmuztadura (soilik H2an existitzen da) urraketak zituzten esaldiak erabili zituzten. Partaideen Euskara jabetze adin guztietan efektu bera topatu zen: soilik H2an existitzen zen hizkuntz ezaugarrian, burmuin erantzunak ama-hiztunen erantzunen ezberdinak ziren.

Nahiz eta lan honetan 'arau bakarreko gramatika ikasketa' aztertu den, lan honen aurkikuntza nagusia gramatika ikasketaren adierazle anatomikoak aurkeztzen dituela da. Hizkuntzaren azpi-sistema ezberdinak eremu kortikal ezberdinetan oinarritzen direla eta eremu bakoitzak bere plastikotasun profil ezberdina duela proposatu izan da (Sanders et al., 2008). Sintaxia eta fonologia heldutan ikasiak izateko arazo gehien aurkeztzen duten azpi-sistemak izateagatik ezagunak dira. Ikerketa batzuek fonologia ikasketaren iturri berreraikitzeak aurkeztu dituzten arren (laburpen baterako ikus Zhang and Wang, 2007), literaturan gramatika ikasketaren hasierako faseen adierazle anatomikoak ikertu dituzten lan gutxi aurkitu daitezke (Davidson and Indefrey, 2009b; Hultén et al., 2014).

Amaierako jabetza oraindik eztabaidatua den arren, azken ikerketek ama-hiztunen eta denbora epe luze batez hizkuntzarekin harremanetan egon diren ez-ama-hiztunen arteko konparaketetan zentratu dira (Meulman et al., 2015; Hanna et al., 2016; Sung et al., 2016; Díaz et al., 2016; Johnson et al., 2016). Hala ere, horietako gutxik erabili dute iturri berreraikitzea ahalmentzen zuen teknikaren bat (Hanna et al., 2016). Hemen aurkeztutako lanak, gramatika ikasketa bitartean burmuinaren dinamikak definitzea eta partaidearen H1 eta H2 erantzunak deskribatzea posible dela erakusten du.

Trebakuntza blokeak aztertzean, azkeneko bietan patroia amankomuna topatu daiteke: kontrol eta urraketa egoerek sorrarazitako aktibitatea ezker hemisferioan topatu zen, zehazki ezker lobulu tenporalean (behe, erdi eta goi zirkunboluzioetan), parietal lobuluan (supramarginala, arteka zentralaren aurre eta ondorengo zirkunboluzioetan), ezker zirkunboluzio angularrean, nahiz eta hau ez zen lehengo blokearen kasua (aurrerago azaltzen da). Ez daude heldutan emandako gramatika ikasketaren inguruan MEG teknikarekin egindako ikerketa asko. Holandesa ikasten zuten alemaniarrek sintagma-ordenaren urraketari sorrarazitako MEG erantzunak aztertu zituen Davidson and Indefrey (2009b)-ek. Bertan egindako iturri berreraikitzeak hilabeteetako ikastaro baten ondoren ezker hemisferioko sare periselbikoak (behe frontal eta ezker lobulu tenporala) erantzun anplitude handiagoa erakutsi zuen urratze egoeran. Honetaz gain, (Hultén et al., 2014)-ek ama-hizkuntza Finlandesa zuten partaideak objektu konmuztadura lantzen zuen

hizkuntza miniaturizatu artifizial batean trebatu zituen. Lau eguneko trebakuntzaren ondoren, partaideak mintzamen ariketa bat egin behar zuten MEG seinaleak grabatu bitartean. Konmuztadurak sorrarazitako erantzunaren indarra modulatu zuen ezker goi kortex tenporalean eta eskuin okzipito-tenporalean. Orain deskribatutako patroia amankomunetaz gain, tesi honetako esperimentu honetan trebakuntza bitarteko aldaketak topatu zirenera, hau da, bloke bakoiztean eremu ezberdinetako aktibitatea nagusitu zen.

Lehenengo trebakuntza blokean topatutako sorrarazitako aktibitatearen patroiak, beste Euskarazko blokeetan topatutako patroien oso ezberdinak dira. Azken blokeetako patroiek Gaztelaniazko (H1) patroiak gogorarazten dute. Zehatzago, lehenengo trebakuntza blokeko iturri berreraikitzeak sorrarazitako aktibitatea ezker sare periselbikoan kokatzen du bai urraketa bai kontrol egoeratan. Hala ere, hurrengo Euskarazko blokeetan ezker sare periselbikoko sorrarazitako aktibitate altuagoa soilik urraketa egoeratan topatu zen. Nahiz eta hau topatutako patroia orokorra izan, analisi estatistikoek ez dute patroia osoa sostengatzen, burmuin eremu batzuk soilik. Sarreran aipatu den bezala, lan hau ikerketa esploratorioa da. H2 ikasketako prozesuko hasierako faseak ikertu gabe daudenez, zaila da aurreikusten zein burmuin eremurik izango duten garrantzia prozesu hauetan eta ezin dugu analisia eremu konkretu batzuetara mugatu. Ahal dela, lan honetan topatutako adierazle anatomikoak hurrengo ikerketetan hipotesi zehatzago bat eraikitzen lagunduko dute eta beraz, berrespen analisi klasikoagoak egiteko aukera izango da.

Davidson and Indefrey (2009b) lanean, sare periselbikoaren barruan efektuaren kokalekua aldakorra zen MEG saioaren arabera (Holandes ikastaro baten bi aste edo hiru hilabete pasa ondoren). Hasierako saioetan efektua ezker goi eremu tenporaletan kokatu zen, hemen aurkeztutako erantzunen antzera. Trebakuntzako lehenengo blokeak, urraketa egoeran kontrol egoeran baino sorrarazitako aktibitate handiagoa erakusten du eskuin zirkunboluzio supramarginalean, baino beste blokeetan eremu honetako aktibitatea ez du egoerak modulatu. Indefrey (2006)-ek H2 prozesamenduaren inguruan egin zuen fMRI ikerketen laburpenaren arabera, ariketa burutzeko esfortzua faktore bat izan daiteke. Adibidez, hasierako Euskarazko blokeen eta Gaztelaniazko blokearen arteko ezberdintasunak ariketa egiteko behar den esfortzuaren isla izan daitezke, eta trebakuntza ondorengo H1 eta H2ren arteko antzekotasunak partaideek ariketa modu efektiboago batean egiten ikasi dutenaren isla izan daiteke. Indefrey (2006)-ek H1 eta H2 prozesamendu sintaktiko bitartean topatzen diren BOLD seinaleen ezberdintasunak deskribatu zituen, bereziki erabaki metalinguistiko bat behar dituzten ariketak. Morfema inflekzioa aztertzen zuten ikerketek trebakuntza izan ondoren (2 hilabete), ezker atzealdeko IFG eremuan, H2 morfemari erantzunez, trebakuntza aurretik baino

aktibazio altuagoa erakusten zuen eta eremu hau H1 prozesatzeko eremuarekin koinziditzen du. Ikerketa bera trebakuntza luzeago bat (6 urte) izan zuten partaideengan burutzerakoan eremu honetako BOLD seinalea ahulagoa zela topatu zuten. Indefreyren arabera eremu batek ariketa linguistiko batean parte hartzen duenean, hasieran aktibitate neuronal altuagoa erakusteak ariketa honetan jarritako esfortzua isladatzen du. Trebakuntza urteen ondoren aktibitate ahulagoak ariketa modu efektiboago batean prozesatzen dela isladatu dezake. Modu antzeko batean, tonu eta fonetika ikasketa ikerketa laburpen batek (Zhang and Wang, 2007), gaitasunean topatzen diren hobekuntzak ezker hizkuntza sarearen BOLD seinale handiago batekin lotuta daudela erakutsi zen. Bestalde, epe-luzeko ikasketaren ondoren, ikasleek BOLD seinale ahulagoa erakusten zuten. Egileen arabera, patroï aldaketa hauek ikasketarekin adierazpen kortikalak aldatu daitezkeela adierazten dute.

Ondorioz, lehenengo trebakuntza bloketik hurrengo blokeetara sorrarazitako aktibitatearen iturri berreraikitzean topatutako aldaketek Indefrey (2006) eta Zhang and Wang (2007) lanek azaldutako aldaketa progresiboak isladatu ditzakete. Hala ere, lehenago azaldu bezala, bloketik blokerara agertzen diren ezberdintasunak azaltzeko ezin da aldakortasun intrinsikoa baztertu (ikus 3.4 atala). Lan honen helburua aldakortasun honen deskribapen bat ematea da, aurrerago egiten diren ikerketek patroï hauek gramatika arau eta hizkuntza konbinazio ezberdinetan sendoak diren edo ez aztertu dezaten.

Azkenik, esperimentu honetako materialak gramatika zati txiki batez osatuak daude, eta Mueller et al. (2007)-en azaldu bezala ariketa honetako portaera emaitzak goi-mugan egoteak ez du esan nahi 'H2 osatu' batean ama-hiztunak bezala arituko liratekeenik. Arau baten ikasketak (beste arau batzuekin nahasita ikasten denean edo hizkuntzaren beste aspektu batzuekin ikasten denean), ea patroï antzekoak erakusten dituen edo ez aztertu behar da.

3.5 Laburpena

Portaera emaitzek H2 ikasle helduek maila altuak lortu ditzaketela erakusten dute, gutxienez hizkuntza zati txikietan eta gramatika arau sinpleekin. Hala ere, hau hizkuntza miniaturizatu bat da, eta ariketa honetako emaitzak jomugan egoteak ez du H2 hizkuntzan ama-hiztun baten maila adierazten. Lan gehiago behar da ikasleek H2 'osatu' bateko sintaxia nola prozesatzen duten ulertzeko. Honetaz gain, trebakuntza ordu batzuen ondoren H2 prozesamenduan ematen diren erantzun elektrofisiologikoak H1 erantzunen antzekoak direla erakutsi da.

Laburbilduz, trebakuntza epe-motze baten ondoren H2 prozesamenduan aldaketak topatu daitezkeela erakutsi da, eta ondorioz, H2 ikasketa modeloek aldaketa azkar hauek kontuan hartu beharko lituzkete.

4. Kapitulu

Esaldien ulermen esperimentua

4.1 Oinarrizko arrazoia

Kapitulu honek oszilazio kortikalek hizkuntza ikasketan duten eginkizuna aztertzen du, ikasi-berri den hizkuntza bat eta ama-hizkuntza konparatuz. Irakurketarekin alderatuz, gutxi dakigu bigarren hizkuntza bat entzutean gertatzen diren oszilazioetat. Hizkuntza ikasketak eragindako aldaketa oszilatarioak aztertu ziren. Estimulu luzeak erabili ziren, theta (4-8 Hz), alpha (8-13 Hz) eta beta (13-30 Hz) frekuentzia bandetan gertatutako aldaketak irudikatu ahal izateko. Lan honek ama-hizkuntza ingelesa duten eta gaztelaniazko jakintzarik ez zuten partaideetan, Gaztelerazko trebakuntza ordu gutxi batzuen aurretik eta ondoren, MEG erabiliz neurtutako aktibitate induzituaren iturri berreraikitzeak aurkezten ditu.

4.2 Metodo eta Materialak

Adierazpen etikoa

Ikerketa hau Sir Peter Mansfield Imaging Centre-n egingo da eta bertako etika komiteak onartua da. Partaide guztiek idatzizko kontsentimendua eman zuten (Declaration of Helsinki) esperimentua hasi aurretik.

Partaideak

Partaideak irakurketa eta entzumen arazorik ez zuten 18 (6 emakume, 12 gizon) gaztelerazko jakintzarik gabeko ingelesezko ama-hiztun osasuntsu eta eskuinak izan ziren. Oartaideak Peter Mansfield Imaging Centre (University of Nottingham)-en bilatutakoak ziren. Esperimentua hasi aurretik, partaide guztiak interferentzia magnetikoen bila miatuak izan ziren. Bi partaide gehiagoren datuak jaso ziren, baina

analisitik baztertuak izan ziren batek gehiegizko artefakto magentikoak aurkezten zituelako eta bestea trebakuntzaren helburua lortu ez zuelako.

Estimuluak

Hochmuth et al. (2012)-ren lana oinarri hartuta, matrize esaldiak erabili ziren, hiztegi kopuru txiki bat erabiliz esaldi asko eraikitzeke aukera ematen dutelarik. Esaldi bakoitza subjektu (berezko izen bat) eta beste lau hitzez osatua zegoen: aditza, zenbakia, objektua eta adjektibo bat. Hitz kategoria bakoitzak 5 hitz zituen, ondorioz, semantikoki eta gramatikoki zuzenak ziren 625 esaldi berdingabeak eraiki ahal izan ziren ingelesezko eta gaztelerazko egoerentzat ($5 \times 5 \times 5 \times 5 = 625$). Matrize esaldiak erabiliz, hitzak ulergarriak izan arren ezin dira aurreikusitakoak. Honek esan nahi du, esaldi osoa ulertzeko esaldi horretako hitz guztiak ulertu behar direla: trebakuntza saioen ezinezkoa da esaldi osoak memorizatzea.

Beste hiztegi multzo bat erabiliz, ingelesezko beste matrize esaldi sorta bat eraiki zen. Bi esaldi sorta ezberdinak itzulpen efektuak ekiditeko erabili ziren, esperimentuaren diseinu atalean sakonago azaltzen da hau.

Estimuluak soinu-kabina batean Ingelerazko eta Gaztelerazko ama-hiztunak ziren bi emakumek grabatu zituzten. Audioen anplitudea bolumen berdineran ekualizatu zen eta 55 dB-tara aurkeztu ziren, Promold aurikularrak (International Aquatics Trades, Santa Cruz, CA) and EARTONE 3A Insert Earphone transducers (EAR Auditory Systems) erabiliz.


Diseinua eta ariketak

Esperimentua bi egun jarraietan egindako bi saiotan banatuta dago (4.1. irudiak diseinua laburtzen du). Bi eguneko diseinua aukeratzeko bi arrazoi nagusi zeuden. Lehenengoa, trebakuntza fasean jabetutako jakintzaren finkatzea ahalbidetzeko. Bigarrena, partaideek jakintza maila altua lortzeko entsaio kopuru altua behar zelako. Lehenengo saioa (ikus 4.1 irudia, A panela ezkerreko zutabea) 5 blokez osatua dago: hasierako atsedeen blokea, jarraian ingelesezko esaldien entzumena, ondoren gaztelerazko esaldien entzumena, gaztelerazko ulermen-proba bat eta azkenik trebakuntza saioa Gazteleraz. Bigarren saioak (ikus 4.1 irudia, A panela eskuineko zutabea) 4 blokez osatua dago: hasierako atsedeen blokea, jarraian ingelesezko esaldien entzumena, ondoren gaztelerazko esaldien entzumena, gaztelerazko ulermen-proba bat. Hurrengo puntuetan bloke bakoitza zehatzago deskribatzen da.

A

	DAY 1	DAY 2
	Resting State 10 min	Resting State 10 min
	English Listening ~10 min	English Listening ~10 min
	Spanish Listening ~10 min	Spanish Listening ~10 min
	Spanish Test ~20 min	Spanish Test ~20 min
	Spanish Training ~2 h	

MEG blocks
 Behavioural blocks



4.1. irudia: Ikerketaren diseinua. A panelak burututako ariketak zerrendatzen ditu. Ezkerreko zutabeak lehenengo saioan egindako ariketak azaltzen ditu, eta eskuineko zutabeak bigarren saioan egindakoak. Gris ilunean markatutako ariketak MEG grabaketak dituztenak dira. Gris argiz markatutako ariketak portaera ariketak dira. B panelak trebakuntza saioaren detailak aurkezten ditu.

Atsedeen blokea (MEG): Atsedeen egoerako datuak bildu ziren 10 minutuz. Partaideei lasai egon eta begirada atzealde gris batean agertzen zen gurutze txuri batean finkatzeko eskatu zitzaien.

Esaldiak entzuteko proba (MEG): 10 s ko isiltasunaren ondoren, esaldiak launakako taldetan aurkezten ziren (10 s). Bloke bakoitzak 30 entsaio zuten (120 esaldi) eta gutxi gorabehera 10 minutuko iraupena zuen. Saio bakoitzeko, bloke bat Ingeleraz eta beste bat Gazteleraz burutu ziren. ingelesezko lehenengo saioan lehenengo hiztegi multzoko matrize esaldiak erabili ziren, eta bigarren saioan bigarren hiztegi multzoko matrize esaldiak erabili ziren. Bigarren saioan hiztegi multzo ezberdina erabiltzeko arrazoia, behin partaideak trebatuta daudela ingelesetik gaztelerara edozein itzulpen saiakera ekiditeko da, eta Ingelerazko entzutezko garbia jasotzea. Bigarren hizkuntzatik ama-hizkuntzara aldatzeak sortzen duen koste altua ekiditeko (Costa and Santesteban, 2004), beti ingelesezko blokea Gaztelerazko blokearen aurretik aurkeztu zen.

Gaztelerazko ulermen proba (Portaera): Ariketa honetan partaideek banan-banan gaztelerazko 25 esaldi entzun eta hauen ingelesezko itzulpena idatzi zuten. Esaldi bakoitza itzuli aurretik, esaldi hori soilik behin entzuteko aukera izan zuten.

Gaztelerazko trebakuntza (Portaera): Trebakuntza lehenengo saioko MEG grabaketa eta gaztelaniazko ulermen probaren ondoren burutu zen. Trebakuntza saio bakoitza 1.5 - 2 ordu artean iraun zituen. Trebakuntza saioaren egitura Hultenen lanean oinarrituta dago (Hultén et al., 2014), lehenbizi hiztegia sortzen da eta ondoren esaldi osoen ulermenean trebatzen dira partaideak. Horregatik trebakuntza saioa bi blokeetan banatu zen: hiztegi ikasketa eta esaldien ulermena (ikus 4.1 irudia, B panela):

1) Hiztegi ikasketa: Bozgoragailuetatik bost ingelesa-gaztelera hitz bikote (e.g. 'Big - Grandes') aurkeztu ziren. Ondoren, Gaztelerazko hitz berdinak banan banan aurkeztu ziren eta partaideek honen ingelesezko itzulpena esan behar zuten. Une oro emandako erantzunaren inguruko informazioa helarazi zitzaien partaideei. Bi sekuentzia hauek lau aldiz errepikatu ziren hitz bikote multzo bakoitzeko. Prozedura hau gaztelera-ingelesa hitz bikote guztiak aurkeztuak izan ziren arte errepikatu zen (ikus 4.1 irudia, B panela).

2) Esaldien ulermena: Esaldien ulermenenean trebatzeko, hiztegi ikasketaren egitura berdina erabili zen. Bozgoragailuetatik bost ingelesa-gaztelera esaldi bikote aurkeztu ziren. Ondoren, gaztelerazko esaldiak banan banan aurkeztu ziren eta partaideak honen ingelerazko itzulpena esan behar zuen. Une oro emandako

erantzunaren inguruko informazioa helarazi zitzaion partaideari: bai ea itzulpena zuzena edo okerra zen eta gogoratzen ez zituen hitzen itzulpena errazten zitzaion. Esaldi osoa guztiz ondo itzuli arte ez zen beste esaldirik aurkezten. Partaideek bost esaldiz osatutako zortzi bloke burutu zituzten (ikus 4.1 irudia, B panela).

Prozedura

Partaide bakoitzarentzat deskribatutako bloke guztiak grabatu ziren. Grabaketa bitartean partaideei, postura eroso hartu eta erlaxatzeko eskatu zitzaien datu grabaketa bitartean mugimenduak ekiditeko asmoz. Ariketen bitartean begi, buru eta gorputz mugimenduak saihesteko eskatu zitzaien.

MEG datuak partaideak etzanda zeudela, 275 kanaleko CTF MEG (MISL, Coquitlam, Canada) ekipamendu baten berezko softwarean bidez, 600 Hz lagintze-abiadura eta hirugarren gradiometro sistema martxan zela jaso ziren. Grabaketaren aurretik hiru lokalizazio espira kokatu ziren partaide bakoitzaren fiduzialetan.

Buruaren forma (400 puntu inguru) eta hiru fiduzialak digitalizatzeko Polhemus Isotrak (Polhemus, Colchester, VM, EEBB) boligrafo bat erabili zen, burua MEG sensore arrayra koregistratu ahal izateko. Partaideen anatomia bolumetrikoko MR irudiak, 3T MR system (Phillips Achieva, Best, Netherlands) ekipamendua eta MPRAGE sekuentzia erabiliz jaso ziren (1 mm³ zehaztapena). Datu bilketaren ondoren, buruaren gainazala atera eta *surface matching* teknika erabiliz bloigrafoak jasotako buruaren formarekin koregistratu zen. Honek, MEG sensore arrayaren eta burmuinaren anatomiaren koregistratio osoa ahalbidetzen du, alderantzizko eta joanerazko modeloen kalkuluak erraztuz.

Analisiak

Portaera analisiak

Ulermen probak puntuatzeko garaian, zuzenki itzultako hitz bakoitzeko (berezko izenak kontatu gabe) puntu bana jasozten zuten partaideek. Partaideen atalean azaldu bezala, partaide bat baztertua izan zen bere itzulpen zuzenen kopurua ez zelako % 50-ra iristen.

MEG datuak

CTF MEG (MISL; Coquitlam, BC, Canada) ekipamenduak dakarren DataEditor softwarea erabiliz, bildutako MEG datuak 1 eta 150 Hz arteko banda-pasa batekin

iragazki ziren. Linea elektrikoaren frekuentzia (50 Hz) eta honen harmonikoak iragazki ziren ere. Ondoren, artefaktuak antzemateko datuak bisualki miatu ziren. Artefaktu gehiegi edota 5 mm baino gehiagoko buru mugimendua zuten entsaioak baztertu egin ziren. Zehazki, magnetomiograma, magnetokardiograma eta magnetookulograma baten ezaugarriak zituzten entsaioak baztertu ziren. Partaideen atalean azaldu den bezala, partaide bat baztertua izan zen gehiegizko interferentzia magnetikoak erakutsi zituelako. 4.1 taulak, bloke bakoitzean MEG analisisetan erabilitako batezbesteko entsaio kopuruak aurkezten ditu.

	1. Saioa	2. Saioa
Ingelera	26.22 (2.46)	27.33 (3.25)
Gaztelera	26.61 (2.72)	27.5 (3.07)

4.1. taula: MEG analisisetan erabilitako batezbesteko (std) entsaio kopuruak.

Iturri analisia

Aurre-prozesamenduaren ondoren, beamformer iragazki espaziala erabili zen (Van Veen et al., 1997). Horretarako, datuen kobariantza matrizea kalkulatu zen 1-150 Hz frekuentzia leihoa eta esperimendu osoa biltzen duen denbora leihoa erabiliz. Erregularizazioa burutzeko Tikhonov metodoa aplikatu zen, erregularizatu gabeko matrizearen balio propio maximoaren % 5ko parametroa erabiliz. Boxelak burmuin osoa estaltzen zuen 4mm-ko lauki-sare erregular (spatial grid) baten barruan definitu ziren eta joanerako modeloa esfera-lokal-anitzeko metodoa erabiliz kalkulatu zen (Huang et al., 1999). Boxel bakoitzean banda zabaleko seinaleko (1-150 Hz) beamformer iragazkiak kalkulatu ziren. Ondoren, sensore mailako datuak hiru bandatan iragazki ziren: theta (4-8 Hz), alpha (8-13 Hz) eta beta (13-30 Hz). Frekuentzia banda bakoitzeko kobariantza matrizea kalkulatu zen esperimendu osoa biltzen duen denbora leihoak erabiliz. Jarraian, frekuentzia banda bakoitza frekuentzia zabaleko (1-150 Hz) iragazkiak erabiliz iragazi ziren, frekuentzia banda bakoitzeko iturri mailako mapa bat lortuz. Iturri mapak kontrol leiho (Pk) eta leiho aktiboen (Pa) arteko potentzia aldaketa erlatiboa irudikatzen dute: $(Pa-Pk)/Pk$. Frekuentzia banda bakoitzeko potentzia aldaketa nagusiak identifikatzeko, frekuentzia banda bakoitzean All>Null eta Null>All kontrasteak kalkulatu ziren eta hauek $q < 0.05$ (FDR zuzenduak) ataria erbiliz mugatu egin ziren, estatistikoki esanguratsuak diren patroiak identifikatuz.

Bi analisi estatistiko ezberdin erabili ziren: Burmuin osoko analisia eta ROI analisia. Lehenengoak datuen inguruko inferentziak egiten ahalbidetzen du. ROI

analisian, frekuentzia banda bakoitzeko kontraste bat definitu zen estatistikoki esanguratsuak ziren eremuak bilatzeko. Jarraian, eremu hauetan egoeren arteko ezberdintasunak aztertu ziren. Eremu hauek burmuin osoko analisi baten eremu estatistikoki esanguratsuak izanik, egoeren arteko probek estatistikoki esanguratsuak izateko joera erakutsi dezakete. Hala ere, analisi mota hau hurrengo ikerketetan oinarriak ezartzeko baliagarria izan daiteke.

Burmuin osoko analisia

Frekuentzia banda bakoitzeko, burmuin osoko 2 (Hizkuntza: Ingerela/Gaztelera) bider 2 (Saioa: 1. eguna/2.eguna) ANOVAk kalkulatu ziren. Ondoren $q < 0.01$ (FDR zuzenduak) ataria erabiliz ANOVA hauen emaitzak mugatu ziren, estatistikoki efektu esanguratsua zuten eremuak identifikatzeko. Faktore esanguratsuetan, atari estatistikoa biziraundako burmuin eremuetan post-hoc analisiak burutu ziren.

ROI analisia

Interesezko eremuak definitzeko, frekuentzia banda bakoitzean burmuin osoko All>Null eta Null>All kontrasteetan ($q < 0.05$, FDR zuzenduak) ataria erabili zen. Frekuentzia banda bakoitzean definitutako eremu bakoitzean frekuentzia horren batezbesteko potentzia kalkulatu zen eta hauek 2 (Hizkuntza: ingelesa/gaztelera) bider 2 (Saioa: 1. eguna/2.eguna) ANOVAen bitartez aztertu ziren.

4.3 Emaitzak

Portaera analisia

4.2 taulak egun bakoitzean ulermen testean zuzenki itzultako hitz kopuruen batezbestekoak (std) erakusten ditu. Lehenengo egunean partaideek hitz gutxi itzuli zituzten zuzenki, bigarren egunean ordea, zuzenki itzultako hitz kopuruak nabariki gora egin zuen.


	1. Saioa	2. Saioa
Gaztelera	7.94 (6.6728)	81.46 (10.85)

4.2. taula: Zuzenki itzultako hitz kopuruen batezbestekoak (std).

Whole brain contrast

All > Null, Null > All

$q < 0.05$, FDR corrected



4.2. irudia: All>Null (gorria) eta Null>All (urdina) kontrasteak estatistikoki esanguratsuak diren burmuin eremuak ($q < 0.05$, FDR-zuzenduak).


MEG datuak

Iturri analisia


Burmuin osoko analisia

4.2 irudiak, frekuentzia banda bakoitzean, All>Null eta Null>All kontrasteak ($q < 0.05$, FDR zuzenduak) erabiliz identifikatutako potentzia aldaketak erakusten ditu. All>Null kontrasteak, theta bandan bi hemisferioetako eremu okzipital, frontal eta parietaletan eta alpha bandan eremu dorsaletan erakusten ditu potentzia aldaketak. Kontrako kontrasteak, Null>All, alpha bandan bi hemisferioetako eremu tenporaletan eta behe-parietaletan eta beta bandan eskuin erdi-lobulu tenporalean erakusten ditu potentzia aldaketak.

A Whole brain ANOVA



B



4.3. irudia: Burmuin osoko 2x2 ANOVAREN emaitzak. A panelak Hizkuntza faktorearen F mapak ($q < 0.01$, FDR-zuzenduak) erakusten ditu. B panelak A paneleko eremu nagusienetan egindako post-hoc analisiak.

Burmuin osoko ANOVA-ek ($q < 0.01$, FDR zuzenduak) estatistikoki esanguratsuak diren burmuin eremuak soilik Hizkuntza faktore nagusiarentzat topatu zituzten. Theta frekuentzia bandan, hizkuntzak eragindako burmuin aktibitate diferentziak ezker kortex aurre-frontalean aurkitu ziren. Alpha eta beta frekuentzia bandetan, bi hemisferioetako lobulu tenporaletan (ikus 4.3 irudia, A panela). Saioa faktore nagusiarentzat eta Hizkuntza eta Saioa interakzioarentzat ez zen estatistikoki esanguratsua den burmuin eremurik topatu.

Post-hoc analisiak (ikus 4.3 irudia, B panela) ezker kortex aurre-frontalean theta eta alpha potentzia altuagoa erakusten dute gazteleran ingelesean baino ($t = -3.67$; $p < 0.001$ thetan eta $t = -3.01$; $p < 0.001$ alphan). Gaztelerazko blokea ingelesezko blokearekin alderatzean, gaztelerazko blokeetan alpha potentziaren jaitsiera handiagoa topatu zen ezker eta eskuin lobulu tenporaletan, ($t > 2.78$; $p < 0.001$). Beta potentziaren jaitsiera handiagoa topatu zen eskuin lobulu tenporalen Gaztelerazko blokean Ingelerako blokearekin alderatuz ($t = 2.66$; $p = 0.008$). Ezker hemisferioan antzeko joera bat topatu zen ($t = 1.45$; $p = 0.08$).

ROI analisia

Intereseko eremuetan egindako ANOVA-en emaitzak erakusten ditu 4.4. irudiak.

Aurkikuntza orokor bezala, eremu guztiek Hizkuntzaren efektu nagusia erakutsi zuten ($F > 8.86$; $p < 0.004$).

Theta bandaren potentziari dagokionez, bai eremu okzipitalek, bai eremu frontalek theta sinkronizazio indartsuagoa erakutsi zuten Gaztelerazko blokeetan ingelesezko blokeetan baino ($F = 8.86$; $p = 0.004$ eremu okzipitalean eta $F = 11.13$; $p = 0.0014$ eremu frontalean). Bestalde, bi hemisferioetako eremu frontalek eta eskuin lobulu parietalak Saioaren efektu nagusia erakutsi zuten ($F = 6.62$; $p = 0.0123$); baita Saioa eta Hizkuntzaren arteko interakzio bat ere ($F = 6.72$; $p = 0.0113$).


Alpha bandaren potentziari dagokionez, eremu dorsaletan alpha sinkronizazio indartsuagoa topatu zen gaztelerazko blokeetan ingelesezko blokeetan baino ($F = 9.4$; $p = 0.0031$). Bestalde, bi hemisferioetako lobulu tenporaletan alpha desinkronizazio handiagoa topatu zen gaztelerako blokeetan ingelesezko blokeetan baino ($F = 11.52$; $p = 0.0012$ ezker hemisferioan eta $F = 13.94$; $p = 0.0004$ eskuin hemisferioan). Post-hoc analisiek alpha desinkronizazio patroietan joera estatistiko bat erakusten dute: ezker lobulu tenporalean eta behe-parietalean gaztelerazko bigarren saioko desinkronizazioa lehenengo saiokoa baino txikiagoa (eta ingelesezko blokeen antzekoagoa) da ($t = -1.36$; $p = 0.09$). Eskuin lobulu tenporalean ez zen horrelako joera estatistikorik topatu ($t = 0.2463$; $p = 0.37$).

Beta bandaren potentziari dagokionez, Gaztelerazko blokeetan ingelesezko blokeetan baino desinkronizazio handiagoa zen ($F = 11.18$; $p = 0.014$).

4.4 Eztabaida

Esperimentu honen helburua epe-motzeko hizkuntza ikasketak aktibitate oszilatario kortikalean duen eragina aztertzea zen. Iturri berreraikitze teknikak hiru frekuentzia banden erantzun espaziala aztertzeko erabili ziren: theta (4-8 Hz), alpha (8-13 Hz) eta beta (13-30 Hz). Burmuin osoko analisiak kontrol leiho eta leiho aktiboen arteko potentzia diferentziak zehaztu zituen, mintzamenaren ulermenean frekuentzia bandek erakusten dituzten patroio orokorrak eskainiz.

Burmuin osoko analisiak theta eta alpha banden potentziak leiho aktiboan, erreferentzia basean baino altuagoak ziren eremu frontal eta okzipitaletan. Bestalde alpha bandako potentzia txikitu egin zen ezkerreko eta eskuineko lobulu tenporal eta behe-parietaletan. Beta bandaren potentzia txikitu egin zen eskuin lobulu tenporalean. Banda ezberdinek erakusten dituzten potentzia igoera eta jaitsierak literaturan topatutakoekin bat egiten dute, nahiz eta literaturako ikerketek potentzia



4.4. irudia: ROI analisi esploratorioa. Lehenengo zutabeak frekuentzia banda azaltzen du, bigarrenak aztertutako intereseko eremua (ROI), hirugarren zutabeak lau eremuetan eremu horren potentzia azaltzen du eta azken zutabeak ANOVaren emaitzak erakusten ditu.

aldaketa hauen kokalekuetan ez dute adostasunik erakusten (ikus Bastiaansen and Hagoort, 2006, laburpena).

Bi analisietan, eskuin lobulu tenporaleko alpha eta beta potentzia jaitsierak patroï antzekoak erakusten dituzte, bi jaitsiera hauek banda zabaleko efektu bat izan daitezkeela adieraziz.

Theta banda

Theta bandan, erreferentzia basearekiko potentzia igoera aurkitu egin zen bi hemisferioetako eremu frontaletan eta okzipitaletan eta eskuin parietalean. Burmuin osoko ANOVA analisiak ezker kortex frontalean theta sinkronizazioa gazteleraz ingelesez baino indartsuago zela erakutsi zuen. Hizkuntza ulermena aztertu duten aurretiko ikerketek theta sinkronizazioa lexiko berreskuratzearekin lotu izan dute (Lam et al., 2016; Bastiaansen et al., 2008, 2005). Hau oinarri bezala hartuta, aurkitutako theta sinkronizazio ezberdinak lexiko berreskuratzean egon daitezken ezberdintasunak adierazi ditzakete. Bi hemisferioetako eremu frontalean eta okzipitalletan eta eskuin parietalean aurkitutako modulazioak Lam eta lagunek topatutako patroïaren oso antzekoak dira (Lam et al., 2016). Ikerketa honetan, esaldian berandu agertzen diren hitzek, esaldian goiz agertzen diren hitzek baino theta sinkronizazio altuagoa erakutsi zuten eremu hauetan. Patroï honek ariketa kognitiboen eskakizunekin lotutako sare fronto-parietala gogorarazten du eta hori dela eta, lan horren egileek esaldian berandu agertzen diren hitzek eskakizun handiagoa behar izan dezaketela argudiatzen dute, memorian informazio gehiago mantendu behar delako. Hala ere, hemen aurkeztutako esperimentuan partaideek ez zituzten soilik hitzak memorian mantendu behar, baita mintzamenetik segmentatu ere (hitz antzematea eta mintzamen segmentazioa). Izan daiteke hitz antzematea eta mintzamen segmentazioa elkarri lotuta egotea. Ariketa bat ama-hizkuntzan burutzen denean informazio lexiko-semantikoak entzuleak segmentazio lanetan laguntzen ditu (Sanders and Neville, 2000). Gainera, bigarren hizkuntza batean pista lexikoak erabilgarri daude ere (Sanders et al., 2002). Honi lotuta, azken ikerketek mintzamenaren egitura linguistikoen (silabak, sintagmak eta esaldiak) korrelazio neuralak iradoki dituzte. (Ding et al., 2015).

ROI analisi esploratorioak eremu okzipitalek antzeko patroï bat erakutsi dezaketela iradokitzen du: theta sinkronizazio handiagoa gaztelerazko blokeetan ingelesezko blokeetan baino. Bestalde, eremu frontaletan hizkuntza eta saioa faktoreen arteko interakzio posible bat adierazten du analisi honek. Gaztelerako bigarren saiak theta sinkronizazio handiagoa erakusten du lehenengo saiorekin alderatuz gero, baina ingelesezko blokeetan ez da ezberdintasunik ageri. Hala ere, gogoratu behar da emaitza hauek eremu aukeraketak sortuak izan daitezkeela, beraz,

ikerketa gehiago behar da hizkuntza ikasketak thete sinkronizazioan duen eragina aztertzeko.

Alpha eta beta bandak

Burmuin osoko analisiari dagokionez, erreferentzia basearekiko potentzia jaitsiera topatu zen bi hemisferiotako lobulu tenporaletan eta potentzia igoera lobulu fronto-parietal eta okzipitalen eremu dorsaletan. Alpha potentzia jaitsierek zelula piramidalen kitzikakortasun altuko egoerak isladatzen ditzutela uste da, alpha potentzia igoerek kitzikakortasun baxuko egoerak isladatzen dituzten bitartean: inhibizio egoera (Klimesch et al., 2007). Beste batzuek potentzia aldaketa hauek kodifikatzeko gaitasunari egokitzen dizkiote (Hanslmayr et al., 2012): kitzikakortasun altuko egoeratan, zelula piramidalak sinkronia gutxiagoarekin pizten dira, entropia (informazio aberastasun neurgailu bat) igotzen delarik, kodifikatutako informazio kopurua handituz. Kontrako egoeran, kitzikakortasun baxuko egoeratan, entropia txikiagoa da eta kodifikatutako informazioa errepikakorra da (Hanslmayr et al., 2012). Honekin bat eginik, ariketarekin lotutako eremuetan alpha desinkronizazioa (ERD) topatu izan denean, alpha sinkronizazioa (ERS) topatu izan da ariketarekin lotuta ez dauden eremutan (ikus Klimesch et al., 2007, laburpena). Honetaz gain, alpharen eginkizuna informazio aukeraketan aztertua izan da (Zumer et al., 2014). Arreta bisualeko ariketa batean, alpha ERDa topatu zen arreta jarri behar zen objektuarekiko hemisferio kontralateralean eta alpha ERSa hemisferio ipsilateralean. Ondorioz, hemen aurkeztutako lanean topatutako alpha eta beta banden desinkronizazioa informazio prozesamendu egoera bat isladatu dezake, alpha sinkronizazioak inhibizio egoera bat isladatzen duen bitartean.

Hau oinarri bezala hartuz, alpha potentzia jaitsiera eta igoerek bi hemisferioetako lobulu tenporala eta behe-lobulu parietala mintzamenaren prozesamenduan parte hartzen dutela adierazten dute, aurreko ikerketetako modeloekin bat eginik (e.g. Friederici, 2011). Gainera, post-hoc analisek gaztelerak ingelesak baino potentzia aldaketa handiagoak eragiten dituela erakutsi dute. Aurreko ikerketen proposamenak jarraituz, hizkuntza sareko eremuek alpha desinkronizazio handiagoa, beraz informazio prozesamendu handiagoa, erakusten dute Gazteleran (ez ama-hizkuntza) ingelesean baino (ama-hizkuntza). Bestalde saretik kanpo dauden eremuek inhibizio altuagoa erakusten dute gazteleran, ingelesean baino. Honen azalpen posible bat, alpha desinkronizazioa erakusten duten eremuek bateratze sintaktiko eta semantikoa adieraztea da. Nahiz eta nagusiki beta eta gamma bandak izan dira bateratze semantiko eta sintaktikoarekin lotu diren frekuentzia bandak (Bastiaansen and Hagoort, 2006), azkenaldian egindako lanek alpha eta beta desinkronizazioak bateratze semantiko eta sintaktikoaren erlazionatuta daudela proposatu dute (Lam et al., 2016). Lamen arabera, testuinguru indartsuago bat eskaintzen denean

erraztasun efektu batek azalduko luke zergatik eremu batzuk gutxiago hartzen duten parte bateratze prozesuan.

ROI analisi esploratorioak ikasketak bateratze prozesuan parte hartzen duten frekuentzia banda eta burmuin eremuetako aldaketen inguruko ebidentzia mugatuak aurkezten ditu. Ezker lobulu tenporaleko alpha desinkronizazioak aldaketa txiki bat erakusten du lehenengo eta bigarren saioaren artean, baina estatistikek ez dute aldaketa babesten. Ikerketa gehiago behar da hipotesi hau hobeto balioztatzeko.

Bestalde, hizkuntzaren ulermen pasiboa egiten denean eta ariketarik ez dagoenean, alpha desinkronizazioa arreta prozesuak eta portaeraren ondorioak isaladatzen dituela proposatu da (Bastiaansen and Hagoort, 2006), baina ez (derrigorrez) ulermenarekin zuzenean erlazionatutako prozesuak (ikus ere Davidson and Indefrey, 2007). Esperimentu honen kasuan ez dago ariketarik entzumenaren bitartean. Beraz, alpha desinkronizazio indartsuagoak partaideak Gaztelerazko blokean 'sartuagoak' daudela adieraz dezake. Honek, frekuentzia banda guztietan bi hizkuntzen artean topatu diren modulazioen arteko diferentzia handiak azaldu ditzake. Momentu honetan zaila da bereiztea ea topatutako diferentziak ulermenari dagozkion edo arretak eragindakoak diren. Lan gehiago behar da bi egoerak bereizteko. Esperimentu honetan ariketarik ez ezartzeko arrazoa, ariketa batek ulermen prozesuak atzealdeko eremuetara bideratu ditzakeela da (Friederici, 2011). Bideratze hau ez-ama-hiztunetan nola gertatzen den azaltzen duen ikerketarik ez da topatu literaturan. Ariketa batek partaideek arreta jartzen zutela ziurtatuko luke, baina zaila izango litzateke diferentziak nondik datozen jakitea: ea diferentziak ulermenak sortuak diren edota H1ean eta H2an bideraketa ezberdina jasaten delako. Hori dela eta, naturalagoa den entzumen pasiboa aukeratu genuen esperimentu honetarako.

Azkenik, ezin da blokeen ordenaren arazoa zuzenean baztertu. Eztabaida atal honetan aurkitutako efektuak Hizkuntza efektu bezala aztertu diren arren, ezin dugu ahaztu ingelesezko blokea beti gaztelerazko blokearen aurretik egin zela, aldaketa kostua ekiditeko (Costa and Santesteban, 2004). Errazagoa da ama-hizkuntzatik bigarren hizkuntzara pasatzea, bigarren hizkuntzatik ama hizkuntzara pasatzea baino. Horregatik, diseinua kontrabalanzeatuta egongo balitz, gaztelerazko blokeen ondoren burututako ingelesezko blokeetan aldaketa kostu handiagoa izango genuke eta ez zen gehiago ama-hizkuntza entzumen-ulermen erreferentzia garbi bat izango. Hala ere, topatutako emaitzak bloke ordenaren ondorio izanago balira, nekearekin edo estimulu errepikapenarekin topatu ohi diren efektuak ikusi beharko genituzke. Estimulu errepikapena aztertu duten ikerketek, gamma bandaren potentzia jaitziera topatu dute (Grill-Spector et al., 2006). Bestalde, nekea eremu okzipitaletako alpha igoerarekin dago lotua (Von Bünau et al., 2010; Berger, 1929). Ondorioz, esperimentu

honetan topatutako patroiak ez dira bloke ordenak sortua, eta hizkuntza efektu bat direla esan daiteke.

Hizkuntza ikasketari dagokionez, ez da ikasketak eragindako oszilazio aldaketaren ebidentzia indartsurik topatu. Lan honetan aztertutako frekuentzia banden potentziek esaldi osoen erantzuna adierazten dute, mintzamenaren entzumenean gertatzen diren funtzio kognitibo ezberdinak jasotzen dituztelarik (e.g., Friederici, 2011). Honetaz gain, partaideek jaso zuten trebakuntza intentsibo eta espezifikoa, epe-luzean egindako ikastaro batek baino aldaketa apalagoak eragin ditzake. Denbora leiho epe motzago batean egindako analisi bat aldaketa mota hauekiko sentikorragoa izan daiteke.

4.5 Laburpena

Lan honek ama-hizkuntzan eta bigarren hizkuntza batean esaldi ulermenean gertatzen diren oszilazio neuronalen dinamika espazialak aztertu ditu. Ama-hizkuntzan sortutako erantzunak baita hizkuntza berri baten trebakuntza aurretik eta ondoren sortutako erantzunak konparatu ziren. Emaitez theta bandaren potentzia (bi hemisferioetako eremu frontalean eta eskuineko lobulu parietalean) ariketaren eskakizunekin lotutako burmuin eremuetan, sinkronizatu zela erakusten dute. Frekuentzia banda honetan topatutako aldaketek, lexiko berreskurapenak ama-hizkuntza ez den hizkuntza batean eskakizun handiagoa duela erakusten dute. Alpha eta beta bandei dagokienez, diferentzia argia topatu zen ama-hizkuntza eta hizkuntza berriaren artean. Hala ere, erabilitako bloke ordenagatik tentuz interpretatu behar dira diferentzia hauek. Azkenik, ez da ikasketak eragindako oszilazio aldaketarik sostengatu duen ebidentzia indartsurik topatu. Honek, oszilazioak epe-motzeko hizkuntza ikasketa aztertzeke neurgailu desegokia direla adierazi lezake.

5. Kapitulua

H1ean egindako oroimen esperimentua: alfa eta tau erritmoak aztertzen

5.1 Oinarrizko arrazoia

Hizkuntza ikasketak esaldien entzumenean agertzen diren oszilazioetan eragiten dituen aldaketak antzematea zaila dela erakusten du 4. kapituluko esperimentuak. Zailtasun hau, esaldi batean funtzio kognitibo ezberdinak gertatzen direlako gerta daiteke (Friederici, 2011; Hagoort, 2016). Analsiak denbora leiho motzagoetan kontzentratuz gero, oszilazioetan eman litezkeen aldaketa horiek antzematea errazagoa izan daiteke. Kapitulua honetako esperimentuak pausu bat atzera egiten du, eta ama-hizkuntzan (H1) ematen diren oroimen berreskurapenaren mekanismo oszilatarioak aztertzen ditu.

Helduen oroimen berreskuratze mekanismoak aztertzeaz gain, mekanismo hauek nola hobetu ikertzea ere interesgarria da. Adibidez, begiak ixteak oroimen berreskuratzea, gutxienez partaideen ama-hizkuntzan, hobetzen duela ikusi izan da (Vredeveldt, 2011; Vredeveldt et al., 2012).

Zoritxarrez, guk dakigula, begi ixteak oroimenean dakarren onuraren mekanismo neuronalak ulertzeko saiakerarik ez da egin. Oroimen berreskuratzean dituen onuretz gain (Vredeveldt, 2011; Vredeveldt et al., 2012), jakina da begiak ixteak alfa potentzia handitzen duela (Berger, 1929). Bestalde, ariketa kognitibo ezberdinetan erantzun zuzenen kopurua handiatzea lortu da alfa potentzia externoki modulatu denean (Klimesch et al., 2003; Hanslmayr et al., 2005). Hala ere, oraindik ez da ikertu begi-ixteak sortzen duen alfa igoerak oroimen berreskurapenaren mekanismo fisiologikoak nola modulatzten dituen.

Kapitulu honetan azaldutako esperimentua H1ean burututako oroimen episodikoko ariketa bat da, non oroimen berreskuratzea material auditiboekin egin den. Honek berreskuratzea fasea bai begi irekiekin eta bai begi itxiekien egitea baimentzen du. Ondorioz aldi berean 1) alfa erritmoa oroimen episodikoko ariketa auditibo batean nola modulatzeko den eta 2) begi-ixteak (alfa bisualaren modulazioak) eta oroimen berreskuratzea alfa (alfa auditiboa) nola harremantzen diren eta ondorioz portaera nola modulatzeko duen aztertzea ahalbidetzen du.

5.2 Alfa oszilazioak eta oroimena

Alfa 7 eta 13 Hz artean dagoen eta erritmo guztien artean anplitude handiena erakusten duen erritmoa da; M/EEG seinaleetan begi hutsez ikusi daitekeen erritmo bakarrenetakoa da. Hala ere, alfa ez da frekuentzia tarte honetan fluktuatzen duen erritmo bakarra. Aurretiko ikerketek, alfaz gain, 7-13 Hz-ko beste bi erritmo topatu dituzte: mu erritmoa eta hirugarren erritmoa (beranduago tau deitu zena). Mu erritmoa motor eremutan topatzen den oszilazioa da, eta partaideek ariketa motoreak egiten dituztenean desinkronizatzen da (Pfurtscheller et al., 1997). Honen antzera, hirugarren edo tau erritmoa erdi-lobulu tenporalean agertzen da eta mu erritmoarekiko independientea da (Hari, 1993). Tau edo hirugarren erritmo hau, partaideek estimulu auditiboak jasotzen dituztenean desinkronizatzen da (Hari et al., 1997). Klimesch-en arabera tau erritmoa EEGrekin jasotzea zaila da, aldiz, MEG edo kraneo-barneko grabaketekin errazago jasotzen da (Klimesch, 1999). Tau erritmoa EEGrekin jasotzeko zailtasuna, estimulu bisualak erabili dituzten oroimen ariketetan topatutako alfa-efektu ezagunak, estimulu auditibok erabiltzen dituzten ariketetan topatu ez izanaren arrazoia izan daiteke. Adibidez, Krausek oroimen auditiboa aztertzeko bokal antzemate ariketa bat erabili zuen (Krause et al., 1996). Berreskuratze fasean estimuluek alfa desinkronizazioa eragin zuten arren, desinkronizazioa ez zen portaerarekin modulatu. Aurretik egindako ikerketa batean tonu seinaleak erabili zituzten bokalak ordez, eta ez zuten ezta alfa desinkronizaziorik topatu (Krause et al., 1995). Hemen aurkezten den ikerketaren helburua MEGek tau erritmoa jasotzeko duen abantaila erabiliz, oroimen auditiboko ariketa batek tau erritmoa, ea oroimen bisualeko ariketa batek alfa erritmoa modulatzeko duen bezala modulatzeko duen aztertzea da. Gainera, esperimentuak alfa eta tau erritmoak nola harremantzen diren aztertzea ahalbidetzen du.

Epe-motzeko oroimen (e.g. Klimesch et al., 1993), oroimen semantikoko (e.g. Doppelmayr et al., 2005) eta oroimen episodikoko (e.g. Klimesch et al., 1997) ariketen kodifikazio eta berreskuratze faseetan alfa (eta beta) erritmoen desinkronizazioa topatu izan da. Gainera, alfa desinkronizazio magnitudea ariketan emandako

erantzunekin lotua dagoela ikusi da. Klimesch-ek alpha/beta desinkronizazio handiak gaitasun kognitibo eta oroimen gaitasuna adierazten dituela proposatu zuen (Klimesch, 1999). Kodifikazio faseari dagokionez, alfa desinkronizazio handiagoa topatu izan da ondoren gogoratu diren hitzetan ondoren ahaztu diren hitzetan baino (ondorengo memoria efektu izenarekin ezaguna da) (Klimesch et al., 1997; Hanslmayr et al., 2012). Berreskuratze faseari dagokionez, alfa desinkronizazio handiagoa topatu da ariketa ondo egin duten partaideetan (hitz gehiago gogoratu dituzten partaideak), ariketa eskasago egin dutenetan baino (hitz gutxiago gogoratu dituzten partaideak, Klimesch et al., 1993). Alfa desinkronizazio handigoek eta erantzun hobeei duten lotura oroimen ariketa ezberdinetan (epe-motzeko, semantiko eta episodikoetan) topatzeaz gain (ikus Klimesch, 1999; Hanslmayr et al., 2012, 2016), biraketa mentala bezalako bestelako ariketa kognitiboetan ere topatu izan da (Klimesch et al., 2003; Hanslmayr et al., 2005).

Bestalde, estimulu bati erantzunez sortzen den alfa desinkronizazioaren magnitudea, estimulu aurreko bitartean zegoen alfa potentzia absolutuan menpe dago: estimulu aurreko bitartean alfa potentzia absolutua handiagoa bada, estimulu ondorengo alfa desinkronizazioa handiagoa da. Aurreko paragrafoan azaldu den bezala, alfa ERD handiagoak ariketa emaitza hobeei lotu izan da ariketa mota ezberdinetan. Bi gertaera hauetaz baliatuz, Klimeschek alfa potentzia modulatu zuen biraketa mentaleko ariketa batean (Klimesch et al., 2003). Erreferentzia basea bitartean alfa potentzia handitu zuten TMS erabiliz; honek estimulu ondorengo alfa desinkronizazio handiagoa ekarri zuen eta ondorioz, ariketaren emaitzak hobetu ziren. Ikerketa honen antzera, Hanslmayer-ek Neuro Feedback Training metodoa erabili zuen erreferentzia baseko alfa potentzia absolutua handitzeko (Hanslmayr et al., 2005). Emaitzak Klimeschen antzekoak dira: erreferentzia basean alfa potentzia absolutu handiagoak estimulu ondorengo alfa desinkronizazio handiago bat eragin zuen eta ariketaren emaitzak hobetu ziren.

Nahiz eta alfak oroimenean duen eragina eta begi-ixteak alfa okzipitala handitzen duen ikerketa ugari dauden, oraindik begi-ixteak sortutako alfak oroimenean parte hartzen duten oszilazioetan nola eragiten duen ez da aztertu. Hala ere, askotan aurkitu izan da begi-ixteak oroimen berreskuratzean onura dakarrela (Glenberg et al., 1998; Wagstaff et al., 2004; Perfect et al., 2008, 2011; Vredeveldt, 2011; Vredeveldt et al., 2011, 2012). Ikerketa hauek begiak-ixteak ingurutik deskonektatu eta oroimenetik berreskuratutako esperientzia kopurua handitzen dituela erakusten dute.

Begi-ixteak oroimen berreskuratzean duen onura azaltzeko bi hipotesi nagusi aurkitu daitezke. Lehenengoa, karga kognitiboaren hipotesia da, begiak ixtean karga kognitiboa gutxitu egiten dela eta ondorioz oroimen berreskuratze hobetzea

gertatzen dela dio (Perfect et al., 2008, 2011). Bigarrena, modalitate espezifikoko hobekuntza da, begiak-ixteak interferentzia bisualak gutxitu egiten dituela, irudikapena ahalbidetuz eta ondorioz oroimena hobetuz (Vredevelde et al., 2011, 2012). Hala ere, alfak oroimenean duen eragina, begi-ixteak sortzen duen alfa potentzia handitzea eta begi-ixteak oroimenean duen eragina harremandu gabe jarraitzen dute.

5.3 Metodo eta Materialak

Adierazpen etikoa


Ikerketa hau Basque Center for Cognition, Brain and Language-n egin da eta bertako etika komiteak onartua da.

Partaideak

Partaideak irakurketa eta entzumen arazorik ez zuten 21 (10 emakume, 11 gizon) Euskarazko ama-hiztun osasuntsu eta eskuinak izan ziren. Partaideak Donostialdean bilatu ziren. Esperimentua hasi aurretik, partaide guztiek idatzizko kontsentimendua eman zuten (Declaration of Helsinki) eta interferentzia magnetikoen bila miatuak izan ziren. 21 partaide hauetaz gain, bi partaide gehiagoren datuak jaso ziren, baina analitiko baztertuak izan ziren batek aginduak ez jarraitzeagatik eta besteak esperimendu bitartean lo hartzeagatik.

Diseinua eta Materialak

Partaideen oroimen gaitasuna bederatzi bloke dituen antzemate ariketa bat burutuz neurtu zen. Bloke bakoitzak hiru fase zituen: kodifikazioa (50 entsaio), errepassoa (5 min) eta berreskuratzea (50 entsaio) eta 11 minutu inguru irauten zituen. Kodifikazio fasean, atzera-proiektzio pantaila batean banan banan idatzizko hitzak aurkeztu ziren eta partaideek hitz hauek irakurri eta ikasi behar zituzten. Errepasso fasean, partaideek hitz hauek bere buruan errepassatu behar zituzten. Berreskuratze fasean, partaideek hitzak entzun eta hasierako zerrendako hitzak antzeman behar zituzten. Hitza zerrendakoa zela uste bazuten botoi berdea sakatuz, edo kontrako egoeran, botoi gorria sakatuz. Partaide bakoitzak ariketa bi egoera ezberdinetan burutu zuen. Blokeen erdietan errepasso eta berreskuratze faseak begi itxiekin egin ziren (EC) eta beste bloke erdietan begi irekiekin (EO; ikus 5.1 irudia). EC eta EO blokeak partaideen artean kontrabalanzeatuak izan ziren.



5.1. irudia: Esperimentuaren diseinua. Lehenengo fasea (kodifikazioa) beti begi irekiekin burutu zen, eta estimulu bisualak erabiliz. Bigarren (errepassoa) eta hirugarren (berreskuratzea) faseak bi egoeratan burutu ziren: begi itxiekin eta begi irekiekin, estimulu auditiboak erabiliz.

Partaideek ariketa Euskaraz burutu zuten, eta zerrenda bakoitzeko hitzak ezaugarri antzekoak zituzten hitz multzo handiago batetik ausaz aukeratua izan zen: frekuentzia ($\log_{10}(\text{freq})$, $\text{mean}=1.02$; $\text{std}=0.69$) luzera ($\text{mean}=7$; $\text{std}=2.06$) eta silaba kopurua ($\text{mean}=4$; $\text{std}=0.95$). Hitz guztiak egunerokotasuneko objektuak adierazten zituzten izen konkretu eta irudikagarriak ziren.

Kodifikazio fasean partaideei hitzak isiltasunean irakurri eta ikasteko adierazi zitzairen. Hitzak banan banan aurkeztu ziren pantaila beltz batean. Hitz bakoitza bi segunduz agertu zen pantailan.

Errepaso fasea bost minutuko iraupena zuen eta partaideei kodifikazio fasean ikasitako hitzak errepassatzeko eskatu zitzairen. Esperimentua hasi aurretik partaideei ondorengoa eskatu zitzairen: errepaso fasean partaideek beraien burua distrahituta zegoela ohartu bezain laster berriz ere zerrenda errepassatzen hasteko.

Berreskuratze fasean, partaideek 50 hitz entzun zituzten (25 gogoratzeko, 25 baztertzeke). Hitz entzuten zutenetik kontatzen hasita bost segundu zituzten hitza antzeman edo baztertzeke. Denbora tarte horretan ez bazuten erantzunik ematen hurrengo hitza aurkezten zen. Erantzun bat ematerakoan, bost segunduetara iristeko soberan zuten denbora itxoin behar zuten hurrengo hitza entzun aurretik. Erantzun bat baino gehiago ematen bazuten, soilik lehenengo erantzuna hartzen zen kontutan.

Prozedura

Datuak 306-kanaleko Elekta Neuromag Elekta (Oy, Helsinki, Finland) ekipamendua erabiliz Donostiako Basque Center on Cognition Brain and Language-k

duen MEG laborategian bildu ziren. MEG ekipamendua inguruko eremu magnetikoak blokeatzen dituen gela-pantailatu batean kokatua dago (passive shielding; Vacuumschmelz GmbH, Hanau, Alemania).

Partaideei grabaketa bitartean postura eroso hartu eta erlaxatzeko eskatu zitzaion datu grabaketa bitartean mugimenduak ekiditeko asmoz. Ariketen bitartean begi, buru eta gorputz mugimenduak saihesteko eskatu zitzaion ere. Bi elektrookulograma (bertikala eta horizontala) eta elektrokardiograma sinple bipolar bat jaso ziren ere, ondoren ICA bidezko artefaktu baztertzea gauzatu ahal izateko. Ondoren bi minutuko bi atsedeen bloke grabatu ziren, bat begi itxiekien eta bat begi irekiekien.

Buruaren forma digitalizatzeko Polhemus Isotrak (Polhemus, Colchester, VM, EEBB) boligrafo bat erabili zen. Buruaren forma digitala partaide bakoitzaren burua bere irudi estrukturalari (T1 irudia) lerrokatu ahal izateko erabili zen. Honetaz gain, partaidearen buruan buru-lokalizaziorako 5 espira kokatzen dira, eta hauen kokalekua fiduzialekiko jasotzen da. Bost espirak MEG grabaketa bitartean aktibo daude, buruaren lokalizazio jarraia ematen dutelarik (cHPI). MEG datuak Elekta ekipamendu batean berezko softwarean bidez, 1000 Hz lagintze-abiadura, 0.03 Hz goi-paseko iragazkia eta 330 Hzko behe-paseko iragazkia erabiliz jaso ziren.

Datu Analisiak

Lehenengo blokearen helburua partaideak ariketa ezagutu eta MEG-laborategira egokitzea izan zen. Ondorioz, analisisetatik baztertu egin zen eta beste zortzi blokeen datuak erabili ziren.

Portaera analisisia

Antzemate zuzena izandako entsaio kopuruaren ratioa Laplacen hurbilekta erabiltzen duen maila anitzeko erregresio lineal orokortu batekin (Dixon, 2008) modelatu zen begi faktorea erabiliz (irekiak, itxiak). Bi modelo konparatu ziren, lehenengoa partaideen ausazko efektua interzepzioarentzat kontuan hartzen zuena ($m1 = \text{Hit} \sim \text{Eyes} + (1 + |\text{Sbj}|)$) eta bestea partaideen ausazko efektua begi faktorean kontuan hartzen zuena ($m2 = \text{Hit} \sim \text{Eyes} + (1 + \text{Eyes}|\text{Sbj}|)$).

MEG data

MaxFilter 2.2 erabilita MEG datuak Espazio Seinale Banaketa tenporalarekin (temporal Signal Space Separation tSSS) iragazki ziren lau segunduko denbora leihoa eta 0.98ko korrelazio minimoa erabiliz. Partaide bakoitzaren buruaren jatorria eta

sensore zaratatsuen zerrenda eskuz markatu ziren, datuen lagintze-abiadura 250 Hz jaitsi zen eta linea elektrikoaren frekuentzia (50 Hz) eta honen harmonikoak iragazki ziren. MRC Cognition and Brain Science Unitek duen MEG laborategiaren gomendioak jarraituz, lagintze-abiadura jaitea eta iragazketa bi pausu ezberdinetan egin zen, softwareak duen akats baten ondorioz datuen kutsadura ekiditzeko (http://imaging.mrc-cbu.cam.ac.uk/meg/Maxfilter_V2.2). Partaide bakoitzaren buruaren kokalekua, kokaleku lehenetsira transformatu zen, partaide eta blokeen artean buru kokaleku amankomuna zegoela ziurtatzeko. Datuak Fieldtrip tresna erabiliz prozesatu ziren (20141202 bertsioa, Oostenveld et al., 2011).

Lehenbizi, berreskuratze faseko datuak segmentutan moztu ziran. Segmentuaren hasiera hitzaren hasierara lotu zen. Datuak bost segunduko luzeran moztu ziren, bi segundu hitza hasi aurretik eta hiru ondoren.

Ondoren, artefaktuak bilatzeko datuak ikuskatu ziren: z-balioa 20 tik gora zuten segmentuak automatikoki baztertuak izan ziren. Segmentu bakoitza 12 segundutara iritsi arte zero-betegarriekin luzatu zen. 40 Hz-tan ezarritako behe-paseko FIR iragazki bat (zero-faseko pasada bakarra) erabili zen, eta 200 ms-ko (-200 - 0 ms) erreferentzia zuzenketa egin zen.

Datuak Konponente Independienteen Analisia (ICA) algoritmoa erabiliz deskonposatu ziren. Konponente kopurua, gradiometro kopurura berdindu zen (204) eta analisi honen aurretik ez zen dimentsio murrizketa algoritmorik erabili. fastICA algoritmoa erabili zen konbinatu gabeko gradiometrotan (204 sensore). Ondoren, ICA konponente bakoitza HEOG; VEOG eta EKG seinaleekin korrelatu zen. Hiru desbideratze tipikotik gorako korrelazioa erakutsi zuten konponenteak baztertu egin ziren eta, ondoren, konponenteak jatorrizko sensore espaziora transformatu ziren.

Begi itxien efektua

Hasteko, atsedean blokean eta berreskuratze fasean begiak ixtean sortutako alfa potentzia modulazioa konparatu zen. Horretarako, atsedean blokeetako (begiak irekita eta itxita) lehenengo 30 segunduak erabili ziren. Honetaz gain, berreskuratze faseko begi itxiekin egindako lehenengo blokeko eta begi irekiekin egindako lehenengo blokeko hasierako 30 segunduak jaso ziren. Potentzia balioak frekuentzia-menpeko luzera duen Hanning leiho sinple bat erabilita egin zen. Denbora leiho bakoiztean 6 ziklo zeuden, segundu bateko pausuekin. Analisia segmentu guztian burutu zen (30 s) 0 eta 40 Hz artean hertzio bateko pausuekin. Honek 10 Hz-tara 1.7 Hz-ko frekuentzia leuntzea dakar. Potentzia balio absolutuak erabili ziren analisi honetarako. Ondoren, gradiometroak konbinatu eta konbinatutako gradiometroetan burutu ziren analisi estatistikoak.

Begien itxieraren efektua neurtzeko alfa bandaren inguruan analisi estatistikoa burutu zen. Sensore espazioan, ausazko mulkoen permutazio (1000 permutazio) analisia erabili zen (Maris and Oostenveld, 2007) (frekuentzia eta denbora puntu guztien batezbesteko potentzia erabili zen) bi egoeren artean alfa bandan (7-13 Hz) diferentzia esanguratsuak zeuden edo ez neurtzeko. Sensore bakoitzeko t-estatistikak kalkulatu eta algoritmoak sensore mulkoak topatu zituen. Bizilagun deskribapena Fieldtrip-ek eskaintako Neuromag-306 plantilan oinarritua zegoen. Datu puntu bat mulko baten parte izateko, $p < 0.05$ (bi aldeko proba eta probabilitate zuzenketa erabiliz) ataka pasa eta gutxienez bi bizilagun izan behar zituen. Mulko baten t-estatistikak gehiketa mulkoaren estatistika balio bezala hautatu zen (maxsum aukera Fieldtrip-en), eta 1000 permutazioko ausazko proban erabili zen.

Denbora-frekuentzia analisia

Konparaketa honen ondoren, berreskuratzearen dinamikak aztertu ziren. Potentzia balioak frekuentzia-menpeko luzera duen Hanning leiho simple bat erabilita kalkulatu ziren. Denbora leiho bakoitzean 6 ziklo zeuden, 0.05 s-ko pausuekin. Analisia segmentu osoan burutu zen (-2 eta 3 s artean) 0 eta 40 Hz artean hertzio 1-eko pausuekin. Honek 10 Hz-tara 1.7 Hz-ko frekuentzia leuntzea dakar. Denbora-frekuentzia puntu bakoitzeko potentzia balioak erreferentzia basearekiko (-0.5,0) normalizatu ziren. Ondoren, gradiometroak konbinatu eta konbinatutako gradiometroetan burutu ziren analisi estatistikoak.

Mugatutako analisi estatistikoa

Alfa bandaren a priori analisi bat egin zen sarreran aipatutako hipotesia aztertzeko: berreskuratze fasean alfa ERDa handiagoa da gogoratutako hitzetan ahaztutako hitzetan baino. Gainera, begi itxiek alfa ERD handiagoa eragin beharko lukete begi irekiekin alderatuta. Analisi estatistikorako, ausazko mulkoen permutazio (1000 permutazio) analisia burutu zen (Maris and Oostenveld, 2007) alfa bandan (7-13 Hz) eta (-0.5, 2) s-ko denbora leihoan. Beste parametro guztiak aurreko analisiaren berdinak dira.

Mugatu gabeko analisi estatistikoa

Azkenik, aurreko analisia osatzeko eta beste frekuentzietan egon zitezkeen efektuak aztertzeko helburuarekin mugatu gabeko analisi bat burutu zen. Ausazko mulkoen permutazio (1000 permutazio) analisia burutu zen (Maris and Oostenveld, 2007) frekuentzia puntu guztietan eta (-0.5, 2) s-ko denbora leihoan. Beste parametro guztiak aurreko analisiaren berdinak dira. the parameters remain the same as in the

previous statistical analyses.

Iturri analisia

Iturriak berreraikitzeke Dynamic Imaging of Coherent Sources (DICS) (Gross et al., 2001) metodoa erabili zen. MRI egitura irudiak larruazal, garezur, burmuin eta CSF mintzetan segmentatu zen, eta geruza bakarra modelo erabiliz burmuinaren bolumenari eroaltasun balio bat eman zitzaion (Nolte, 2003). Bolumenaren eroaltasun modelo eta burmuin osoa estaltzen zuen 8 mm-ko lauki-sare erregular (spatial grid) bat (Fieldtripen eskuragarri) erabili ziren leadfield-ak kalkulatzeko. Zehar-espekto dentsitate matrizeak kalkulatu ziren 10 Hz ren inguruan (3 Hz-ko frekuentzia leuntzearekin) intereseko hiru denbora leihoentzat (0.5 1), (1. 1.5) eta (1.5 2) s. Denbora leiho bakoitzeko, 4 egoeretako amankomunak ziren, iragazki espazialak sortu ziren leadfield-ak eta zehar-espekto dentsitate matrizeak erabiliz. Ondoren, datuak iragazki amankomunak erabiliz iragazi ziren eta erreferentzia basearekiko potentzia erlatiboak kalkulatu ziren egoera bakoiztean.

Analisi estatistikorako, ausazko mulkoen permutazio (1000 permutazio) analisia burutu zen (Maris and Oostenveld, 2007) denbora leiho bakoitzeko (0.5 1), (1. 1.5) eta (1.5 2) s. Beste parametro guztiak aurreko analisiaren berdina dira.

5.4 Emaitzak

Portaera analisia

5.1 taulak erakusten duen bezala, modeloak partaideen erantzun zuzenen ratioa 0.75 inguru dagoela eta bi egoeren artean diferentziarik ez dagoela adierazten du. Bi modeloak konparatu zirenean, partaideen ausazko efektua begi faktorean ez zuen onurarik ekarri ($\text{Pr}(>\text{Chisq})=0.96$). Horregatik, soilik lehenengo modelo azaltzen da.


	m1
Eyes Closed	0.75 (0.70, 0.79)
Eyes Opened	0.76 (0.67, 0.82)

5.1. taula: Zuzenki atzemandako entsaioen ratioa (%95 CI). Lehenengo modeloaren estimazioak eta hauen konfiantza tartea (CI) adierazten dira ($m1 = \text{Hit} \sim \text{Eyes} + (1 + 1|\text{Sbj})$).


(hbt)

Alpha band power (Eyes Closed - Eyes Open)

a) Resting State



b) Retrieval Phase



5.2. irudia: Alfa bandan (7-13 Hz) begi itxien eta irekien arteko potentzia absolutuaren diferentzia (a) atsedean blokean eta (b) berreskuratze fasean. Kolore epelek begi itxietan potentzia handiagoa dela adierazten dute, kolore hotzen bi egoeren artean diferentzia txikia edo ia diferentziarik ez dagoela adierazten dute. Asteriskoek analisi estatistikoan ageri den mulkoaren parte diren sensoreak adierazten dituzte.

MEG datuak

Begi itxien efektua

5.2 irudiak begi itxi eta irekien artean alfa bandan (7-13 Hz) dagoen potentzia diferentzia irudikatzen du (a) atsedean blokean eta (b) berreskuratze fasean. Nahiz eta bi irudiek topografia antzekoa erakusten duten (alfa altuagoak begi itxientzat atzealdkeo sensoreetan), berreskuratze fasean begi itxien eta irekien arteko diferentzia txikiagoa da (ikus kolore barrak). Analisi estatistikoak mulko positibo bat erakutsi zuen atsedean blokean (clusterstat=343.5; $p < 0.001$) eta estaitsikoki ia esanguratsua den beste mulko positibo bat berreskuratze fasean (clusterstat=11.91; $p=0.073$).

Denbora-frekuentzia analisisia

Mugatutako analisi estatistikoa

5.3 irudiak batezbesteko denbora-frekuentzia grafikoak erabiltzen ditu oszilazio potentzia analisiak irudikatzen. Batezbesteko orokorra (5.3i irudia) hitz-estimulu batentzat ohikoa den erantzuna erakusten du: theta ERSa 0 eta 0.5 s artean eta alfa ERDa 0.5 eta 1 s artean eta azkenik alfa-altua/beta errebote bat 1 eta 2 s artean. Patroi

hau egoera guztietan (begi itxi eta irekietan) eta elementu guztietan (gogoratutako eta ahaztutako hitzetan) topatu zen. Beraz, aurrerago azaltzen diren ezberdintasunak orain azaldutako patroiaaren modulazioak dira. Behean azaltzen den bezala, ERD modulazioak elementu motaren arabera topatu dira (gogoratutako eta ahaztutako hitzak) eta ERS modulazioak egoeraren arabera topatu dira (begi itxi eta irekiak).

Egoera ezberdinak konparatzean, espero zen memoria efektuarekin bat datoz datuak: gogoratutako elementuak ahaztutako elementuek baino alfa ERD handiago bat erakusten dute, bai begi itxiek eta bai begi irekiek. Begi itxietan, alfa bandan (7-13 Hz) egindako analisi estatistikoak 0.6 eta 1.75 s artean irauten duen mulko esanguratsu bat erakusten du (5.3g irudia). Begi irekietan, 0.65 eta 1.65 s artean mulko esanguratsu bat (clusterstat=-1470; p=0.006) agertzen da (5.3h irudia).


Honetaz gain, begi itxien efektu bat topatu zen ere. Bi elementu motetan (gogoratutako eta ahaztutako hitzetan) begi itxiek, begi irekietan alderatuta, alfa potentzia altuagoa erakutsi zuten 1 eta 2 s artean. Gogoratutako hitzetan, mulko esanguratsu bat (clusterstat=1401; p=0.02) aurkitu zen 1 eta 2 s artean (5.3c irudia). Ahaztutako hitzetan beste mulko esanguratsu bat topatu zen 1 eta 2 s artean (5.3f irudia).

Patroi hauen topografia era simple batean irudikatzeko efektua segundu-erdiko hiru leihotan banatu zen: lehenengoa 0.5 eta 1 s artean (ikus 5.4 irudia), alfa ERD indartsuena ageri den leihoa; bigarrena, trantsizio leihoa, 1 eta 1.5 s artean (ikus 5.5 irudia), oroimen konparaketaren alfa ERDa oraindik ageri eta adli berean konparaketaren alfa ERSa agertzen hasia den denbora leihoa, eta azkenik, hirugarren leihoa (ikus 5.6 irudia), 1.5 eta 2 s artean, non begien konparaketaren alfa ERS nabaria den eta oroimen konparaketako alfa ERDa ahulagoa den.

Topografia irudien arabera, hasierako fasean (0.5 - 1 s) oroimen efektua ia sensore guztietan ikusten den alfa ERD sakabanatu bat bezala agertzen da, nahiz eta nagusiki efektua eskuineko sensore tenporaletan nabarmentzen den (ikus 5.4 g eta h irudiak). Sensoreen kokalekuaren arabera oroimen efektuaren oinarria ezberdina da: Sensore batzuetan ERS txikiago batek, eta beste batzuetan ERD handiago batek, sortua da. Denborak aurrera egin ahala, efektua bi hemisferiotako sensoreetan mantentzen da soilik (ikus 5.5 g eta h, eta 5.6 g eta h irudiak). Bestalde, ERS efektua atzealdeko sensore eta sensore parietaletan topatzen da nagusiki (ikus 5.4, 5.5 eta 5.6, c eta f irudiak). Nahiz eta topografia ez den aldatzen, denboran aurrera joan ahala efektuaren magnitudea handitzen doa.

Interakzioak neurtzeko analisi estatistikoak burutu ziren. Analisi batean begi itxiek (begi itxiak eta begi irekiak) elementu motan (gogoratutakoak – ahaztutakoak)


Restricted Oscillatory Power Analysis



5.3. irudia: Erreferentzia basearekiko (-0.5 - 0) s potentzia aldaketa erlatiboa denbora eta frekuentzietan zehar. Lehenengo lerroak gogoratutako hitzen potentzia aldaketak erakusten ditu, eta bigarrenak ahaztutako hitzenak. Lehenengo zutabeak begi itxien potentzia aldaketak irudikatzen ditu, eta bigarrenak begi irekienak. Hirugarren lerro eta zutabeak ondoko bi egoeren diferentziak irudikatzen ditu. Eta behe-eskuinean dagoen grafikoak batezbesteko orokorra irudikatzen du. Kolore hotzek ERDA irudikatzen dituzte eta epelek ERSak.

Restricted Analysis Power Topography


Freq: 7-13 Hz / Time window: 0.5-1 s



5.4. irudia: Alfa bandaren (7-13 Hz) topografia 0.5 eta 1 s artean. Irudi hauen eskemak 5.3. irudiaren eskema jarraitzen du. Topografia grafiko bakoitzak konbinatutako gradiometroen erreferentzia basearekiko alfa (7-13 Hz) potentzia erlatiboa irudikatzen du. Asteriskoek konparaketa bakoitzean mulko esanguratsuen parte diren sensoreak markatzen dituzte. Kolore eskala 5.3 irudiaren berdina da.

Restricted Analysis Power Topography


Freq: 7-13 Hz / Time window: 1-1.5 s



5.5. irudia: Alfa bandaren (7-13 Hz) topografia 1 eta 1.5 s artean. 5.4 irudiaren eskema jarraitzen du.

Restricted Analysis Power Topography

Freq: 7-13 Hz / Time window: 1.5-2 s



5.6. irudia: Alfa bandaren (7-13 Hz) topografia 1.5 eta 2 s artean. 5.4 irudiaren eskema jarraitzen du.

eragiten duen modulazioa neurtu zen. Beste analisi batean elementu motak (gogoratutakoak eta ahaztutakoak) begi itxietan (begi itxiak – begi irekiak) eragiten zuen modulazioa neurtu zuen, BI analisisetako batek bera ere ez zuen interakzio esanguratsurik topatu ($\text{abs}(\text{clusterstat}) < 259$; $p > 0.7$).

Mugatu gabeko analisi estatistikoa


Mugatu gabeko analisisian, a priori analisisian egindako eskema jarraitu zen, baina analisisia alfa bandara mugatu orde 3 eta 40 Hz bitarteko frekuentzia guztietan neurtu zen. 5.7, 5.8, 5.9 eta 5.10 irudiek, 5.3, 5.4, 5.5 eta 5.6, irudien eskema jarraitzen dute hurrenez hurren.

Emaitzak alfa frekuentzia bandara mugatutako analisisien emaitzen oso antzekoak dira: gogoratutako hitzek ahaztutako hitzek baino ERD handiagoa erakusten dute, eta begi itxiek begi irekiek baino ERS handiagoa. Begi itxietan, analisi estatistikoak mulko esanguratsu bat ($\text{clusterstat} = -8281$; $p = 0.002$) erakusten du 4-27 Hz eta 0.65-1.8 s artean (ikus 5.7g irudia). Begi irekietan, analisiak beste mulko esanguratsu bat ($\text{clusterstat} = -7357$; $p = 0.004$) erakusten du 4-22 Hz eta 0-2 s artean (ikus 5.7h irudia). Nahiz eta efektuak begi itxiekin topatutako baino denbora leiho luzeagoa hartu, leiho luzapen hau theta frekuentzia baxuetan gertatzen da soilik. Beste frekuentzia guztietarako denbora leihoa begi itxiekin topatutako denbora leihoaren oso antzekoa da.

A priori egindako alfa analisiaren begi itxieraren efektu antzekoa, baina frekuentzia banda zabalagoa batean topatu zen. Bi hitz motentzat (gogoratutakoak eta ahaztutakoak) begi itxiek, begi irekiekin alderatuta, alfa ERS handiagoa eragiten zuten 0.6 eta 2 s artean. Honetaz gain, beta ERS efektu antzekoa topatu zen. Gogoratutako hitzetan, analisi estatistikoak mulko esanguratsu bat ($\text{clusterstat} = 14766$; $p = 0.01$) topatu zuen 8-38 Hz eta 0.6-2 s artean (ikus 5.7c irudia). Ahaztutako hitzetan, mulko esanguratsu bat ($\text{clusterstat} = 13840$; $p = 0.006$) topatu zen 7-27 Hz eta 0.8-2 s artean (ikus 5.7f irudia). Analisi honek, alfa bandaz gain, berreskuratze fasean, begiak ixteak beta banda ere modulatzeko duela erakusten du. Bestalde, oroimen eta begi itxien efektuen denbora leihoez mugatutako analisisian baino gainjartze handiagoa erakusten dute.


Topografia irudien arabera, hasierako fasean (0.5 - 1 s) oroimen efektua alfa bandan topatzen da gogoratutako hitzek ERD handiagoa edo ERS ahulagoa erakusten dutelako, bai begi itxiekin bai begi irekiekin. Mugatutako analisiarekin konparatzerakoan, mugatu gabeko analisiak beta banda ere hartzen du. Mugatutako analisisaren antzera, efektuaren magnitude handiena sensore tenporaletan topatzen da (see ikus 5.8, 5.9 eta 5.8, g eta h irudiak). Bestalde, begi itxien efektua alfa eta beta

Unrestricted Oscillatory Power Analysis




5.7. irudia: Berreskuratze faseko oszilazio analisia. Eskema 5.3. irudiaren eskema bera da. (c),(f),(g) eta (h) grafikoek soilik estatistikak babestutako denbora-frekuentzia leihoak erakusten dituzte.

Unrestricted Analysis Power Topography




5.8. irudia: Alfa bandaren (7-13 Hz) eta beta bandaren (13-30 Hz) topografiak 0.5 eta 1 s artean. Ezkerreko panelak (a) alfa bandaren topografia irudikatzen du. Eskuineko panelak (b) beta bandarena. Irudi bakoitzean, lehenengo lerroak gogoratutako hitzen potentzia aldatetarako erakusten ditu, eta bigarrenak ahaztutako hitzenak. Lehenengo zutabeak begi itxien potentzia aldatetarako irudikatzen ditu, eta bigarrenak begi irekienak. Hirugarren lerro eta zutabeak ondoko bi egoeren diferentziak irudikatzen ditu. Eta behe-eskuinean dagoen graffkoak batezbesteko orokorra irudikatzen du.

Unrestricted Analysis Power Topography



5.9. irudia: Alfa bandaren (7-13 Hz) eta beta bandaren (13-30 Hz) topografiak 1 eta 1.5 s artean. 5.8 irudiaren eskema bera jarraitzen du.

Unrestricted Analysis Power Topography



5.10. irudia: Alfa bandaren (7-13 Hz) eta beta bandaren (13-30 Hz) topografiak 1.5 eta 2 s artean. 5.8 irudiaren eskema bera jarraitzen du.

badentan topatzen da, ERS handiagoa agertzen delarik begi itxiekin begi irekiekin baino. Efektua nagusiki atzealdeko sensore eta eskuin sensore parietaletan ageri da (ikus 5.8, 5.9 and 5.10, c eta f irudiak).

A priori analisisiko eskema berdina jarraituz, analisi estatistikoak burutu ziren interakzioak neurtzeko. Mugatutako analisiaren antzera, emaitzek ez dute mulko esanguratsurik erakusten ($\text{abs}(\text{clusterstat}) < 259$; $p > 0.71$).

Iturri analisia

5.11, 5.12 eta 5.13 irudiek iturri mailan egindako potentzia analisisien emaitzak irudikatzen dituzte.

Hiru denbora leihotako batezbesteko orokorrekin burmuin osoan sakabanatutako alfa (7-13Hz) desinkronizaizoa erakusten dute, nahiz eta desinkronizazio nagusia ezker motore eremutan ageri den.

Egoera ezberdinak konparatuta, emaitzak sensore mailan topatutako efektuekin bat egiten dute. Lehenengo denbora leihoan (0.5-1 s) analisi estatistikoak soilik begi irekiekin gogoratutako eta ahaztutako hitzen arteko ezberdintasuna babesten du. Mulkoa eskuin atzealdeko eremuan eta behe lobulu tenporal eta okzipitalean kokatzen da ($\text{clusterstat} = -684.17$; $p\text{value} = 0.035$).


Bigarren denbora leihoan (1 - 1.5 s) analisi estatistikoak bi efektuak jasotzen ditu: begi itxiena eta elementu motarena (see Figure 5.12). Begi irekiekin gogoratutako hitzek, ahaztutako hitzek baino ERD handiagoa erakusten dute ezker IFGan, atzealdeko STGan eta zirkunboluzio angularrean ($\text{clusterstat} = -889.23$; $p\text{value} = 0.017$). Begi itxiekin, gogoratutako hitzek, ahaztutakoek baino alfa ERD handiagoa eskuin lobulu parietal eta frontaletan ($\text{clusterstat} = -1155.2$; $p\text{value} = 0.008$). Gogoratutako hitzetan, begi itxiek alfa ERS handiagoa erakusten dute eremu okzipital eta atzealdeko lobulu parietaletan ($\text{clusterstat} = 645.15$; $p\text{value} = 0.049$).

Hirugarren denbora leihoan (1.5 - 2 s) analisi estatistikoek begi-itxien efektua erakusten dute (ikus 5.13 irudia). Gogoratutako eta ahaztutako hitzetan begi itxiek, begi irekiet baino alfa ERS handiagoa erakusten dute eremu okzipital eta atzealdeko-parietaletan ($\text{clusterstat} = 2931.1$; $p\text{value} < 0.001$ and $\text{clusterstat} = 1184.5$; $p\text{value} = 0.005$ hurrenez hurren).

Aurreko bi analisisetan bezala, analisi estatistikoak burutu ziren interakzioak neurtzeko. Emaitzek ez zuten mulko esanguratsurik azaldu ($\text{abs}(\text{clusterstat}) < 222.94$; $p > 0.18$).

Source-level Power Analysis


Freq: 7 - 13 Hz / Time window: 0-0.5 s



5.11. irudia: Alfa bandaren (7-13 Hz) iturri berreraikitzea 0.5 eta 1 s artean. Laugarren lerro eta zutabeek egoeren arteko diferentzia estatistikoak erakusten dituzten mulkoen kokalekuak irudikatzen dituzte. Eskema 5.8. irudiaren eskema bera da.

Source-level Power Analysis


Freq: 7- 13 Hz / Time window: 1-1.5 s



5.12. irudia: Alfa bandaren (7-13 Hz) iturri berreraikitzea 1 eta 1.5 s artean. Laugarren lerro eta zutabeek egoeren arteko diferentzia estatistikoak erakusten dituzten mulkoen kokalekuak irudikatzen dituzte. Eskema 5.8. irudiaren eskema bera da.

Source-level Power Analysis

Freq: 7 - 13 Hz / Time window: 1.5-2 s



5.13. irudia: Alfa bandaren (7-13 Hz) iturri berreraikitzea 1.5 eta 2 s artean. Laugarren lerro eta zutabeek egoeren arteko diferentzia estatistikoak erakusten dituzten mulkoen kokalekuak irudikatzen dituzte. Eskema 5.8. irudiaren eskema bera da.

5.5 Eztabaida

Esperimentu honetan, partaideek begi irekiekin eta begi itxiek antzemate oroimen ariketa batean entzundako hitzak klasifikatu zituzten. MEG seinalearen oszilazio potentzian egindako analisi ezberdinek oroimen arrakastatsua, estimulua aurkeztu eta segundu erdira gertatutako alfa bandaren desinkronizazio handigoarekin erlazionatuta dagoela erakutsi zuten. Bestalde, begi itxiera desinkronizazio horren ondorengo denbora leihotako alfa eta beta sinkronizazioarekin erlazionatu zen. Begi itxiek ez zituzten oroimen ariketako erantzun zuzenenen kopuruak modulatu. Halaber, alfa ERD eta alfa/beta ERS artean ez zen interakziorik topatu. Gainera, begi itxiek atzealdeko sensoreetan eragindako alfa potentzia igoera klasikoa topatu zen separatuta grabatu zen atsedeen bloke batean.

Mugatutako analisia, alfa banda begi itxierarengatik eta elementu motarengatik modulatu izango zela azaltzen duen hipotesia frogatzeko erabili zen, eta bide batez, bi modulazio horien arteko interakzio posiblea neurtzeko. Mugatu gabeko analisia, mugatutako analisisian topatutako emaitzak frekuentzia mugak sortutako joera batek sortuak ziren edo ez neurtzeko erabili zen. Bi analisiak konparatzerakoan, mugatutako analisisian elementu motak (gogoratutakoak eta ahaztutakoak) eragindako ERD modulazioak; mugatu gabeko analisisian ere topatu ziren, gainera, denbora leihotako, sensore eta frekuentzia beretan. Bestalde, mugatu gabeko analisia burutzean begien itxiera efektua frekuentzian zabaltzen dela ikusi zen (beta banda hartzen duelarik). Ondorioz, bi analisisien emaitzak bateratzean, bi analisisietan topatutako alfa ERD modulazioak alfa jaitziera bera bezala tratatzen dira, eta begi itxiek sortutako ERSa alfa eta beta banden potentzia igoera bateratu bezala tratatzen da. Horrengatik, bi analisisietako emaitzak efektu berdinak isladatzen dituztela interpretatzen da, eta ondorioz, elkarrekin eztabaidatzen dira.

Oroimen ariketa bateko berreskuratze fasean, partaideek estimulua zaharra edo berria bezala klasifikatu behar dutenean, aurretiko ikerketek estimuluari erantzunez alfa desinkronizazio bat gertatzen dela erakutsi dute (Klimesch, 1999; Schack and Klimesch, 2002; Klimesch et al., 2003). Gainera errendimendu hobea alfa ERD handiagoekin lotu izan da (Klimesch et al., 1997; Klimesch, 1999; Doppelmayr et al., 2005; Hanslmayr et al., 2005). Kapitulu honetan aurkeztutako esperimenteraren datuek aurreikusitako oroimen efektua erakutsi dute: gogoratutako hitzetan alfa ERDa handiagoa zen ahaztutako hitzetan baino. Hala ere, aurreko ikerketek alfa efektua atzealdeko sensoreetan kokatzen zuten, eta esperimentu honetan MEG sensore tenporaletan (gradiometro planarrak) ere efektua ikusi zitekeen. Iturri analisiak, begiak irekiak zeudenean, efektua ezker goi-lobulu tenporalean eta IFG eremutan kokatu zuten. Begiak itxita zeudenean, efektua eskuin lobulu parietal eta

frontaletan kokatu zen. Aurreko ikerketen eta hemen aurkeztutako esperimentuaren kokaleku diferentzia EEG eta MEG tekniken sentikortasun ezberdinek azaldu dezakete, baina badira beste azalpen batzuk ere.

Aurreko ikerketek estimulu bisualak erabili dituzten bitartean, hemen aurkeztutako esperimentuak estimulu auditiboak erabili ditu, begi itxiek oroimen berreskuratzean duen efektua aztertu ahal izateko. Kontuan izan Krausek estimulu auditiboak erabili zituela ere (Krause et al., 1996) eta nahiz eta estimuluei erantzunez alfa ERDa topatu zuen, portaerak ez zuen alfa ERDa modulatu. Klimesch-en arabera Kraus eta lagunek ez zuten oroimen efekturik topatu, estimulu auditiboek tau erritmoa modulatu zuelako (Klimesch, 1999). Klimeschek proposatu zuen EEG teknika ez dela egokiena tau erritmoa jasotzeko (Klimesch, 1999), eta gainera, MEG teknika erabili izan denean oroimen ariketa auditiboetan sensore tenporaletan tau erritmoaren modulazioak ikusi egin direla azpimarratu zuen (Kaufman et al., 1992). Honetaz gain, ikerketa berriek alfa ERDa arreta jarri beharreko estimulu motaren arabera, modalitate-horren eremu sentsozialean (eremu tenporalak estimulu auditiboentzat eta atzealdeko eremuak estimulu bisualentzat) topatzen dala erakutsi dute (Jiang et al., 2015).

Esperimentu honek estimulu auditiboak erabili izanak eta efektuak nagusiki eremu tenporaletan topatu izanak, emaitzek tau erritmoaren modulazioa erakusten ari direla adierazten dute. Kontuan izan, begi irekiekin oroimen efektua hizkuntza sarearen parte diren eremuetan kokatu zela.

Zein da 10-Hz inguruan oszilatzen duten erritmoei izen ezberdina jartzearen eragin teorikoa? Erritmo baten modulazioaren funtzioa (e.g., ERS, ERD), frekuentziaz gain, erritmo hori sortu duen burmuin sarearen menpe egon daiteke. Atzealdeko eremutan ageri den 10 Hz-ko erritmo baten modulazioa, eta eremu tenporaletan ageri den 10 Hz-ko erritmo baten modulazio berak funtzio ezberdinak izatea, nahiz eta modulazioaren sorrera fisiologikoa oso antzekoa izan daiteken bi egoeratan.

Lan honetan begi itxierak eragindako bi modulazio topatu ziren. Lehenengoa, atsedean blokean begiak ixtean gertatzen den alfa handitze 'klasikoa' da. Alfa potentzia igoera hau, magnitude txikiagoarekin berreskuratze fasean ageri da ere (ikus 5.2 irudia). Begi itxiek eragindako bigarren modulazioa, estimuluari erantzunez sorrarazitako-potentzia analisisan ikusitako alfa eta beta potentzia igoera da. Bi frekuentzia bandatan, sensore okzipitaletan eta parieto-tenporaletan, ERS efektua handiagoa zen begi itxiekin begi irekiekin baino. Alfa bandako begi itxien efektua, bai gogoratutako eta bai ahaztutako hitzentzat, eremu okzipitaletan eta atzealdeko eremu parietaletan kokatu zen iturri analisisa erabiliz. Askotan ikusi izan den alfa potentzia absolutuaren handiagotzearengatik, begi itxiek eragindako alfa modulazioa aurreikus

daiteken arren, begi itxiek sorrarazitako-potentzian eragiten duten modulazioa ez da azaltzen literaturan.

Metodologiak eragindako arazo izan daitekeena azpimarrtau beharra dago: begi itxien eta begi irekien arteko konparaketak, estimulu ondorengo modulazioetaz gain erreferentzia base potentzia ezberdinak nahasten ditu. Erreferentzia basearen potentzia ezberdintasunak potentzia erlatiboaren interpretazioa zailtzen du, ambiguitasun bat ageri delako: ikusitako ezberdintasunak erreferentzia eta leiho aktiboaren arteko potentzia diferentzia batek eraginda edota soilik erreferentzia basean potentzia absolutuen diferentziak eraginda izan daitezke. Hala ere, begi itxietan topatutako beta-ERSa, potentzia absolutu handiagoa duen erreferentzia base batekiko (e.g., 5.2 irudia), aldaketa erlatiboa handiagoa erakusten du. Honek, begi itxiekin begi irekiekin baino potentzia aldaketa absolutu handiagoa dagoela adierazten du.

ERS efektu honen interpretazio posible bat, begi itxiek alfa bandan eragindako efektuaren espantsio bat izatea da. Hau da, alfa bandak potentzia handiagotzen duenean gailur espektrala zabaldu egiten da eta ondoko frekuentziak hartzen ditu (theta eta beta). Atsedean blokeetan begi itxiek frekuentzia ezberdinetan eragiten dituzten efektuak ikertzean, antzeko efektu bat topatu zuten beta frekuentzia bandan: atzealdeko EEG sensore eta eskuineko sensore parietaletan, begi itxiek beta bandako potentzia handiagotzen zuten (Barry et al., 2007).

Bestalde, beta-ERSa mugimendu ondorengo errebote bat bezala interpretatu daiteke (Pfurtscheller et al., 1996, 1998). Aktibitate motore baten ondoren, beta bandako potentziak ERS bat erakutsi ohi du. Testuinguru honetan, beta-ERSaren modulazioa egoera ezberdinen diferentzia motoreari edo somatosensoreari lotuta egongo litzateke. Faktore ezberdinek beta errebotea modulatu dezaketela erakutsi dute hainbat ikerketek, adibidez, mugimendu baten egindako indarrak (Fry et al., 2016) edota ikusitako mugimendu baten zuzentasunak (Koelewijn et al., 2008). Guk dakigula, ez dago beta errebotearen eta begi itxien arteko lotura aztertzen duen ikerketarik. Hala ere, behatz mugimenduak begi irekiekin (non mugimendua ikusi daitekeen) edo begi itxiekin (non mugimendua ezin den ikusi) ezberdinak izan ditzakete. Diferentzia honek, beta errebotean agertutako ezberdintasunak azaldu ditzake. Nahiz eta azalpen hau guztiz espekulatiboa den, etorkizunean erraz diseinatu daiteke begi irekiek eta itxiek behatz mugimenduen oszilazioetan eragiten dituen aldaketak neurtzeko esperimentu bat. Azalpen honen hutsune nagusia, beta-ERS modulazioak atzealdeko sensoreetan (eta ez motor eremu inguruko sensoreetan) topatu zela da. Gainera beta igoeraren topografia begi itxiek eragindako alfa igoeraren topografiaren, eta baita ere Barry et al. (2007)-k aurkeztutako emaitzen,

oso antzekoa da. Hori dela eta, lan honetan topatutako beta-ERS modulazioa, begi itxiek eragindako alfa-modulazioaren espantsio bat dela proposatzen da.

Nola eragiten du begi itxierak alfan (edo taun)? Datu hauen ezaugarri deigarriena da alfa-tau bandako erantzunek ez dutela ERD handiagoa erakusten begi itxiekin, baizik eta alfa-beta ERSaren modulazio berantiar bat. Begi itxiek alfa modulazio bat eragitea espero daitekeen arren, garrantzitsua da azpimarratzea neurtutako sorrarazitako-potentzia hitz auditibo baten antzemateari eta ulermenari lotutako erantzuna dela. Atsedean blokeko potentzia absolutuan ikusitako aldaketen aurka, hemen, frekuentzia banda ezberdinek hitz bati erantzunez erakusten dituzten dinamikak ageri dira, eta hemen, badirudi, begi itxiek ERS berantiarra modulatu dutela. Gainera begien itxierak ez zuen ariketako errendimenduan ez onurarik ez galerarik eragin. Honek, paradigma konkretu honetan oroimen efektuak tau erritmoa modulatu duela eta begien itxierak atzealdeko alfa-beta erritmoak modulatu dituztela eta bien artean interakziorik ez dagoenaren hipotesia berresten laguntzen du. Bestalde, iturri analisiak erakusten du begi itxierak gogoratutako eta ahaztutako hitzen efektuaren kokalekua aldatzen duela: begi irekiekin efektua hizkuntza sarean kokatzen da eta begi itxiekin eskuineko lobulu parietal eta frontalean. Hala ere, interakzioak estatistikoki neurtuak izan zirenean ez zen interakzio esanguratsurik topatu.

Hemen aurkeztutako esperimenduaren emaitzek modalitate espezifiko hobekuntza hipotesiarekin bat egiten dute. Hipotesi honen arabera, begiak itxerakoan interferentzia bisualak murrizteak irudikapena errazten du eta oroimen bisuala hobetzen du, baina ez ditu beste modalitateko oroimen berreskuratzeak hobetzen (Vredeveldt et al., 2011, 2012). Hemen arukeztutako esperimenduan, partaideek ikasi beharreko materiala modalitate linguistikokoa zen. Berreskuratze fasean material honen gogoratzea, hizkuntza sarean oinarritu daiteke: bi hemisferioetako mintzamen antzemate eremutan eta ezkerreko eremu perisilbianoan. Egindako analisi oszilatarioaren arabera, begi itxien bitartez atzealdeko alfa modulatuak ez du hizkuntza sarearen errendimendua zuzenki modulatu, eta ondorioz, oroimen ariketaren errendimenduan ez zen ez onurarik ez galerarik topatu.

Kontuan hartu behar da azalpen hau egoera ortogonalak erabiliz neurtu daitekeela. Hala ere, belarri itxiera eta begi itxiekin ikusmena neurtuko dituen diseinu bat irudikatzea ez da erraza. Horregatik, burmuineko erritmoen independentzia eta interakzioak neurtzeko ikerketa gehiago egin behar direla proposatzen da, hauen emaitzak modalitate espezifiko hobekuntza eta karga murrizteak prozesu kognitibo ezberdinetan nola eragiten duten ulertzeko erabili.

5.6 Laburpena

Esperimentu honetan aurreikusitako oroimen efektua topatu zen: gogoratutako hitzek, ahaztutako hitzekin alderatuta, alfa ERD handiagoa eragiten dute. Efektu hau, atzealdeko sensoreetan aurkitu ordez, nagusiki eremu tenporaletan topatu zen. Iturri analisiak efektua hizkuntza sarean eta eskuineko lobulu parietal eta frontaletan kokatu zuen. Eraitza hauek oroimen efektua tau erritmoa modulatzeko duenaren eta begi itxierak atzealdeko alfa modulatzeko duenaren adierazgarri dira. Bi modulazio arteko interakzio faltak, tau eta alfa erritmoak erritmo independente bezala tratatu behar direla adierazi lezake. Eta honek, testuinguru konkretu honetan begi itxierak oroimen errendimendua zergatik ez duen modulatu azalduko luke. Datuek, analisiak denbora leihotxiki batean zentratzean, oszilazio aldaketak neurtzea erraza dela ere erakusten dute. Honek azalduko luke zergatik 4. kapituluko esperimentuan ez zen oszilazioen modulaziorik topatu.

III. Atala

Eztabaida eta azken oharrak

6. Kapituluia

Eztabaida orokorra eta laburpena

Tesi honen helburu nagusia burmuin helduetan hizkuntzarekin lotutako epe-motzeko aldaketak neurtzea zen. Aurreko ikerketek nagusiki luzetarako eta zehar-sekzio diseinuak erabili dituzte, eta ondorioz, finkatuta dauden arauen burmuin erantzunak neurtu dituzte. Bestalde, momentuko eta laborategiko trebakuntza erabili dituzten ikerketek, eta ondorioz epe-motzeko aldaketak neurtu dituztenak, EEG teknika erabili zuten eta ez dituzte efektuen adierazle anatomikoak azaltzen. Epe-motzeko eta epe-luzeko ikasketak aldaketa plastiko ezberdinak eragiten dituzte (Rossini and Melgari, 2011), beraz, tesi honetako MEGean egindako esperimentuek aurkezten dituzten adierazle anatomikoak epe-motzeko ikasketan gertatzen diren aldaketa plastikoak hobeto ulertzeko baliagarriak dira. Bi esperimentutan hizkuntza naturalen azpimultzoak (hizkuntza miniaturizatuak) erabili ziren epe-motzeko aldaketak aztertzeko. Hizkuntza miniaturizatuak hizkuntzarekin lotutako aldaketak, ikastaro trinkoen beharrik gabe, ikustea ahalbidetzen dutela hipotetizatu zen. Hirugarren esperimentua partaideen ama-hizkuntzan burututako oroimen esperimentu bat da, oroimenaren funtzio fisiologikoak, eta bereziki oroimen berreskuratzean oszolazioak duen funtzioa hobetu ulertzeko helburuarekin egin zena.

6.1 Emaitzen laburpena

Lehenengo esperimentuan, kontrol-urratzeak era kontzientean antzemateko ariketa bat erabiliz gramatika ikasketa aztertu zen. Honela, MEG teknikak burmuinaren aktibitatea denbora eskala oso motzean jaso ahal izan zuen. Ikasketaren (trebakuntzaren) aurretik, bitartean eta ondoren MEG seinaleak eta ariketaren erantzunak jaso ziren eta ama-hizkuntzan (H1) burututako ariketa berdinarekin alderatu ziren. Emaitzek erakutsi zuten, trebakuntza aurretik partaideek ezin zituztela izen sintagmak zuzenki klasifikatu. Lehenengo trebakuntza bloketik

aurrera ordea, erantzun zuzenen kopurua goi-mugan zegoen eta errendimendu hau orokortze proban mantendu zuten. Urraketa prozesatzen duen burmuin sarea trebakuntzarekin aldatzen joan zen. Lehenengo trebakuntza blokean, sarea eskuin lobulu fronto-parietalean eta tenporalean kokatu zen. Azkeneko trebakuntza blokean eta orokortze-proban, sarea ezker lobulu tenporalean eta behe zirkunboluzio frontalean (IFG) kokatu zen, azken hau, H1an parte hartzen duen hizkuntza sarearen oso antzekoa delarik.

Bigarren esperimentuan, esaldi-entzumen ariketa bat erabiliz hizkuntza ikasketa aztertu zen. Partaideek beraien ama-hizkuntzan eta hizkuntza ezezagun batean esaldiak entzun zituzten MEG seinaleak grabatzen ziren bitartean. Ariketa bera hizkuntza-ezezagunean egindako trebakuntza aurretik eta ondoren burutu zen. Esperimentu honetan esaldi entzumenean sortutako oszilazio erantzunak aztertu ziren. Oszilazio potentzia aldaketa hizkuntza sarean topatu ziren bai ama-hizkuntza entzutean bai hizkuntza ezezaguna entzutean, nahiz eta potentzia aldaketak handiagoak izan ziren hizkuntza ezezagunean (efektu hau bloke ordenarekin nahastuta egon daiteke). Hizkuntza ikasketak oszilazioak modulatzeko dituela erakusten duten ebidentzia indartsurik ez zen topatu.

Hirugarren esperimentuan, ama-hizkuntzan ematen den oroimen berreskuraketa aztertu zen, oroimen berreskuratzean parte hartzen duen aktibitate oszilatarioa hobeto ulertzeko. Partaideek begiak itxita zituztenean, begiak irekita zituztenean baino hitz gehiago antzemango zituztela hipotetizatu zen. Pentsatutakoaren aurka, begi itxierak ez zuen ariketaren errendimendua modulatu. MEG seinaleei dagokienez, begi itxierak aurreikusitako alfa igoera eragin zuen sensore okzipito-parietaletan. Hala ere, oroimenak eragindako alfa modulazioak sensore tenporaletan topatu zen (tau erritmoa). Gainera ez zen alfa eta tau erritmoen arteko interakziorik topatu.

6.2 Nola modulatzeko dira burmuin sareak epe-motzeko ikasketarekin?

Aurretik egin diren ikerketek, ikasketa aldaketak aztertzeke, ERP neurgailuak portaera neurgailuak baino sentikorragoak izan daitezkeela erakutsi dute (Kotz and Elston-Güttler, 2004; Mueller, 2005). Honekin bat eginez, 3 kapituluko esperimentuan portaera emaitzak blokeetan zehar antzeko mantendu diren arren, ERF modulazioak aldatu egin ziren. Gainera tesi honetan azaldutako esperimentuek burmuinaren aldaketa funtzional ezberdinak antzeman zituzten. Alde batetik, 3 kapituluko emaitzek ariketa burutzeko parte hartzen duten burmuin eremuak

trebakuntzarekin aldatzen direla erakutsi zuen. Bestalde, 4 eta 5 kapituluetakoa esperimientuek burmuin eremu berdinetan gertatutako oszilazio aldaketak antzeman zituzten.

3 kapituluko esperimientuan, adibidez, lehenengo trebakuntza blokean gramatikalitate efektua eskuineko lobulu fronto-parietaletan eta tenporalean kokatua zegoen. Eskuin eremu frontala akats-sintaktikoetara mugatzen ez den akats antzemateekin lotua izan da lehenagotik (Indefrey et al., 2001). Gainera, HERA modeloan oinarrituta (Habib et al., 2003), eskuin kortex aurrefrontala oroimen berreskuratzearekin lotua dago. Hala ere, trebakuntza minutu batzuen ondoren, bigarren trebakuntza blokean gramatikalitate efektua ezkerreko lobulu parietal eta tenporaletan kokatu zen. Hirugarren blokean efektua ezker lobulu tenporalean kokatu zen. Azken bi blokeetan efektu nagusia hizkuntza sarean kokatzeak, H2ko oroimen berriak dagoeneko lexikoa eta gramatika prozesatzen duten eremuetan sortu eta txertatzen direla adierazi lezake; eta ez beste prozesu kognitiboetaz arduratzen diren eremu baztertuetan. Sare aldaketa hauek 'gramatikalizazio' trantsizio baten adierazle bezala ulertu daitezke, non ikasitako arauak ikaslearen hizkuntza-prozesamenduko denbora-errealean finkatzen diren (McLaughlin et al., 2010).

Nahiz eta 3 kapituluko emaitzak hizkuntza-ikasketako epe-mozteko beste ikerketetako emaitzekin bat datozen (Mueller et al., 2008, 2007, 2005; Davidson, 2010; Davidson and Indefrey, 2009a), hasiera batean epe-luzeagoko beste ikerketa batzuekin kontraesanean daude. Esperimientu honetako emaitzek hizkuntzaren trebetasun berri batek burmuin sareak azkar moldatzen direla erakusten dute, eta minutu gutxi batzuen ostean trebetasun hori H1 sarearen antza duen sare batean oinarritzen dela. Honen aurka, hizkuntza ikastaro ofizialetako lehen urteko ikasleek H2n erakusten dituzten gramatikalitate efektu patroiak eta H1n erakusten dituztenak ezberdinak direla erakutsi dute luzetarako ikerketek (McLaughlin et al., 2010). Epe motzeko ikasketa ikerketetan partaideek hizkuntzen frakzio txikiak praktikatzeko dituztela eta frakzio beretan aztertuak direla izan daiteke azalpen posible bat. Alabaina, luzetarako ikerketetako partaideek hizkuntza baten ezaugarri ezberdinak ikasten dituzte, baina frakzio txiki batean dira aztertuak. Gerta daiteke aztertuak diren frakzio horiek oraindik gramatikalizatu gabe egotea (McLaughlin et al., 2010). Beste azalpen posible bat, ikasketa intentsiboan gertatzen diren burmuin aldaketak, praktika mantendu ezean, epe luzera galtzen direla izan daiteke. Honetaz gain, esperimientu honetako emaitzek, ERF efektuen denbora eta forma antzekoak direnean ere iturri analisia sensore mailan ikusten ez diren aldaketetara sentikorra dela erakusten dute. Iturri analisiari esker, ERFei lotutako burmuin sarean aldaketak antzeman ziren. Hau dela eta, EEGrekin alderatuz MEG teknikak duen zehaztasun

espazial hobetuak (Baillet, 2017), posizio hobeago baten uzten du hizkuntzarekin lotutako burmuin plastikotasuna aztertzeko.

4 kapituluan azaldutako esperimentuari dagokionez, ez da ikasketak eragindako oszilazio aldaketan ebidentzia indartsurik topatu. Hala ere, honek ez du ezinbestean aldaketa plastikorik ez dela egon adierazten. Izan daiteke datuetan burututako analisisiek plastikotasun hori ez neurtu izana. Lan honetan aztertutako frekuentzia banden potentziek esaldi osoen erantzuna adierazten du, mintzamenaren entzumenean gertatzen diren funtzio kognitibo ezberdinak jasotzen dituelarik (e.g., Friederici, 2011). Analisiak denbora leiho txiki batean zentratzean, agian oszilazio hauetan gertatutako aldaketak neurtu daitezke, 5 kapituluan ikusi den bezala. Bestalde, izandako trebakuntza saioa oszilazioetan aldaketak eragiteko nahikoa ez izatea gerta daiteke. 3 esperimentuak jabetutako jakintzaren txertatze azkarra erakusten duen bitartean, hau ez da gertatzen 4. kapituluan.

Hasiera batean, hau ikasketak sintaktikoa semantikoa baino zailagoa dela esaten duten aurreko ikerketekin kontraesanean dagoenaren irudimena eman dezake (Sanders et al., 2008; Birdsong, 2006). Alabaina, tesi honetako esperimentuan ikasitako hiztegia esaldietan txertatuta dago. Esaldien prozesamenduak prozesu kognitibo ugari barneratzen ditu (e.g., mintzamenaren segmentazioa). Honek, MEG datuetan burmuin aldaketak ikusteko esaldi prozesamenduaren trebakuntzak denbora gehiago behar izatea azaldu lezake. Hirugarren aukera bat, trebakuntza bitartean burmuin aldaketak gertatu baina hauek MEG saiorarte iraun ez izana da. 3 kapituluan zaldu bezala, epe-motzean gertatutako burmuin aldaketen iraunkortasuna ikertu gabe jarraitzen du.

6.3 Hizkuntza ikasketaren hasieran hizkuntza sareak parte hartzen al du?

H1 eta H2 prozesamendu sareek zenbateko bat-etortzea duten eta ea H2 prozesamenduak H1 hizkuntza sarean oinarritzen den, bigarren hizkuntza jabetzaren alorrean behin eta berriz errepikatzen diren ikerketa galderak dira (ikus Indefrey, 2006, -k egindako fMRI ikerketen laburpena). Aurreko ikerketetan, H2 ikasleak H1 ama-hiztunekin konparatuak izan dira (ikus Caffarra et al., 2015, -k egindako EEG ikerketen laburpena). Tesi honetan ordea, partaide talde berdina beraien ama-hizkuntzan (H1) eta ikasi berri zuten hizkuntzan (H2) aztertu ziren.

Nahiz eta 3 kapituluan ez dagoen H1 eta beste blokeen arteko konparaketa kuantitatibo zuzenik, bi hizkuntzetan erabilitako burmuin eremuen konparaketa

kualitatiboa azaltzen da jarraian. Bigarren trebakuntza bloketik aurrera, urraketa eta kontrol sintagmen arteko ezberdintasun gordina ezkerreko kortex tenporalean eta behe-frontalean kokatzen da. Ereku hauek literaturako modelo ezberdinek proposatutako hizkuntza-prozesamendu sarearekin bat datoz (Hagoort, 2016; Friederici, 2011). Hala ere, analisi estatistikoek soilik gainjartze partziala babesten dute, eta eremuak bloketik blokerara aldatzen dira. Gainjartze partzial hau MEGean gauzatutako beste ikerketa batekin bat dator (Davidson and Indefrey, 2009b). Ikerketa honetan urratze efektuak hizkuntza sarean kokatu ziren, baina proba saio bakoitzean hizkuntza sareko eremu ezberdin batean kokatu zen efektua.

Bestalde, 4 kapitulu burmuin osoko analisiak hizkuntzaren efektua eremu frontaletan kokatu zuen theta bandarentzat eta bi hemisferioetako eremu tenporaletan alfa bandarentzat. Patroi hauek H1 prozesatzerakoan agertzen diren patroiekin bat egiten dute (Lam et al., 2016). Lan honetan aurkeztutako emaitzek, bigarren hizkuntzan ama-hizkuntzan baino oszilazio aldaketa handiagoak erakusten dituzte. Alfa desinkronizazioak informazio prozesamendu egoera isladatzen duela, eta alfa sinkronizazioak inhibizio egoera isladatzen duela proposatu izan da (Klimesch et al., 2007). Honetan oinarrituta, esperimentu honetako patroiek eremu tenporalek H2an mintzamen prozesamendurako informazio prozesamendu handiagoa behar dutela, eta beste eremuek H1an baino inhibizio altuagoa behar dutela adierazten dute. Aurkikuntza hauek Indefrey (2006)-rekin bat egiten dute. Indefreyren arabera eremu bat ariketa linguistiko batean parte hartzen duenean, hasieran aktibitate neuronal altuagoa erakusteak ariketa honetan jarritako esfortzua isladatzen du. Trebakuntza urteen ondoren aktibitate ahulagoak ariketa modu efektiboago batean prozesatzen dela isladatu dezake, eta orduan H2 sareak H1 sareen anzteakoak dira.

Laburbilduz, tesi honetako emaitzek H2 ikasketaren hasieratik hizkuntza sareak parte hartzen duela adierazten dute, nahiz eta parte hartzea ama-hizkuntzan duenaren ezberdina izan. 3. kapituluak gainera, H2 sareak H1 sareetara hurbiltzen hasteko minutu gutxi batzuetako trebakuntza behar direla erakusten du. Antzeko hipotesiak egin izan dira EEG ikerketetan, non trebakuntzarekin H2 ERP neurgailuak H1 ERP-etara hurbiltzen hasten diren (e.g. Mueller, 2005).

6.4 Azkeneko oharra

Tesi honen helburu nagusia burmuin helduetan hizkuntzarekin lotutako epe-motzeko aldaketak neurtzea zen. Aurreko ikerketek nagusiki luzetarako eta zehar-sekzio diseinuak erabili dituzte, eta ondorioz, finkatuta dauden arauen burmuin erantzunak neurtu dituzte. Bestalde, momentuko eta laborategiko

trebakuntza erabili dituzten ikerketek, eta ondorioz epe-motzeko aldaketak neurtu dituztenak, EEG teknika erabili zuten eta ez dituzte efektuen adierazle anatomikoak azaltzen.

Tesi honen puntu indartsuenetakoa hizkuntza-ikasketaren adierazle anatomikoak teknika ez inbasiboekin neurtu daitezkeela erakusten duela da. Minutu edo ordu gutxien buruan adierazle hauek aldatu egiten direla erakutsi dute emaitzek. Adierazle anatomiko hauek neurtzeko garrantzia Kotz and Elston-Güttler (2004) eta Mueller (2005)-ek aipatu zuten: neurgailu elektrofisiologikoen portaera emaitzak antzematen ez dituzten aldaketak antzeman ditzakete. Ikerketa hauekin bat eginik, 3 kapituluak portaera antzeko mantentzen zen bitartean, burmuin sareak aldatu egiten direla erakutsi zuen. Honetaz gain, MEGean burututako iturri berreraikitzeak sensore mailan antzematen ez diren efektuak kokatzen dituela erakusten du.

Tesi honen beste ezaugarri garrantzitsu bat, aldaketa elektrofisiologikoen batzuk ikusteko trebakuntza minutu gutxi batzuk nahikoa direla da. Nahiz eta sensore mailan, mota honetako aldaketa azkarrak erakutsi izan diren (Davidson and Indefrey, 2009a, 2011; Mueller et al., 2005, 2007, 2008), iturri mailako aldaketak soilik ikastaro bateko partaideak aztertzen zituen luzeratako ikerketetan erakutsi dira (Davidson and Indefrey, 2009b).

Honetaz gain, guk dakigula, hizkuntza-ikasketak oszilazioetan eragiten dituen aldaketak aztertzen den lehen aldia da. H1an esaldi prozesamenduak eragindako oszilazio modulazioak aztertzen dituzten ikerketak dauden arren (Lam et al., 2016), oszilazioetan hizkuntza ikasketak duen eragina ikertu gabe dago. Zoritxarrez, hemen aurkeztutako esperimentuak ez zituen ikasketak eragindako oszilazio aldaketak topatu. 5 kapituluko emaitzetan oinarrituta, analisiak denbora leihotxikietara mugatzean oszilazio aldaketak neurtzea errazagoa dela hipotetizatu zen. Alabaina, 5 kapituluak ez ditu hizkuntza ikasketa efektuak aztertzen.

Hau guztiagatik, bere hutsune guztiekin ere, tesi honek H2 ikasketa aztertzeko ate berri bat irekitzen du. ERFak epe-motzeko hizkuntza ikasketa aztertzeko neurgailu egokiak direla erakusten du. Topatutako efektuen adierazle anatomikoak modu ez inbasiboan neurtu daitezkeela, eta adierazle hauetan aldaketak ikusteko trebakuntza minutu gutxi batzuk nahikoak direla erakusten du. Oszilazioei dagokienez, lan gehiago behar da epe-motzeko hizkuntza ikasketak eragindako plastikotasuna aztertzeko neurgailu egokiak diren edo ez erabakitzeke.

Laburpena

Gizakion burmuina asko ikertzen ari den arren, misterio bat da oraindik. Bide luzea dugu aurretik haren zirkuiteriek hizkuntza bezalako ekintza liluragarrietan nola amaitzen duten ulertzeko. Eta misterioak misterio, umeeek ama hizkuntza arazorik gabe ikasten duten bitartean, bigarren hizkuntza bat ikasi nahi duten helduek ez dituzte horren emaitza arrakastatsuak. Zein prozesu kognitibo gertatzen dira burmuin heldu batean, hizkuntza bat ikasten ari denean?

Gizakiok abilezia eta portaera berriak eskuratzeko eta ingurumen berritara egokitzeko gaitasuna dugu. Ikasketa da, esperientziaren bidez, portaera aldatzeko prozesua. Burmuinaren plastikotasuna, esperientzia eta eskakizunen arabera burmuinak bere antolakuntza anatomiko eta funtzionala moldatzeko duen gaitasuna da (hizkuntza baten ikasketa prozesuan, esate baterako). Era berean, burmuinaren plastikotasunak gaitasun kognitiboen garapena ahalbidetzen du (Uylings, 2006). XX. mende hasieran, garapenaren lehen etapen ostean, aldaketa anatomikoak posible ez zirela uste zuten ikertzaileek (Nieto-Sampedro and Nieto-Díaz, 2005). Alabaina, 50. hamarkada amaieran nerbio-sistemaren anatomia eta funtzionalitatea moldatzeko gaitasunak bizitza osoan zehar mantentzen direla frogatu zen (Liu and Scott, 1958). Plastikotasunaren eztabaida honako proposamenarekin konpondu zen: giza burmuinaren garapena prozesu ugariz dago osatuta eta prozesu bakoitzak plastikotasun profil ezberdina erakusten du (Uylings, 2006).

Denbora eta espazio eskala ezberdinekin egindako analisiak, portaera desberdinekin lotutako plastikotasun profiletara dira sentikorrak. Esate baterako, espazio eskala oso txiki batean, plastikotasun neuronalak konexio sinaptikoen arteko aldaketak aztertzen ditu. Oso zaila da plastikotasun mota hau hizkuntza ikasketarekin erlazionatzea, gizakiongan neurketak egiteko eskuragarri ditugun teknika gehienekin ezinezkoa baita eskala horietan lan egitea. Bestalde, burmuin osoaren eskalako plastikotasuna teknika ez inbasiboen bitartez azter daiteke. Plastikotasun mota hau errazagoa izango da hizkuntza ikasketarekin erlazionatzea, in vivo neurtu baitaiteke.

Hizkuntza baten ikasketak sortutako plastikotasuna neurtzeko, teknika ez inbasiboen arteko egokiena magnetoentzefalografia (MEG) da. MEGak potentzial

post-sinaptikoen gorabeherak neurtzen ditu, 5-10 ms inguruko denbora eskala dutenak (Lopes da Silva, 1991), hizkuntzarekin lotutako prozesuak neurtzeko eskala tenporal egokia eskaintzen du beraz. Linguistikoki eta psikologikoki motibatutako diseinu esperimentalen laguntzaz, teknika honek hizkuntzaren azpiprosesuak 'noiz' gertatzen diren aztertzea ahalbidetzen du: integrazio akustiko-fonologikoa, sintaxia eta semantikaren prozesamendua, integrazio sintaktiko-semantikoa, etab. (Friederici, 2011). Gainera, eremu magnetikoen ezaugarri fisikoak direla eta, MEG teknikak iturrien berreraikitzea ahalbidetzen du (Baillet, 2017). Iturrien berreraikitzearekin lortutako adierazle anatomikoek oso informazio baliotsua eskaintzen dute ikasketan ematen diren aldaketa plastikoak ulertzeko.

Ikerketa gehienak epe luzeko ikasketan zentratu diren arren (Caffarra et al., 2015), egin berri diren ikerketa batzuek epe motzeko ikasketan erakutsi dute interesa (adibidez, Davidson and Indefrey, 2009a). Azken hauek hizkuntza miniaturizatuak erabiltzen dituzte, ikasi beharreko ezaugarriak eta partaideek eskuratutako gaitasun maila hobeto kontrolatzen laguntzen baitute. Diseinu mota honek ikasketa bitartean gertatzen diren garun-aldaketak neurtzea ahalbidetzen du. Epe motzerako ikerketa gehienek gramatika jarri dute arreta (Mueller et al., 2005, 2007, 2008; Davidson and Indefrey, 2009a,b, 2011), hizkuntzei dagokienean ikasteko esparru zailena baita, fonologiarekin batera. Aipatutako ikerketek, ordu (edo minutu) batzuetako ikasketaren ostean, burmuineko seinale elektrikoetan aldaketak somatu zituzten. Alabaina, ikerketa hauek elektroentzefalografia (EEG) bidez neurtu zituzten datuak eta ez dute adierazle anatomikoen berririk ematen.

Tesi hau MEG bidez egindako bi esperimenturen gainekoa da, epe motzeko hizkuntza ikasketari dagozkionak. Hala, jasotako seinale magnetikoak jasandako aldaketen adierazle anatomikoak erakusten ditu. Honez gain, oroimenaren berreskuratze prozesuan oszilazio neuronalek duten funtzioa hobe ulertzeko helburuarekin, partaideen ama hizkuntza erabilia egindako hirugarren esperimentu bat ere barnebiltzen du.

6.5 Lehen esperimentua: Gramatika ikasketa

Lehen esperimentuak gramatika arau berri baten ikasketa ikertzen du. Ikasketaren (praktikaren) aurretik, bitartean eta ondoren MEGarekin bildutako garun jarduera ebokatuaren iturri berreraikitzeak aurkezten ditu. Esperimentuko bi saioak bi egun jarraietan egin ziren eta gramatika ikasketa, kontrol-urratzeak era kontzientean antzemateko ariketa bat eginda ikertu zen. Asmatze proportzioak eta MEG seinaleak ikasketaren aurretik, bitartean eta ondoren grabatu ziren eta ama hizkuntzan (H1)

jasotako grabaketekin alderatu. Partaideei Euskarazko (H2) izen sintagmen zenbaki konkordantzia irakatsi zitzaizkien, hau da, arau morfosintaktiko bat. Euskara-Gaztelera kognatuak erabili ziren hiztegirako, zama semantikoa gutxitu eta era horretan urraketa sintaktikoen prozesamendurako baliabideak libre uzteko (Mueller et al., 2008). Praktika blokeen ostean, orokortze ariketa bat egin zen, non partaideek arau morfosintaktiko beraren gaineko erabakitze ariketa bat egin behar zuten, hiztegi berria erabilita (hau ere kognatua). Hiztegi kognatuarekin arau gramatikalak azkar barneratuko zirela izan zen ikerketa honen hipotesia. Praktikaren aurretik partaideek ezin izan zuten izen sintagmen gramatikaltasuna modu egokian epaitu. Praktikako lehen blokean eta arau gramatikalaren azalpenaren ostean, ordea, partaideen erabakia zuzena zen portzentaje oso altu batean. Praktikako beste blokeetan eta orokortze blokean erantzun zuzenen proportzioa mantendu zuten. Helduek gramatika ikasketa azkarra izan dezaketela iradokitzen du honek, ikasketa intentsibo baten bitartez egiten denean behinik behin.

Gramatika urraketen prozesamenduan parte hartutako sareak, praktikarekin aldatu ziren ordea. Praktikako lehen blokean, eskuin lobulu tenporalean eta eskuin aurre lobuluan lokalizatu zen gramatikaltasun efektua. Burmuin eremu hauek akats antzematearekin erlazionatu izan dira lehenago ere (Indefrey et al., 2001). Gainera, HERA (hemispheric encoding/retrieval asymmetry) modeloaren arabera, eskuineko aurre garun-azala oroimen berreskurapenarekin dago erlazionatuta (Habib et al., 2003). Alabaina, hurrengo praktika blokean, gramatikaltasun efektua ezker lobulu parieto-tenporaletan lokalizatu zen. Azkenik, hirugarren praktika blokean eta orokortze ariketan, efektua ezker lobulu tenporalean lokalizatu zen. Aldaketa hauek 'arau gramatikalizazio' prozesu bat bezala interpretatu daitezke, non partaideek denbora behar duten arau honen jakintza denbora errealeko prozesamenduan txertatu ahal izateko (McLaughlin et al., 2010).

6.6 Bigarren esperimendua: Esaldien ulermena

Bigarren esperimendua esaldiak entzuteko ariketa bat erabiltzen du hizkuntza ikasketa aztertzeko. Kasu honetan, partaideek (jatorri ingelesekoak) bai ama hizkuntzan (H1), eta baita hizkuntza ezezagun batean (H2, Gaztelera) ere entzun zituzten esaldiak, MEG seinaleak grabatzen ziren bitartean. Ondoren, MEGetik kanpo, esaldi horiek hizkuntza berrian ulertzeko moduko hiztegia irakatsi zitzaizkien. Hiztegia ikasteaz gain, hiztegi berriarekin osatutako esaldi osoen entzumena praktikatu zuten. Hurrengo egunean, partaideek ama hizkuntzan eta ikasi berri zuten hizkuntzan entzun zituzten esaldiak, MEG seinaleak grabatzen ziren bitartean eta MEG saio bakoitzaren ondoren ulermen frogak egin ziren. Lehenengo eguneko

frogan, partaideek hitz solte batzuk errekonozitu zituzten baina ez ziren gai izan esaldi osoak ulertzeko. Bigarren egunean ordea, ulermen frogako erantzunak zuzenak izan ziren. Honek ez du soilik helduengan hiztegiaren ikasketa azkarra izan daitekeela iradokitzen, ikasitako hiztegia mintzamenetik segmentatu eta identifikatu daitekeela baizik, eta baita hitz ezberdinen esanahiak esaldiarena lortzeko batu daitezkeela ere, praktika saio bakarraren ondoren.

Esperimentu honetan, esaldiak entzutearen eraginez sortutako jarduera oszilatarioa aztertu zen. Horretarako isiltasunaren eta esaldien arteko potentzia aldaketak neurtu ziren, frekuentzia banda bakoitzarekin. Potentzia aldaketak hizkuntza sarean lokalizatu ziren bai ama hizkuntza eta baita hizkuntza berria entzutean ere, nahiz eta potentzia aldaketak handiagoak ziren azken kasu honetan. Emaidza hauek, hizkuntza berriek hizkuntza saretan informazio prozesamendu handiagoa eta beste burmuin eremuetan inhibizio altuagoa behar dutela iradokitzen dute. Ez zen ebidentzia sendorik topatu hizkuntza berriaren ikasketak eragindako potentzia aldaketetan. Emaidza hauek, esaldi oso bati erantzunez sortutako oszilazioek esaldi horren entzumenean gertatzen diren prozesu asko jasotzen dituztela eta horietako prozesu batzuetan gertatu daitezkeen aldaketa txikiak difuminatu egiten direla iradokitzen dute.

6.7 Hirugarren esperimentua: Oroimenaren berreskuratzea H1an

Hirugarren esperimentuan, H1an oroimenaren berreskurapena ikertu zen, entzutezko materialak erabiliz. Partaideek 50 hitzeko zerrendak buruz ikasi zituzten. Zerrenda bakoitzeko hitz guztiak banaka agertzen ziren pantailan eta guztiak ikusi ostean, partaideek 5 minutuko praktika burutzen zuten zerrenda buruz errepasatuz. Azkenik, antzemate ariketa bat egin zen entzutezko materialekin. Praktika eta antzemate ariketa bi egoera ezberdinetan burutu ziren, begiak itxita eta begiak irekita. Partaideek begiak itxita zituztela hitz gehiago antzemango zituztela hipotetizatu zen. Alabaina, begiak ixteak partaideen erantzunak ez dituela aldatzen erakusten dute emaitzek.

MEG uhinei dagokienean, begiak ixteak sentzore parieto-okzipitaletako alfa frekuentzia bandan (8-13 Hz) potentzia igoera eragin zuen. Bestalde, gogoratutako eta ahaztutako hitzen eraginez gertatutako alfa modulazioak sentzore tenporaletan topatu ziren. Azken emaitza honek oszilazioak tau izeneko erritmo baten eragina direla ondorioztatzea ahalbidetzen du. Honez gain, alfa eta tau erritmoen arteko interakziorik ez zen topatu. Emaidza hauek entzutezko oroimen ariketetan tau

eritmoaren modulazioak oroimenaren errendimenduarekin erlazionatuta daudela iradokitzen dute, eta hauek MEGarekin neurtu daitezkeela, EEGarekin ez bezala. Eraitza hauek tau eta alfa oszilazioen rola ezberdina dela iradokitzen dute, nahiz eta frekuentzia banda antzerakoan oszilatzen duten. Hala, oszilazio analisien emaitzak interpretatzeko garaian, frekuentziaz gain efektuen topografia edo/eta lokalizazioa ere hartu behar dira kontutan.

6.8 Eztabaida orokorra

Lehen esperimentuko emaitzak bat datoz epe motzeko ikasketaren gaineko beste emaitzekin (Mueller et al., 2008, 2007, 2005; Davidson, 2010; Davidson and Indefrey, 2009a), praktika ordu (eta baita minutu ere) gutxi batzuk nahikoak direla burmuineko sare funtzionalak aldatzeko erakutsiz, sare funtzional hauek H1 prozesatzean agertzen diren sareen antza hartzen dutelarik. Bestalde, emaitza hauek epe luzeko ikasketa emaitzekin bateraezinak direlako irudipena eman dezakete. Luzetarako ikerketek hizkuntza ikastaro ofizialetako lehen urteko ikasleek H2n erakusten dituzten gramatikalitate efektu patroiak eta H1n erakusten dituztenak ezberdinak direla erakutsi dute (McLaughlin et al., 2010). Epe motzeko ikasketa ikerketetan partaideek hizkuntzen frakzio txikiak praktikatzan dituztela eta frakzio beretan aztertuak direla izan daiteke azalpen posible bat. Alabaina, luzetarako ikerketetako partaideek hizkuntza baten ezaugarri anitzak ikasten dituzte, baina frakzio txiki batean dira aztertuak. Gerta daiteke aztertuak diren frakzio horiek oraindik gramatikalizatu gabe egotea (McLaughlin et al., 2010). Beste azalpen posible bat, ikasketa intentsiboan gertatzen diren burmuin aldaketak, praktika mantendu ezean, epe luzera galtzen direla izan daiteke.

Bigarren esperimentuan ikasketak aktibitate oszilatarioetan sortutako modulazio argirik ez zen topatu. Azalpen bat izan daiteke, esaldiak entzuteak funtzio kognitibo ezberdinetan baitan dagoenez (segmentazioa, hitzen antzematea, esanahien integrazioa, etab.) praktika saio bakarra nahikoa ez izatea aktibitate oszilatarioan aldaketak eragiteko. Beste aukera bat izan daiteke, aldaketak gertatu izana baina hauek ezin antzeman izatea. Burututako analisiak funtzio kognitibo ezberdinekin lotutako aktibitate oszilatarioa erakusten du. Analisia oszilazio tarte txikiagotan zentratuko balitz, agian aktibitate oszilatarioko aldaketak ikusgai egon lirateke, hirugarren esperimentuan gertatzen den antzera.

Bigarren hizkuntzen ikasketen ikerketan ohiko galdera da ea hizkuntza sarea ikasketa prozesuaren hasieratik murgilduta dagoen edota bestelako funtzio kognitibotaz arduratzen diren burmuin areak biltzen diren H2a prozesatzeko

(Indefrey, 2006). Lehenengo esperimentuak H1 eta H2ren erantzunen arteko konparaketa estatistikoa aurkezten ez duen arren, konparaketa kualitatibo bat eskaintzen da. Bigarren praktika bloketik gramatikalidade efektua ezker lobulu tenporalean eta ezker behe aurre giroan kokatzen da, biak modelo ezberdinek azaldutako hizkuntza sareko eremuak direlarik (Hagoort, 2016; Friederici, 2011). Hala ere, analisi estatistikoek efektua blokez bloke aldatzen diren patroik honen azpieremetutan kokatzen du. Sare hauen gainjarri partzialak bat egiten dute luzetarako MEG ikerketa batekin, non estatistikoki efektua erakusten zuten burmuin eremuak obulu tenporalaren barruan aldatu egiten ziran saio batetik bestera (Davidson and Indefrey, 2009b).

Bestalde, bigarren esperimentuan burmuin mailako H1 eta H2 arteko aktibitate oszilatarioan konparaketa estatistikoa aurkezten da. Emaitzek iradokitzen dute H2n erantzun oszilatarioak anplitude handiagokoak direla H1ekoekin alderatuz gero. H2n alfa frekuentziaren desinkronizazio handiagoa topatu zen lobulo tenporaletan. Alfa desinkronizazio handiagoak informazio prozesamendu gaitasunarekin erlazionatu izan da (Klimesch et al., 2007; Hanslmayr et al., 2012). Bigarren esperimentuko patroik hauek adierazten dute lobulu tenporalek informazio prozesamendu handiagoa behar dutela H2 entzuten, eta ariketan parte hartzen ez duten eremuek inhibizio altuagoa dutela. Emaitza hauek Indefrey (2006)-ren emaitzekin bat datoz, ikasketa prozesu hasieran pertsonak ariketa bat burutzeko esfortzu handiagoa behar dutela eta hau H1an baino intentsoago den burmuineko eremuen erreklutamendu batean islatzen dela diote emaitza hauek. Hizkuntza baten maila batera iristean, ariketak errazago gauzatzen dira eta, ondorioz, burmuineko aktibitatearen patroiak H1ko patroietara hurbiltzen dira.

Laburbilduz, tesi honek helduen hizkuntza ikasketa ikertzeko ate berri bat irekitzen du. Tesi honen emaitzek burmuineko hizkuntza sare H2 ikasketa prozesuaren hasieratik presente dagoela adierazten dute, nahiz eta sarearen erantzuna H1koaren ezberdina den. Bestalde, lehenengo esperimentuak praktika minutu batzuk (ikasketarekin bat datozen) burmuin sareetan aldaketak sortzeko nahikoak direla erakusten du. Sorrarazitako eremu magnetikoak epe motzeko ikasketa ikertzeko tresna egokia dela erakutsi da, eta hauen korrelatu anatomikoak modu ez inbasiboan neurtzea posible dela. Bigarren esperimentuak, hizkuntzaren beste aspektu batzuetan aldaketak antzemateko, praktika saio gehiago behar direla erakusten du, denbora epe laburrago batean oinarritutako analisi batek aldaketak antzeman ditzakeela baztertu gabe.

English version

Introduction

